

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO

Curso académico 2013-2014 Ikasturtea

Ikerketa lana / Trabajo de investigación

1920. hamarkadan Erronkari Ibarrean jaio eta bizitako emakumeen bizimodua: denboraren kudeaketa eta honetan genero-sistemak duen eragina.

Egilea / Autor/a:

Jone Alastuey Garcia

Tutorea / Tutor/a:

Jone Miren Hernandez

Septiembre 2013 / 2013ko Iraila

Aurkibidea

1. Sarrera eta ikerketa objektua (3. orrialdea)
2. Justifikazioa (3. orrialdea)
3. Helburuak (4. orrialdea)
4. Hipotesiak (5. orrialdea)
5. Marko teorikoa (6. orrialdea)
 - 5.1. Landa eremuko emakumeak (6. orrialdea)
 - 5.2. II. Errepublikak eta Frankismo garaiko emakumeak (11. orrialdea)
 - 5.3. Erronkari Ibarra (15. orrialdea)
 - 5.3.1. Ibarra, Herriak eta Familia (15. orrialdea)
 - 5.3.2. 1920-1960 bitarteko urteak Erronkari Ibarrean (20. orrialdea)
 - 5.3.3. Erronkari Ibarreko emakumeak 1920-1960 urteetan (26. orrialdea)
 - 5.4. Denbora, generoa eta landa eremua (28. orrialdea)
 - 5.4.1. Denboraren inguruan (28. orrialdea)
 - 5.4.2. Denborak (31. orrialdea)
 - 5.4.3. Denborak eta Generoak (38. orrialdea)
 - 5.4.4. Denborak landa eremuan (43. orrialdea)
 - 5.5. Lana eta astialdia (45. orrialdea)
 - 5.5.1. "Lana" (45. orrialdea)
 - 5.5.2. Astia, Aisia eta Denbora propioa (51. orrialdea)
6. Metodologia (59. orrialdea)
7. Bizitza eta denbora ulertzeko moduak. Lana eta astialdiaren garrantzia (63. orrialdea)
 - 7.1. Komunitatearen denborak, familia edo gertuko harremanen denborak eta denbora propioa (66. orrialdea)
 - 7.1.1. Komunitatearen denborak (67. orrialdea)
 - 7.1.2. Familia edo gertuko harremanen denborak (77. orrialdea)
 - 7.1.3. Denbora propioa (89. orrialdea)
 - 7.2. Denbora eta Generoa (97. orrialdea)
8. Ondorioak (100. orrialdea)
9. Bibliografia (111. orrialdea)

1. SARRERA ETA IKERKETA OBJEKTUA

Proiektu honekin, batetik, Erronkari Ibarreko biztanleen bizitza ezagutzeko aportazio bat egin nahi izan dut; eta bestetik, denboraren bizipen eta kudeaketaren ikuspegitik, bestelako gizarte antolaketa bat aztertu nahi izan dut. Hau guztia, genero-sistema kontutan hartuz egin dut.

Erronkari Ibarreko 1920-1960 urteak behatu ditut eta horretarako 1920. hamarkadan jaiotako emakumeen esperientziak jasotzen aritu izan naiz. Beraz, proiektu honetan data zehatz hauetako Erronkari Ibarreko emakumeen bizien inguruan arituko naiz.

Bizi eredu edo bizimodu hauek behatu ahal izateko, denboraren bizipenak hartu ditut kontutan, eta batez ere, lanari eta astiari eskaini dioten denborari erreparatu diot. Honen bitartez, emakume hauek nola bizi ziren behatu ahal izan dut, baita euren denboraren ustiapena nolakoa zen ere.

Hau horrela izanda, nire ikerketa objektua emakume hauen denboren bizipenak litzateke.

Honen guztiaren azterketa egokia egiteko generoa kontutan hartu izan dut, alde batetik, proiektua diseinatzerako orduan, eta bestetik, ateratako emaitzetan genero-sistemak izan duen zeresana edo eragina ikertuz.

2. JUSTIFIKAZIOA

Lan hau burutzeko arrazoi nagusia motibazio pertsonala dela esan beharra dago. Azken finean, beti bizi izan naiz nire arbasoen bizimoduaren inguruan interesatuta eta beti uste izan dut euren bizimodu horrek ekarpen handia egin dezakeela gure gaur egungo gizarte eredu nagusiari (azeleratua, kontsumista, etab.). Hau da, bestelako une historikoak, bestelako bizimoduak edota bizibaldintzak behatuz gurean garatu gabe dauden bestelako tresnak jaso ahal ditugula uste dut eta kasu honetan, autosufizientzia, elkartasuna, naturarekiko harremana edota bizi erritmo mantsoagoa jaso ditzakegu.

Oso ohikoa da landa eremuko emakumeen bizitzaren imajina negatiboa izatea. Esklabizatutako emakumetzat ditu gaur egungo gizarteak, baina ikerketa honen bitartez mahaigaineratu nahi da euren bizimodua gaur egungo bizimoduaren ezberdina besterik ez dela, ez hobeagoa ezta okerragoa ere, soilik, beste modu batekoa. Ez dut garaiko bizimodu hori idealizatzeko asmorik, baina frogatu nahi da garai ezberdinetan kontzeptuen inguruko ulermen ezberdinak izan ditzakegula, hala nola, denboraren ingurukoa.

Horrela, gaur egun dagoen lana (egin beharrekoak, bai ordaindutakoa eta baita etxean eta zaintzan egindakoa) eta aisialdiaren denboren arteko dikotomia honek izan dezakeen beste kontzepzio bat izango dut aztergai lanean, oraingoan, gure aurreko belaunaldien bizimoduak aztertuz.

Hau da, bestelako bizi ereduak ezagutzea dut helburu eta horregatik, bestelako ereduak jasotzera jo dut; beharbada beste leku eta garai batzuetan egungo egoerari aportatzeko zer edo zer topatu baitezakegu.

Aisialdia eta lan esparruak aztertzea hautatu dut, azken finean, emakumeen denboraren kudeaketa edo antolaketa behatuta, hauen bizimodua eta gizartean jokatzeko duten papera azaleratu daitekeelako.

Bestalde, Erronkari Ibarren inguruan dokumentazioa bilatzerako orduan, emakumeen historiaren hutsune handi bat dagoela nabarmena da eta horregatik erabaki dut hauen ahotsei bide ematea. Egia da, dokumentazioetan, orokorrean, ez dagoela sexu-generoen arteko ezberdintasunik nabarmentzen, sexu-generoa zehaztu gabe aritzen baita orain arte Erronkari Ibarren inguruan egindako lanetan; ikertutakoa edo lanetan adierazitakoa, pertsona guztien bizimodua balitz bezala agertzen da. Hori bai, berez gizonezkoek egiten zituzten gauzak edo zuten bizimodua azaltzen dira etengabe, nahiz eta esan bezala pertsonen bizimoduaz hitz egin orokorrean. Emakumeen jardueren inguruan momentu zehatzetan hitz egiten da eta emakumeek egindakoak zirela zehazten da gehienetan.

Bukatzeko, ikerketa hau burutzearen beste arrazoi bat da, Erronkari Ibarreko hainbat testigantza bilduz eta hauekin ateratako ondorioekin Ibar honetara ekarpen bat egin nahia. Ikerketa honen interesen bidean, aztertuko den garaiko emakumeek Errepublikan, Gerra Zibila eta Lehenengo Mundu Gerra eta Frankoren garai historikoak bizi izan zituztela kontutan hartu behar da. Beraz, ikusi ahalko dugu zelako eragina izan zuen honek denak ere Erronkari Ibarrean, eta batez ere emakumeengan.

3. HELBURUAK

Orokorra:

Denboraren kudeaketari dagokionez bestelako bizi ereduak ezagutzea; 1920-1930. hamarkadan erronkari bailaran jaiotako eta bizitako emakumeen bizimodua ikertzea, denboraren banaketari erreparatuz. Bide batez, honetan genero-sistemak duen eragina aztertzea.

Espezifikoak:

- Komunitatearen denbora, familia edota gertuko harremanen denbora eta denbora pertsonala direlakoaren hiru dimentsio horiek aztertuz, emakume hauen denboraren kontzepzioa eta esperientziak ikertzea.
- Erronkari Ibarreko emakumeek, zehazki, lana eta astialdiaren inguruan zituzten bizipenak ezagutzea. Hau da, bi kontzeptu hauek garai eta espazioa horretako gizarte batean zelako lekua izan zuten ikertzea.
- Erronkari Ibarreko emakumeek denbora propioaz eta astialdiaz gozatzeko aukera zuten edo ez azaleratzea.
- 1920-1960 urteen bitartean, Erronkari Ibarreko gizarte honetan genero-sistema nola eta zertan gauzatzen zen aztertzea.
- Genero-sistemek sortzen dituzten diskriminazio posibleen aurrean emakume hauek zelako erresistentziarako estrategiak zituzten deskubritzea.

4. HIPOTESIAK

- Bizimodu komunitarioa zegoen eremu honetan gizonak emakumeek baino denbora libre gehiago zuten. Hau horrela izanik, 1920. hamarkadan jaiotako Erronkari Ibarreko emakumeen denbora gehiena lanarengatik hartuta zegoen: mendia, etxea, baratza, animaliak, familia, etab.. Beraz, Erronkari Ibarreko emakumeek ez zuten denbora propioa ezta interes propioa ere, horretan pentsatzeko astirik ere ez zutelako.
- Guzti hau eragingo zuten faktore esanguratsuenak, emakume hauen sozializazioa arduratsu izatearen baitan egitea eta genero-sistemak ezartzen zuen rolen banaketa izango dira. Euren bizitzako denboraren kudeaketa, beren inguruko beharren arabera izanik eta etxeko beharrik asetzeko zuten bere ardurarekiko zintotasunagatik, emakume hauek euren buruengan pentsatzeko astirik ere ez zuten.
- Lana emakume hauen bizitzaren ardatza zelarik, astialdia eta lana ez zen modu dikotomikoan ikusten, baizik eta biak elkareraginean agertzen ziren emakume hauen bizitzetan. Hau da, lanean zeuden bitartean astialdi denborak zituzten, baina beti ere egin beharrekoak ahaztu gabe.
- Lanaren kontzeptualizazioa ez zen gaur egun duguna, derrigorrezkoa eta denbora konkretu bat hartzen duguna. Gizarte honetan lana bizirauteko ezinbestekoa zen eta eguzkia ateratzen zenetik iluntzen zuen arte irauten zuen lanaldiak.
- Astialdia kontzeptu bezala ez dugu emakume hauengan aurkituko. Baina gaur egun astialdi kontzeptuaren barruan kokatzen ditugun jarduerak aurkituko ditugu haien bizitzetan txertatuta.
- Garai haietan bizitzeko gehiena etxean edota laguntasunen edo elkartasunaren bitartez lortzen zen, beste gauza batzuk izateko, dirua beharrezkoa zen ordea; hala

- nola, arroza, olio, eta etxeetan ekoitzi ezin zituzten produktuak erosteko. Baina funtsezkoena etxean lan egin ahal izateko eskuak izango dira familia hauentzat.
- Generoen arteko diskriminazioa ez du soldata familiarrak markatuko, etxe askotan hau ez baita existituko. Beraz, generoen arteko diskriminazioaren arrazoa sozializazioaren eta rol banaketaren eraginez sortuko da besteak beste, arduren idearioa oso barneratuta izango baitute emakume hauek.

Helburu eta hipotesi hauek ditugula, lehenengo marko teorikoari eta ostera metodologia azaltzeari ekingo diot.

Marko teorikoari dagokionez, hiru ardatz jorratzea ezinbestekotzat jo dut. Hasteko, landa eremuko emakumeen inguruko bibliografia biltzea iruditu zait egokiena, horrela ikerketari dagokionez aurretik eremu honen inguruan bildutakoak adierazi ditut hemen. Ostera, kokapen historiko eta espaziala egin dut. Honetarako, II. Errepublika eta Frankismoaren inguruko apunte batzuk ipini ditut, beti ere genero ikuspegia mantenduz. Eta espazioari dagokionez, Erronkari Ibarren inguruko hainbat datu irakurri ahal ditugu. Bukatzeko, Denbora izango da azkeneko ardatza. Honen inguruan teorizatutakoa aurkeztuko dut lehendabizi eta gero, denbora moten inguruan arituko naiz; batez ere azterlanean oinarrituko naizen hiru dimentsio motak azaltzen ditut. Ardatz honen barnean ere Lana eta Astia kontzeptuak lantzen ditut, batez ere bi hauen inguruan ibiliko naizelako lanean zehar.

Metodologia, marko teorikoaren atzetik jarri dut, horrela behin burua kokatuta erabilitako metodoa, aukeratutako informatzaileak eta abar hobeto ulertu ahal izateko. Atal honetan ere, ikerlana egiterakoan izandako eta bizitako esperientziak azaltzen ditut.

5. MARKO TEORIKOA

5.1. LANDA EREMUKO EMAKUMEAK

Ikerketa honetan emakumeen inguruan eta zehazki mendi edo landa eremuko emakumeen inguruan arituko garenez, atal honetan landa eremuetako emakumeen egoera eta bizi baldintzak deskribatuko ditut, orain arte egindako lanak kontutan izanda. Batez ere, soziologiak landu du hau, baina bestelako gizarte zientziek ere jorratu dute gaia, hala nola, ekonomiak, gizarte antropologiak eta historiak.

Emakumearen lana landa eremuan eta bertan, lanari dagokionez sexuaren arabera ematen den banaketaren inguruan idatzi da gehienbat eta batez ere Estatu Batuetan eta herrialde anglosaxoietan. Bestalde, landa eremuko emakumeen lan ordutegia ere ikertua izan da, eremu honetako familien gestio administratiboaren gidariaren inguruan ere aztertu egin da eta baita soldata baten truke lan egiten duten emakume nekazariak eta lanbide honetako emakume independenteak (ezkongabeak, dibortziatuak edota alargunak) ere.

50-60. hamarkadetatik aurrera, landa eremuko emakumeen inguruan asko behatu izan da, batez ere Europa mailan hasieran, eta geroago Espainian. M^a Dolores García Ramón autoreak idatzita, oso ikuspuntu kontserbadoretik egindako ikerketak izan ziren.

Tuvieron un enfoque muy funcionalista; son estudios empíricos con escasa base teórica y con una fuerte inspiración en lo que se ha denominado “ideología doméstica”, una ideología muy conservadora respecto al papel de la mujer; (...). El auge de este tipo de análisis está muy relacionado con el interés de las universidades americanas en aquellos momentos en profesionalizarlos estudios de economía doméstica y promover los programas de extensión rural, en un intento de encuadrar el trabajo doméstico dentro de una marco de estudio científico y así, de algún modo, elevar su estatus (García Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez, 1995:21-22).

70. hamarkadan, ikerketa Europearretan, landa eremuko emakumeen etxetik kanpoan soldata baten menpean egindako lana ere baloratzen hasiko da, beharbada, ikuspuntu marxistak eraginda. Baina 80. hamarkadan izango da ikerketa hauek ikuspegi feminista barneratuko dutenean.

Gaur egun, landa eremuko emakumeen inguruko lan anitz daude, batez ere Europa mailan. Baina ikusi dudanez, ikerketa hau kokatuko dudan epeetan ez da apenas azterlanik egongo, ez Espainian behintzat. Eta are gutxiago, generoa kontutan izanda edo ikuspuntu feminista batetik eginda.

Jaso ditudan datuen arabera, landa eremuan lan banaketa zorrotza egon da. Horrela gertatu da behintzat euskal gizartean, zeinetan gizonezkoek izango duten ardura ekonomikoa eta emakumeek etxekoa eta familia zaintzearena.

En la sociedad tradicional vasca, la mujer estaba a cargo principalmente de la crianza, educación de las niñas y niños, de la preparación de la comida, del cuidado de las aves de corral y de la venta de sus productos, de las labores de costura, la compra de la ropa necesaria para la familia, la de los muebles, del ajuar de cocina así como de su conservación y limpieza. De las labores del campo y del establo se ocupaba el hombre aunque también la mujer participaba en la faenas del campo pero siempre como señala Barandiarán “bajo la dirección de aquel”. (Del Valle, 1996:10).

Landa eremuko gizarte autosufiziente batean, produkzioa eta erreprodukzioaren arteko mugak oso zehaztugabeak eta iragazkorrak izan dira. Azken finean, emakumeek etxeetan mota guztietako gauzak produzitzen zituzten: txerrikiak, kontserbak, arropa, ogia, baratzeko elikagaiak, abereen haragia, eta abar. Beraz, iruditu daiteke emakumearen lana landa eremuan

gutxietsia ez zegoenik, produkzio lanetan aritzen baitzen soldatarik kobratu gabe, gizonetzkoaren kasu gehienetan bezala. Hona hemen azalpen bat:

Hasta muy recientemente, en las sociedades europeas, la noción de que el trabajo era prerrogativa de un género más que del otro no habría sido entendido. El trabajo era realizado por miembros de las familias para el bienestar colectivo de los miembros de las familias. (...) Los individuos estaban obligados, en gran medida, a ser miembros de las familias y tenían que ganarse la vida, tenían que arreglárselas, salir adelante, y no habrían visto la necesidad de filosofar (...) (Palh, 1991:34).

Baina hau ez da horrela izango, egungo lan batzuek argitaratzen dutenez, landa eremuko emakumearen aportazioa ere baloratu gabekoa zen eta da gaur egun oraindik ere (García Ramón; Tulla i Pujol; Valdovinos Perdices, 1995:113); eta argi dagoenez, iragazkortasun hori ez da bi aldeetatik berdina, gizonetzkoek ez baitute lan erreproduktiboan parte hartuko. Gainera, ez da gauza bera kontuak eramatea edo etxea gestionatzea. Lehenengoa, emakumeak egiten du, baina gestioa beti da gizonaren ardura. Beraz, laguntzaile soil moduan geratzen da emakumea.

Autosufizientzia familien ekonomiaren oinarri zen, *la familia era el punto donde los grupos familiares, formados mediante el matrimonio, compartían y redistribuían sus recursos* (Pahl, 1991:40). Horregatik, oso beharrezkoa zen familia egitura zehatzak edukitzea.

Landa eremuko familia, beti enpresa edo unitate ekonomiko bat balitz bezala funtzionatu izan du, zeinetan kide bakoitzak bere lan eta funtzio espezifikoak zituen. Horregatik, oso garrantzitsuak ziren ezkontzak eta oinordekotza sistema, honen egitura osatu eta unitate familiarraren bateratasuna eta jarraitasuna ahalbidetzen baitzuten.

Familia hauek, batetik, euren subsistentziarako eta autokontsumorako produktuak sortzen zituzten: arropa, jana eta zerbitzuak, hala nola, hezkuntza, osasunaren zaintza, pertsona helduen zaintza, harreman sozialak, eta abar. Hau izan da egindako ikerketa gehienek izandako hutsunea; lan edo ikerketa konbentzionaletan, familia, unitate soil eta oso baten moduan ikusten da, kontutan hartu gabe, bertan existitu daitezkeen desigualdadeak. Gehienetan ez da kontutan hartzen nekazariaren emaztearen irudia eta ez da galdetzen bere erreproduktio funtzioen naturaltasunaz. Beraz, esan daiteke, gehiengoa diren lan hauek, ez dutela genero ikuspeirik (García Ramón; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez 1995:24).

Egia esanda, rol banaketa egongo da familia hauetan eta nahiz eta unitate bezala funtzionatu, ez du esan nahi desigualdadeak eman ezin direnik. Adibidez, emakumeak izango dira beti autokontsumorako sektoreetara lotuta daudenak (Sabeté, 1989:30), nahiz eta noizbehinka, salmentarako produktuak ere sortzen zituzten.

Autosufizientzia modelo ekonomiko bezala desagertzen doanean, emakume hauek euren betiko funtzioak galduko dituzte eta lan merkatuari aurre egin beharko diote. Merkatu honek

ordea, eraginkortasuna eta produkzio altua izango ditu helburu eta emakumeek eskeintzeko dituzten baliabideak ez dira honentzat baliagarriak izango. Beraz, euren esperientzia eta prestakuntza etengabeen baliogabetua utziko dute, landa eremuko lan merkatutik kanpo. Hau da, emakume hauek gizartearen ordenu zaharrean egindako jarduerak, euren beraiek mugatuko dituzte kanpoko lan jarduerak burutzerako orduan, lanpostu zehatzei euren sarrera eragotziz. Honek guztiak, landa exodoaren gehiengo bat emakumeak izatea baldintzatuko du (García Ramón; Tulla i Pujol; Valdovinos Perdices, 1995:121). Bestalde, landa eremuan geratuko diren emakume hauek, gutxinaka etxeetako esparrura mugatuta geratuko dira. Lan merkatuan parte hartzeko sortuko diren nekazal eta abeltzaintza ustiapen familiarrek alboratuta utziko dituzte emakumeak, hein handi batean, makinaria sartuko delako (Camarero Rioja; Sampedro gallego; Vicente-Mazariegos, 1991:50).

(...) la innovación tecnológica no ha supuesto una disminución del total de horas dedicadas a la organización o ejecución del trabajo doméstico, aunque ciertamente ha cambiado el carácter del mismo (Delphy, 1983; Harman, 1981). Tampoco ha supuesto que la mujer tuviera menos responsabilidades domésticas, ya que, en general, han aparecido nuevas necesidades y, sobre todo, se ha elevado el listón de las exigencias en el trabajo doméstico (mayor confort, más limpieza, mayor dedicación a los hijos, cocina mas elaborada, etc.). (Garcia Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez, 1995:27).

Aurreko garaietan bezala, egun ere mekanizatutako lanak gizonezkoenak izango dira eta eskuzkoak emakumezkoenak. Honek ere, gaur egungo landa eremuan emakume eta gizonen arteko soldaten arteko diskriminazioak egotea justifikatzeko erabiltzen da. Bestalde, industrializazioak “soldata familiarra” deiturikoa ekarriko du. Etxeko taldearen oinarri ekonomiko nagusia izango da eta gizonezkoa izango da honen arduradun. Horregatik gainera, emakumeak etxetik kanpo lan egitea, aukera bat bezala hartuko da eta gizonezkoarentzat berriz, derrigorrez egin beharreko gauza bat izango da (Cosin eta Mauleon, 1991:21).

Landa eremuko emakumeak, eskubide, ordainsari, eta onarpen sozial eta profesionalik gabeko egoera batean bizi izan dira. Orokorrean, landa eremuko emakumeak, etxetik kanpo lanean, etxeko lanetan eta “laguntza familiarra” deiturikoan jardun izan dute. “Laguntza familiarra” deritzona, familiako negozio edo explotazioan lan egiteari egiten dio erreferentzia. Baina kontratatu gabeko langile bat izanik, laguntzailezat kontsideratzen da familia aurrera ateratzen laguntzeko, baina inolako errekonozimendurik gabe.

Argi dago etxeko lanetan emakumeak aritzen direla orokorrean, beraz, esan dezakegu bai hirietako eta baita landa eremuetako emakumeek familiarako lan egiten dutela. Baina bestalde eta lan horretaz gain, landa eremuko emakumeek ere familian egiten dute lan, orokorrean hirietan gertatzen ez den bezala. Hau da, normalean familiako buru den gizonezkoaren menpe dagoen familiarena den enpresa txiki horretan egiten dute lan landako emakumeek, bai soroetan, bai animaliekin eta abar eta horrek ondorio zehatz batzuk dakartza. Emakumeen lanaren ikustezintasuna da ondorio nagusia. Azken finean, enpresa familiar batean egiten den lana, “familia buruak”, hau da, gizonak lortzen eta osatzen duen oinarritzko poltsa ekonomikoan laguntzeko egiten da eta ez da inolako onarpenik ekartzen. Are gehiago, landa

eremuko emakume gehienek “etxeke andre”-tzat dute euren burua (Sampedro, 1999:16-18). Kasu hauetan ere, etxeke lanen eta nekazal lanen arteko jarraitasuna egongo da eta honek ikustezintasunean lagunduko du. Nahiz eta emakumeak explotazio familiarretan lanean jardun, euren eginbeharretako bat bezala hartuko da, familia laguntzea eta aurrera ateratzearen ardurapean dagoen eginbeharretako bat.

Beste ondorio bat da, landa eremuko emakumeek hirietako emakumeek (etxetik kanpo eta soldata baten truke lan egiten ez duten hiriko emakumeak) baino lan jardunaldi luzeagoa dutela, etxean eta etxearentzat aritzen direlako lanean (Garcia Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez, 1995:23).

Gaur egungo landa eremua ere kontutan izanda, esan dezakegu, landako eta explotazioetako lanetan betidanik emakumeek, gizonezkoen modu berean parte hartu dutela. Baina estadistiketan beti ezkutatuta gelditu izan da hau. Aurretik esan bezala, egindako lan hau “laguntza familiar”-tzat hartu izan delako, beren etxeke eta erreproduziozko eginbeharren parte bezala.

Beraz, Maria Angeles Duran eta Angel Paniaguak adierazi duten moduan (Sampedro, 1999:49), landa eremuetako emakumeek diskriminazio bikoitza sufritzen dute. Batetik, landa eremuan eta ez hirian bizitzeagatik eta bestetik, eurekin eremu berean bizi diren gizonen dagokionez.

Garcia Ramonek, are gehiago esaten du. Landa eremuko emakumeek “jardunaldi hirukoitza” (Garcia Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez, 1995:27) egiten ari direla dio. Batetik, etxeke lanak; bestetik, etxetik kanpo eta soldata baten truke egiten duten lana; eta bukatzeko, berez ikustezin bihurtuta dagoen familiako negozioan lana egiten dute. Emakume hauek beraz, hiru jardunalditan parte hartzen dute.

Bukatzeko, ustez landa eremuko emakumeek duten botereaz arituko naiz. Eremu hauetan matriarkatuaren presentziaz hitz egin izan da eta egiten da, beraz, nahiko erraza da hitz hau agertzea emakumeek zonalde honetan izan duten boterearen inguruan hitz egitean. Orokorrean, etxeke ekonomiaren inguruan eta eremu pribatuko zenbait erabakietan zuten autonomia azaltzeko egiten zaio erreferentzia hitz honi. Esan dudana bezala, etxea gizarte honetako erreferentzia puntua izanda, uler daiteke bertan hartutako erabakiak oso garrantzitsuak zirela. Horra hor emakumea boterearekin erlazionatu izana. Hau mito bat baino ez da (del Valle, 1985). Adibidez, Erronkari Ibarren kasuan argi ikus daiteke honek izan dituen ospetsuei atenditzen badiegu: Julian Gaiarre, Pedro Bereterra, Zipriano Baraze, Gregorio Kruxaga, Pedro Vicente Gamba, Mariano Mendigatxa, Angel Gale, Fruktuoso Orduna, besteak beste. Denak gizonak, eta honek adierazten digu, nork parte hartu zezakeen eta nork ez bizitza publikoan.

5.2. II. ERREPUBLIKA ETA FRANKISMO GARAIKO EMAKUMEAK.

Ikerketa hau, landa eremuan eta emakumeengan kokatzeaz gain, historiako epealdi konkretu batean kokatua dago, Espainiako II. Errepublikan eta Frankismoaren lehenengo aldia deiturikoan. Horregatik, aldi historiko hauek emakumeengan zelako eragina izan zuten ere azaltzea komenigarria iruditu zait.

II. Errepublika, 1931tik 1939ra iraun zuen epealdia izan zen, azken hiru urteak Guda Zibila izanik. Frankismoak eman zion amaiera aldi honi eta honekin batera espainiarrek errepublikarekin lortutako eskubide zibil gehienak galdu zituzten.

Errepublikak Antzineko Erregimenarekin bukatzea ahalbidetu zuen eta Elizaren eta maila altuko zenbait pertsonen pribilegioekin amaitu zuen, maila legalean behintzat. Gizon eta emakumeen arteko diskriminazioari 1931ko konstituzioan egin zitzaion erreferentzia, lehenengoz Espainiako Historian, bie eskubide berak aitortuz: *“Todos los españoles son iguales ante la ley... no podrá ser fundamento y privilegio jurídico: la naturaleza, la afiliación, el sexo...”* (Garrido, 1997).

Modu honetan, berdintasunaren printzipioari eutsiz, hainbat lege eta dekretu onartzen joan ziren Espainian eta emakumearen egoera nabarmenki hobetu zen. Lege hauek emakumeen parte hartze aktiboa bultzatu zuten gizartearen alor ezberdinetan, honen bitartez emakume langile, buruaske eta independenteen eredia sustatuz. Ildo honetan, lege elektoralak sortu zen, emakumeen boto eskubidea eta hautagai izateko eskubidea onartuz; ondasun propioak izateko eskubidea onartu zen, antisorgailuen erabilera hobestu zen, dibortzioaren legea onartu zen, lan eskubide berdinak gizon eta emakumeentzat, eta abar.

Horrela, mendebaldeko Europan eta AEB-tan oinarrituz, emakume eredu berria bultzatzen saiatu ziren, familia patriarkala suntsituz eta emakumearen kontzepzio berria sortzeko.

Aipatzekoa da ere, emakumeen presentzia parlamentuan eta hezkuntzari dagokionez. Elizak gidatutako eskolak alboratu eta eskola mistoak eta hezkuntza duina aldarrikatu ziren.

Hala ere, gizartearen adar guztiak ez zeuden konforme aldaketa berriekin, izan ere, ez bakarrik kontserbadoreak baizik eta emakume eskuindarrak ere antolatu eta mobilizatu ziren erreforma guzti hauen kontra, politika laizista eta berdintasunezko hauen kontra. Horrela, 30. hamarkadaren hasieran *Acción Católica Femenina, Sección Femenina*, eta abar eratu ziren eta gobernuari kontra egin zioten.

1933an kontserbadoreek irabazi zituzten hauteskundeak eta 1936a arte emakumea bere “berezko tokira” itzultzeko, etxera itzultzeko, propaganda eta kanpainak egin zituzten. Amatasuna, familia patriarkala, moral “ona” eta abar bultzatzen aritu ziren, alegia, emakumearen sumisioa eta obedientzia sustatzeko familia eredia bultzatzen hasi ziren.

Esan beharra dago, sufragio unibertsalaren aldekoak zirela kontserbadoreak, baina hau ez zen emakumeen eskubideak onartzeagatik, baizik eta uste zutelako, emakume gehienak

analfabetoak eta kristautasunean hezitua zirelarik haiei emango zizelako botoa. Honengatik ere, ezkertiar askok ez zuten sufragio unibertsala defendatuko emakumearen alfabetazioa eta berriro heztea ematen ez zen arte.

1938. urtetik aurrera, “Estatu berriak” oinarri nazional-katolikoak berretsiko zituen eta honek, gizarte osoaren berregituraketa politiko zein kulturala inplikatu zuen.

Gizon eta emakumeen berezko paper tradizionalekin hausteak, gizarte oreka eta armoniaren apurketa suposatzen zuela zioten kontserbadoreek. Emakume emantzipatua feminitatearen, orden sozialaren eta amatasunaren kontrako eraso zuzena suposatzen zuela zioten. Gainera, “europeizazio” prozesuak emakume espainolaren berezko identitate nazionala arriskuan jartzen zuela zioten.

Gerrate zibilean, emakume askok, batez ere errepublikarrak, parte hartze aktiboa izan zuten, ez bazen fusil batekin izan kontrabandoan edo espioitza lanak egiten. Baina azkenean Frankismoa gailendu zen eta osterako errepresioa ere jasan izan zuten: kartzela, torturak, heriotzak, miaketak, eta batez ere, gizon errepublikar baten familia izategatik kondenatuak eta erasotuak izan ziren.

Frankismoak, XIX. mendeko diskurtso biologizistetan oinarrituta, emakume eta gizonen artean jaiotzako ezberdintasunak existitzen zirela aldarrikatu zuen eta honengatik gaitasun ezberdinak dituztela uste zuen. Emakumeen kasuan, gaitasun gutxiago zuten eta horregatik manpeko posizio bat zuten familian.

Arrazoiketa honetan oinarrituz, bai eskola, bai lanean eta baita egunerokotasunean ere bi esparru bereizi ziren, emakumeenak eta gizonenak. Lehenengo kasuan, etxea zen euren espazioa, familia zainduz. Emakumea espazio pribatura mugatzeak hauentzat askatze bat suposatzen zuela zioten frankistek, fabrika eta tailerretara joateaz eta gaueko arriskuetatik aldentzen zituen heinean.

(...) con la llegada del franquismo se institucionalizó la inferioridad, la subordinación, la discriminación femenina y su neutralización como personas autónomas capaces de decidir su propio destino. Ya no eran dueñas de su vida, ni de su cuerpo, ni de sus pensamientos. Su sitio era la casa, el hogar; la calle estaba llena de peligros, de ocasiones de pecado (Cabrerá, 2005:198).

Hezkuntzan ere, sexu-genero bakoitzak beren kurrikuluma izango du, aurretik aipatutako espazioen banaketa honi begira, horrela, pertsona bakoitza osterako bizitzarako beharrezkoak zituen gauzetan hezteko. (...) *la mujer que por carácter, condición y misión, es la llama eterna del hogar, tiene que ser preparada para él; no adorno sólo, sino eficacia; espíritu alentador y acción constante; limpia en el ser y en el parecer; virtuosa en sus costumbres y discreta en su porte (Cabrerá, 2005:197).* Hezkidetzat deuseztatu zuten, esaten zutenez, sexu bakoitzari, beren behar bitalak asetu ahal izateko, modu ezberdinean hezitzea beharrezkoa zelako (Osborne, 2012:349).

Lan esparruari dagokionez, hau ere, sexuengatik banatu zuten eta are gehiago, emakumeak ezingo zuten lanik egin momentu horretan berarengan agintzen zuten gizonaren (aita, anaia edo senarra) baimenik gabe.

Emakumea zen kristau moralaren arduraduna, batez ere familiaren barruan. Bestalde, Eliza, egunerokotasuneko sozializazioan eragin handia izaten hasi zen eta bide honetan, bai janzkera eta baita harremanen inguruan, jarrera arauak inposatu zituen.

Politikaren alorrari dagokionez, emakumearen parte hartzea ez egotea aholkatzen zuten frankismoak, eta 1958eko kode zibilean jartzen zuenez, ezkongaien ondasun guztien administratzaile bakarra senarra izango zen. Emakumeak ez zuten propietaterik eta hauen erabilera egiteko gizonaren baimenaren beharra zuten. Emakumea ez zen adinez gorakoa 23 urte bete arte eta ezin zuten bere aitaren etxea utzi 25 urte bete arte, ez bazen ezkontzeko edo arrazoi erlijiosoengatik (Cabrera, 2005:210).

Hau da, emakume izateak bi modelo edo etorkizunetara gidatua egotea esan nahi zuen: amatasuna edo erlijioa (mojak), eta bien kasuan emazte izatea, senarrarena edo Jainkoarena. Amatasuna gainera aberriarekin oso lotuta zegoen, hau da, izandako seme-alaben ama izateaz gain, aberriaren amak ere baziren eta haien arduraren honen ongizatea. Ama izatea zen garrantzitsua, "aditu" batzuek esaten zuten, ama izatera iristen ez ziren emakumeak inperfekzioan eta anormaltasunean bizitzen ziren. Hiru dimentsiotan zen garrantzitsua: dimentsio fisiko-biologikoan sozio-kulturean eta sinboliko-ideologikoan (Osborne, 2012:353).

Lanbide bakarra zegoen emakumeen esku, irakaskuntza.

Honen guztiaren barruan sartzen ez baziren, emakume "txarra" eta "ama txarra" izango ziren. Bigarren talde honen barruan sartuko dira, prostitutak, ama ezkongabeak, "fama txarreko" emakumeak, konkubinak eta abar. Emakume lesbianak edo transexualak bestelako zerbait ziren, hauek ikusezin bihurtzen zituzten ideia ezberdinekin mozorrotuz edo ezkutatu eta gainera hutsune legala zegoelarik, arbitrariotasuna eta abusuak oso ohikoak ziren. Mutil homosexuali, ordea, hauek emakume kondiziora degradatzearekin aski zuten edota noizbehinka zigor legalak jartzen zizkieten. Baina ez zuten inplikatu sexu-genero modeloaren zalantzan jartzea.

Sexualitateari dagokionean, sexu harremanak soilik emakume ezkonduak izan zitzaizkiren, hori bai, helburu erreproduktiboekin eta gizonaren nahiei erantzuna ematearren soilik egin zezaketen, "emakume onen" modeloa ia sexugabekoa zen (Osborne, 2012:36). Modelo hau inposatzeko batetik, presio familiarra zegoen, bestetik Elizarena, batez ere hezkuntzan eragina zuena, eta bukatzeko zientifikoa, emakumearen sexu eza determinismo biologikoetan oinarritzen zela zioena. Honetaz gain, garaiko literatura eta produkzio artistikoak ere inposatutako modeloak erreproduzitu, hauek indartzen zituzten.

Estatuak, gainera, legalki eta kartzelarekin zigortzen zituen arautik at aritzen ziren jarrera femenino guztiak, batez ere, sexualitatearekin zerikusia zutenak.

Frankismoak, bitzta soziala kontrolatu nahi zuen eta horretarako, genero harremanak gizartea egituratzen dutenak direla kontutan hartzen badugu eta frankistentzat “entitate naturala” familia dela kontutan izanda, argi dago, bi hauetan eragin nahi izan zutela beren helburua betetzeko.

Todas las corrientes ideológicas que pudieron desarrollar sus ideas durante el periodo franquista tenían ese común denominador organicista que exigía prefijar los espacios masculino y femenino porque, desde su perspectiva, lo contrario llevaba al caos y la anarquía social. También coincidían en que las funciones de hombres mujeres tenían que ser diferentes, y en que en la familia la jerarquización tenía que estar clara. Una manera “didáctica” de justificar un Estado autoritario y por tanto unas instituciones antidemocráticas era presentar la función estatal como sinónimo del “cabeza de familia”, al que todos los miembros debían obediencia en la confianza de que procuraba el bienestar colectivo (Molinero, 1999:67).

Hala ere, ez zuten uste, horrek guztiak emakume eta gizonen arteko desegualdade batetara eramaten zituenik, bakoitza beren gaitasunetan eta beharretan zaintzea zen haien helburua eta horretarako, emakumeak gaitasun gutxiagokoak zirela hartu behar zen kontutan (Molinero, 1999:71). Pilar Primo de Riverak esan bezala, 1939ko kongresu batean, emakumeak laguntzaileak dira eta ez zuzendariak, hori gizonezkoen ardura da (Molinero, C., 1999:71). Honen adibide dugu Sección Femenina ere itzaletan mantendu behar izana, gizonezkoen azpitik egon behar baitzuten emakumeak.

Beraz, gizonaren menderatze eta obedientziara erantzungo zion emakume eredu inposatu zen eta honen justifikaziorako, Genesiaren interpretaziora eta aipamen bibliko zein santualetara jo zen.

1960. hamarkadan, erregimenaren etapa berri bat hasi zen, nahiz eta 50. hamarkada osoan zehar jorratzen hasi. Emakumeari dagokionean, gauza gutxi aldatuko dira, baina eskubide juridikoei dagokionean lehen urratsak ematen hasi ziren. Epealdi berri honetan, erregimen frankista modernizazio ekonomiko eta tradizionalismo kultural eta immobilismoaren artean aritu zen, lehenengoari fretoa ezartzen saiatuz, garapen industrial eta liberalizazioa pixkanaka onartzen zituen bitartean.

Honetaz gain, 60. hamarkadan Europako gainontzeko herrialdeek ez zuten ongi ikusten Espainiaren diktadura eta bertan, erregimenak kontrolatu ezingo zituen gizarte mugimendu ezberdinek egingo dute eztanda. Emakumeen aldarrikapenen artean, eskaera juridikoez geroz eta oihartzun handiagoa zute eta lan esparruan hobekuntzak lortuko zituzten.

Zaila da jakitea, zein puntutaraino barneratu egin zituen erregimenak aldarrikaturiko mentalitate eta balore femenino horiek guztiak. Ziurrenik, desberdintasun anitz topatuko genituzke, probintzien artean (tradizio errepublikar edo nazionalen artean), nekazal edo hiri guneen artean, familia bakoitzaren artean, emakumeen artean eta abar. Lan honetan, adibidez, nekazal eremu konkretu bateko emakumeak behatuko ditut.

5.3. ERRONKARI IBARRA

5.3.1. Ibarra, herriak eta familia

Erronkari Ibarra Zangotzako merinerrian dago kokatua, Nafarroako ekialdean. 414'6 kilometro koadroko lur eremua du eta Zuberoa, Baretous Ibarra, Zaraitzu Ibarra, Aragoa (Salvatierra de Esca, Zaragoza, eta Anso Bailararekin, Hueska) eta Nabaskozeko Almiradioarekin egiten du muga.

Ezka ibaiak eta bere ibaiadarrek osatzen dute bailara hau eta hauen inguruan zazpi herri topa ditzakegu; hegoaldeko iparraldera: Burgi, Bidankoze, Garde, Erronkari, Urzainki, Izaba eta Uztarroze.

Herri hauek elizaren inguruan eta elkarren artean oso gertu eraikitako etxeetaz osatuta daude, beti ere ibai edota trokarteren ondoan kokaturik. Etxeak handiak dira, harrizkoak eta egurrezkoak.

Ibar honetan, herri edo zonalde batetik bestera klima eta geologia asko aldatzen da, izan ere, 600 metrotatik 2.424 metrorarteko altitude ezberdinak aurkitu ditzakegu; hegoaldeko iparraldera eginda nabaritzen da hau, bai etxeetako teilatu lerdenetan, erliebearen areagotzean eta baita kalekalka malkartsuetan ere. Beraz, nolabaiteko muga jar daiteke Ibarren iparraldeko hiru herriak batetik, Uztarroze, Izaba eta Urzainki; eta hegoaldekoak, bestetik, Erronkari, Garde, Bidankoze eta Burgi.

Esan bezala, klimari dagokionez ere ezberdintasuna ematen da, iparraldean klima subalpinoa eta hegoaldean klima submediterranearra dutelarik. Neguak hotzak, elurtuak eta luzeak izaten ohi dira, batez ere iparraldeko herrietan eta udak berriz laburrak eta epelak.

Honek guztiak asko eragiten du, mendeetan zehar, urtaroen arabera funtzionatu eta aritu izan den mendialdeko gizarte honetan. Honetaz gain, bestelako kausak edo eragileak badaude gizarte honetako bizimodua den bezalakoa izateko eta historiaren bilakaera ere modu batekoa edo bestekoa izateko; adibidez, mugen aldaketak. XX. mendearen hasieran Frantzia eta Espainiaren arteko muga modernoa ipini zelarik, Erronkari Ibarra hegoaldeko lurrekin lotuta geratu zen guztiz, lehen beren egunerokotasuna markatzen zuten Xuberoa eta Bearn-erekin zituzten harremanak galduz.

Bestalde, Ibar Batzordea, Auzotasuna eta etxea ere oso instituzio esanguratsuak izan dira Ibarren konfigurazioan eta hauen aldatzean, Ibarrek ere aldaketak bizi izan ditu. Beraz, Ibarren antolaketari dagokionez, hainbat maila ezberdin topatzen ditugu Erronkarin, hala nola, Ibar osoko antolaketa, herri edo bizilagunen antolaketa eta etxeetako antolaketa.

Elvira Sanz Tolosanak, idatzi bezala, *los valles son ámbitos geográficos en los que se da una particular organización administrativa que da lugar a la unión de varios pueblos con el objeto de gobierno de sus intereses colectivos* (2009:20).

Erronkari Ibarren kasuan Ibarreko Batzorde Nagusiak egiten du lan hau. Eremu honek beti izan du nolabaiteko autonomia. Erdi Arotik hona Ibarreko herri bakoitzak bere alkatea izan du eta orokorrean ibarreko-buru batengatik gobernatua egon da (Grupo Bortiri, 1990:37). Egun, Erronkari komunitate guztiaren gobernu batzorde Nagusia da eta Erronkari herriko alkatea da honen buru; eta bilduta dagoenez, Batzorde honen lehen bilera 1345ean izan zen, dokumentuetan dagoen lehena behintzat.

Ibarreko Batzorde Nagusiaren lehen funtzioa basoen eta bazka edo larreen inguruko araudia egitea izan da. Baina egia esanda, bere ahalmenak, ordezkariak, normatiboak, ekonomikoak, patrimonioaren ingurukoak eta funtzionarioen ingurukoak ere izan dira (Sanz, 2009:80).

Batzorde honek benetako zilegitasuna lortu izan du Erronkari Ibarrean eta erreferente identitario bat bihurtu da. Horregatik, funtzio horietaz guztietaz aparte, kasu askotan Ibarren ordezkariak agertu izan da kanpo-botereen aurrean (Sanz, 2009:91).

Esan bezala, Batzorde Nagusiaz gainera, herri bakoitzak bere alkatea eta antolamendu propioa zuen eta hau herri bereko bizilagunen artean sortzen zen. Hala ere, Erronkari Ibarrean bizilagun izatearen bestelako kontzeptio bat ere bazuten. Honen erabakietan parte hartzeko asanblada irekiak ere egiten ziren, herrietako udaletxetan bezala, eta gizonak joaten ziren.

Ordenantzetan auzotasunaz hitz egiten denean, erronkariarrek Ibarreko bizilagunak dira eta ez herrikoak, hau da, Ibarrekoa izatea da kontua, ez herrikoa. Bizilagun izate horrek eskubide eta betebeharrak markatuta ditu. Batetik, eskubide politiko eta ekonomikoak dituzte. Eta bestetik, betebeharrak ekonomikoak, hau da, beste ibarkideekiko laguntasuna; erainkuntzarako, mantentze lanetarako, obra munizipalietarako, eta abarretarako prest egon behar du erronkariar orok (Sanz, 2009:95).

Bizilagun izatea oso garrantzitsua zen erronkariarrentzat, 1000. urtearen aurretik lortutako noblezas kolektiboak markatzen zuen hau, beraz, oso zaila zen Ibarreko bizilagun bihurtzea atzeritarrentzat, noblezas titulua eskuratzen baitzen horrekin (Grupo Bortiri, 1990:37). Edozein ezin zen erronkariar izan. Gaur egun ez da neurritz gainera, baina atzeritarrekiko nolabaiteko distantzia nabaritzen da batez ere jende helduarengan.

Hau horrela izanda, Erronkari Ibarreko balibide gehienak komunalak izan dira urteetan zehar, baita gaur egun ere hainbat gauza. Orokorrean larreak izan dira komunalak direnak, baina baita basoak, eta Nafarroako hegoaldean Bardeetan erronkariarrek dituzten lur eremuak ere Ibarreko bizilaguna den edonorek erabili ditzazke. Hau dena Ordenantzetan dago regulatua. Honetaz gainera, komunalak ziren zelaietan nola landatu ahal zen ere adierazita zegoen. Animaliak edo artaldeak ez ziren komunalak, baina nahi izatekotan bizilagunen artean artaldea eta hau egoteko espazioa konpartitu zezaketen.

Bestalde, herrietako etxeek eta lurrek auzotasun bat ere sortzen zuten, hau da, herrietako bizilaguntasunak ere pisua izan du Ibarrean, eta ez soilik gauza materialei dagokionez, baita moralei ere. Auzotasunak elkar-laguntza eskatzen du, hala nola, jaiotzetan, jaunartzetan, ezkontzetan, gaixotasunetan edota hiletetan elkar-laguntzea exijitzen du (Violant i Simorra, 1949:328).

(...) se observa casi siempre, como base firme y sólida, la amistad, el respeto, la ayuda y la armonía, la buena relación o fraternidad entre vecinos, como fundamentos de paz y de felicidad de un pueblo. Esto hace que en la gran familia pirenaica los vecinos tengan un alto significado en las alegrías como en las tristezas. (Violant i Simorra, 1949:330).

Adituek auzokidetasunaren sortzea, bizitza sedentarioaren beharra izan zuten lehen landa herrietan kokatzen dute (Douglass, 1973; Sanz, 2009:94 liburuan). Gaur egun ere hau ez da hain itxia, baina auzokideen arteko laguntzak oso garrantzitsuak dira, batez ere egungo familiak askoz txikiagoak direlako.

Lehengo piriniotako herrietan bi auzokidetasun motak bereizten ahal dira, batetik, bi familia edo gutxi batzuen artean ematen ziren multzokatzeak ziren, oso konkretuak zirenak, nahiz eta euren etxeak ondoan ez egon. Bestalde, kolektiboagoak zirenak zeuden, zeinetan familia gehiagok parte hartzen zuten eta elkarrenganako laguntza eta zerbitzuzkoak ziren (Violant i Simorra, 1949:329).

Honekin batera, esan beharra dago antolaketa soziala espazioaren antolaketarekin oso lotuta zegoela eta horregatik, etxeak eta zelaiak izango ditugu batez ere elkargune. Batean edo bestean pasatzen zituzten familiek egunak eta beraz, horiek ziren harreman sozialen guneak.

Bukatzeko, Erronkari Ibarreko etxeen antolaketa eta garrantziari erreparatuko diegu. Ibar honen antolaketa politiko eta administratiboa, etxeen antolaketan oinarritzen zen hauek antolakuntza sozialaren erdigune kontsideratzen zirelarik. Hau da, etxeetan ematen ziren praktikak oso lotuta zeuden gerora Ibarra osoan egiten zen antolakuntzarekin. Gainera, gaur egun ere, pertsona batek Ibarreko ondasun komunalen erabilpena etxearekiko duen esleipenaren arabera izango da. Hau da, auzolanean eta udaletxean parte hartzeko eta Ibartar izateko erreferentzia zuzena izango da norbera atxikituta dagoen etxea.

(...) "la casa, sin constituir persona jurídica, tiene su propio nombre y es sujeto de derechos y obligaciones respecto a las relaciones de vecindad, prestaciones de servicios, aprovechamientos comunales, identificaciones y deslinde de fincas y otras relaciones establecidas por la costumbre y usos locales" (Bourdieu, 2004; Sanz, 2009:89 liburuan).

Argi dago beraz, komunitatearen barruan familia eta etxea oso nukleo inportantea izan dela eta besteengandik bereizteko zehazki definitutakoak izan direla.

Familia produkzio eta kontsumo unitate bezala ulertua izango da. Natura baliabideez baliatuz, eta etxean eta baita zelaietan eta mendietan lan eginez bizirauten zuten. Hori bai, egin beharreko lan horiek guztiak burutu ahal izateko familia handiak eta kohesio handikoak izatea nahitaezkoa zen, adibidez, neguan bai gizona eta baita emakumea ere Erriberara edo Zuberoara lanera joaten baziren, etxea eta seme-alabak mantendu ahal izateko.

Familiak generazio ezberdinetako pertsona guztiak bilduko dituzte eta oinordekotza sistemaren bidez, seme batek (orokorrean gizonetako izaten zelako) soilik jasotzen zuen familiaren ondare guztia. Ostera ezkondu eta bere familia osatzen zuen, gehienetan, etxe horretan oinordekotza sistema erreproduzitzeko. Honen anai-arrebak ezkontzen ez ziren bitartean etxean geratzeko eskubidea zuten eta ezkondu ostean alde egin behar zuten beren familia beste etxe batean sortzera.

Esanenez orokorrean gizonek jasotzen zuten oinordekotza, baina horrelako Ibarretan oso ohikoa izan da matriarkatuaren ideia zabaldu eta erromantiko bat egotea.

Entendiendo por matriarcado un tipo teórico de organización social en el que el derecho, la autoridad, y la riqueza son ostentados por las mujeres que transmiten su posición social a sus hijas. Generalmente, la utilización de este concepto es para referirse a la autonomía de las mujeres en lo referente fundamentalmente a la economía doméstica y algunas decisiones de la esfera privada. (Sanz, 2009:173).

Hala ere, hainbat ikerketetan argi geratu da, etxeko ondarea orokorrean gizonetik gizonera transmititu izan dela. Honetaz gain, emakumeak ez zuen bizitza publikoan parte hartzeko ahalmenik eta eskubideei dagokionez, banaketa ezberdina zegoela ere argi ikusi ahal da Sanz Tolosan egindako ikerketan (Sanz, 2009:173). Beraz, honek deuseztatzen du matriarkatuaren existitu izanaren ideia hori.

Gutxinaka familia ereduak aldatuz joan da Erronkari Ibarrean ere. Besteak beste, 60-70. hamarkadetan emandako migrazioak izan zirela eta, bestelako familia ereduak ezagutzen hasi ziren eta honetaz gain, amaginarrebekin etxeko erabakiak eztabaidatzen egoteaz nekatuta zeudelarik, ondorengo belaunaldietako emakumeek argi izan dute horrelako familia eta bizi eredurik ez zituztela nahi eta gurasoengandik bereiztutako familiak sortzen hasiko dira, familia eredu modernoak.

Beraz, egun 2-5 kidez osatutako familiak ditugu Erronkari Ibarrean, zeinetan kideek soldata baten truke lan egiten duten gehienetan eta beste batzuetan abeltzaintzarekin lotutako lanbideak dituzte. Nekazaritza astialdian lantzen da. Etxeetan ordea, emakumeak egoten jarraitzen dute gehienbat.

Erronkari Ibarreko ekonomiari dagokionez, basogintza, abeltzantza, nekazaritza eta etxeko produkzioa izan dira nagusi eta gaur egun ere, nahiz eta nagusi ez izan, garrantzi handia dute jarduera hauek. Honetaz gain, egun Turismoa eta zerbitzuen sektorea ere oso garrantzitsua da.

Esan bezala, Ibar honen ekonomia asko garatu da ikertuko dudaren eta gaur egun bitartean; eta baita zonaldearen arabera ere aldakorra izan da, urtaroez ezberdin eragiten baitute eremu batean edo bestean.

Mendialdeak muga topografiko garrantzitsua markatzen du batez ere nekazaritzari dagokionez, Erronkari Ibarrean ez baitago nekazaritza produkzio handiak izateko lur eremu nahikorik. Gainera, esan bezala, landatzeko klimari dagokionez, hau ez da oso aproposa, epe laburretan izaten baita eguraldi egokia nekazaritzarako eta neguan, bertan, giza-jarduera gehiengoak gelditzen direlako. Jarduera hau beraz, etxeko autosufizientziara mugatua gelditzen zen eta da gaur egun.

Horregatik, abeltzantza izango da nagusi herri hauetako ekonomiatan. Artzainak, gizonezkoak zirela, negua heltzean, artaldea hartu eta *trashumantzia* eginez bardeetara jeisten ziren, bertan urtaro guztia pasatzeko asmoz. Emakumeak berriz, edo etxean geratzen ziren etxeko lanetaz eta bertako abereetaz arduratuz, edo Maulera abiatzen ziren ezpartinak egitera, hauek ere negu osoa tailerretan pasatzen zutelarik. Esan bezala, neguetan nekazaritzari dagokionez ez zen ezer garatzen.

Beraz, bailara hauetan naturak eskaintzen zituen baliabideen arabera bizi ziren, eta ustiapen hauek nolabaiteko oreka lortzen zuten Ibarreko ekosistema eta bertako biztanleria guztiaren asebeharrei dagokionez. Hori bai, egun osoko lanaldiak izaten zituzten familiek bai zelaietan, baita etxean ere.

XX. mendearen erdialdean ordea, industrializazioa ate joka hasiko delarik biztalaria asko eta asko Ibarra utzi zuen, hau horrela izanda, 50. urtetik 80. urtera landa exodoa bizi izan zen Erronkari Ibarrean (Grupo Bortiri, 1990:46). Lehenengo Euskal Autonomia Erkidegora abiatzen hasi ziren industriaguneetara, eta ostera bai Maulera zerbitzatzera edota Iruñera abiatuko dira lan bila, industria eta bizi modu berriengatik liluratuta. Honi gehitu behar zaio Erronkari Ibarrean zuten oinordekotza sistemak ez zuela batere lagundu soilik familiako batek jasotzen baitzuen ondare guztia, beste denak beren kabuz sortzera behartuz. Beraz, aukera errazena herritik kanpora abiatzea zen bestelako etorkizun baten bila. Hau da Ramon Violant i Simorra-k bildutakoa:

(...) si preguntáis la causa, os responden que "allí no se puede vivir". Lo cierto es, empero, que en esos lugarejos, al parecer inhabitables, antaño vivían cincuenta y más familias, y actualmente sólo se encuentran la mitad o menos aún. Antes, los rebaños eran muy numerosos y se cultivaban todos los pedazos de tierra, poco o mucho aprovechables para la explotación agrícola. Mientras que ahora el ganado ha disminuido considerablemente y va disminuyendo cada día más y sólo se trabajan las tierras fáciles, las más cercanas a la casa. En una palabra: se busca la vida fácil... y eso

es lo que nuestro Pirineo no puede dar; por eso dicen que se ha vuelto, de pronto, inhabitable.

Esta es la dolorosa verdad. El Pirineo se despuebla y muere, porque sus habitantes lo abandonan, seducidos por los placeres y comodidades de las tierras bajas y, en especial, de las ciudades populosas. (Violant i Simorra, 1949:71).

Hau horrela izanda, 1950. urtean 3468 biztanle izatetik, 1960.an 2.902, 1970.an 2.214 eta 1981. urtean 1.638 biztanle izatera pasatu zen (Grupo Bortiri, 1990:46). Hau da, 30 urte igarota, biztanleriaren erdia baino gutxiago geratzen zen Erronkari Ibarrean. Hemendik aurrera migrazioa proportzionalagoa edo mantsoagoa izan da.

Familia osoak, eta batez ere emakumeak eta gazteak izango dira alde egingo dutenak, etorkizun hobego baten bila biak.

Hau gertatuta, biztalaria jada ez da landan arituko, baizik eta baliabide naturaletan oinarritutako produkzioan arituko dira (egurra, esnea...). Hau gertatuko da alde batetik industrializazioa eta ekonomia kapitalista Ibarrean ere heltzen hasiko delako eta honen bitartez lan espezializatuagoak sortuko direlako, eta bestalde, aurreko ekonomia modua, subsistentzia ekonomia, ezingo delako aurrera eraman familia eredu berrien bitartez, geroz eta familia txikiagoak sortuko baitira, gurasoengandik bereizitutak, seme-alaba gutxiagokoak eta abar.

Egun, turismoak (elurra, eskia, mendia, landetxeak...), industriek (gazta ekoizpenari lotuta) eta zerbitzuek garrantzi handia dute bailaran, eta nekazaritzak, abeltzantzak eta basogintzak ere, ekonomiaren %50a izaten jarraitzen dute (Hualde, 2007:18), baina azkeneko hauek modu espezializatuan eta industrializatuan garatzen dira, horra hor aldaketa.

5.3.2. 1920-1960 bitarteko urteak Erronkari Ibarrean.

Ikusi dugun moduan Erronkari Ibarreko bizitza asko aldatu da azkeneko mendean. Ikerketa honetan, ordea, soilik epe bati egingo diogu erreferentzia, 1920. urtetik 1960. urtera hain zuzen ere.

Hasierako urteetan errepublika eta gerrate zibila dugu testuinguru historiko eta 39tik aurrera Frankismoa deituriko garai historikoa dugu. Honek guztiak eragina izango du erronkariarren bizimoduarengan, eta baita emakumeengan ere. Hala ere, ikerketarako interesatzen zaizkigun esparruei dagokionez urte hauen bitartean datu orokor batzuk eman ditzakegu, familia eta herrietako biztanleen denboraren kontzepzioak edo bizipenak ez baitziren asko aldatu nahiz eta kontextu historikoak bai egin.

Biztaneriarri dagokionez eta esan bezala, hau asko aldatuko da migrazioen eraginez, batez ere, 60-70. hamarkadan emango den landa exodoa dela eta.

Bestalde, mende erdi honetan nabarmen aldatuko den beste gauza bat sistema ekonomikoa eta honek eragina duen beste guztia izango da. Esan beharra dago, Erronkari Ibarrek ezin izan zuela guztiz jasan XX. mendeko ekonomiaren aldaketa azkarra. Iraupen ekonomia batetik merkatu ekonomia batetara igarotzea oso zaila da, batez ere horrela isolatutako lurraldeentzat (Iturri Busto, 1995). Horregatik eremu hau atzean gelditu zen industrialdiak eta modernitateak zekartzan askatasun eta astialdiaren promesekin, eta honengatik ere biztanleria asko eta asko galdu zen. Horrela azaltzen dute Jone Cosin eta Amaia Mauleonek ere Piriniotako herrien despopulazioa:

En la primera fase que transcurre durante la primera mitad del siglo se podía aludir a un equilibrio entre recursos humanos y recursos económicos, provenientes preferentemente de la explotación de la naturaleza; por lo que hemos de pensar en una salida constante de población para que se mantuviera el equilibrio propio de las sociedades rurales tradicionales. En esta segunda fase se debe diferenciar la primera década con un descenso alarmante que coincide con la tónica generalizada de Navarra. Las provincias de Guipuzcoa y Vizcaya necesitan mano de obra para el auge de su industria y paralelamente en Navarra se está dando el proceso de reestructuración del campo que origina el éxodo rural hacia estas zonas industriales. (Cosin eta Mauleon, 1991:19)

Komunitatearen antolakuntza

Esan bezala, organu goren moduan Ibarreko Batzorde Nagusia egongo da Erronkarin garai hauetan ere, eta honek nolabaiteko autonomia eskainiko dio Ibarrari. Erronkariar sentitze horrek garrantzia izaten jarraituko du, batez ere gizonengan, bizitza publikoaz gozatzen zutenak zirelako.

Herrietan ematen zuten erronkariarrek denbora gehiena, bai etxean, bai zelaietan edota mendian. Izan ere, errepideak eta bideak zeuden, baina auto gutxi, eta gehienak zaldietan, karru edo diligentzietan, eta batez ere, oinez mugitzen ziren. Egurra garraiatzeko, *almadiek* ibaietatik egiten zuten. Bestalde, Iruñera edota beste leku batzuetara joateko autobusa ere bazegoen, *La Roncalesa*, 1914. urtetik aurrera.

Herrietan, bizilagunen arteko laguntza ezinbestekoa eta arrunta izango da. Familia batzuen artean beste batzuen artean baina harreman handiagoa existituko da eta klase sozialen arabera ere sailkapen ezberdinak egongo dira, baina elkar laguntzeko prest dauden bizilagunak izango dira garai honetako Erronkari Ibarrekoak.

Bestalde, herri mailako jaialdiak ere bazeuden eta hauetan zelaietako lanak bertan behera geratzen ziren denentzat: gabonak, erregeak eta urte berria, ihauteriak, ostegun eta ostiral

santuak, jai nagusiak, erromeriak, matatxerriak, oroitzapenezko jaialdiak, eta abar. Kasu hauetan, bai gizonezkoek eta baita emakumezkoek ere, rol ezberdinak zituzten. Lehenengoak ziren mozkortzen zirenak eta emakumeak dantzaldirako ateratzen ziren euren gizongaiarekin edo ezkongabe zegoen baten batekin dantzatzeko (Violant i Simorra, 1949:558).

Lanari dagokionez, eguneko ordu gehienetan pasatzen ziren horretan. Etxeko kontuetan aritzen ziren, eta batu ahal izan dudana informazioaren arabera, lanbide zehatzak ere baziren herrian, artzainak, basozainak, errementeriak, dendariak, zurginak, igeltxeroak, maisuak, alkatea, almadieroak, tabernariak, kare saltzaileak, harginak, elur-saltzailea, balixa edo fardel eramailea, teilagina, mandazaina, eta abar (Hualde, 2007:75). Gizon lanbideak denak, dendariren bat eta maisu lana izan ezik, nesken eskolan maistra baitzuten.

Honetaz guztiaz gain, etxeari oso lotuta egiten ziren lanbideak zeuden orokorrean Erronkari Ibarrean. Esan bezala, jarduerarik garrantzitsuena abeltzantza zen eta honi jarraiki basogintza eta nekazaritza, gehiena etxerako produktuak sortzera bideratuta. Egia da, Erronkari Ibarreko lurrek dituzten aldapak ikusita, oso zaila dela lursail handiak izatea, baina mendian gora eginda, zelai eta larre handiak izateko aukera dago. Zelai hauetan zerealak eta patatak landatzen ziren batez ere, eta etxeko ortuan, garaiaren arabera zegoen landatzea: lekaleak, barazkiak, fruitu arbolak, eta abar. Animaliei dagokionez, ardiak ziren erronkariarrek kopuru handiengan zituzten animaliak eta honetaz gain, zaldi, behor, oilo, untxi, txerri eta ahuntz-en bat zuten etxean.

Bai zelaietan eta baita etxeko animaliekin emakume eta gizonak aritzen ziren. Abereen kasuan ordea, lan banaketa bat ere ematen zen, animaliak hiltzean, hezurak eta haragia bereiztean, artilea bildu, orraztu eta kolpatzean, makinak erabiltzean eta abar, gizonezkoak parte hartzen zuten, baina txerrikiak egiterako orduan emakumeek soilik egiten zuten (Violant i Simorra, 1949:244,437).

Artzaintza eta nekazaritza konbinatzen zituen sistema honek, oso garrantzitsua, komuna eta egokia izan zen Erronkari Ibarrean. Izan ere, bi hauen antolakuntza eta elkarren arteko konbinazioa oso ongi moldatzen baitzen lurralde hauetako kondizio klimatiko eta geografikoetara: trashumantzia, bizirauteko nekazaritza, abeltzantza, ezpartinak egitea, basoen ustiatzea eta abar. Azkeneko hau kanpora begira egiten zelarik, Ibarrean diru nahikotxo sartzeari ahalbidetzen zuen, baina honekin batera, onura gehien ekartzen zituena artzaintza zen. Alde batetik, ardiekin esnea atera eta osteraz gazta egiten zutelako eta bestetik, artilea lortzen zutelako, bai salmentarako eta baita euren jantzietarako ere.

Artilea moztea gizonezkoek egiten zuten eta irutea eta artilea ongi prestatzea berriz, emakumeek gehienetan. Hauek taldeka egin ohi zuten lan hau etxeren baten atean eguraldi onarekin eta sutondo batean neguan (Hualde, 2013:192-196). Baina irakurri ahal izan dudanez, Erronkari Ibarreko artzainek oso fama handia zuten irutean, oso habilak izateagatik, Piriniotako trebeenak, ziotenez; horregatik, euren txarabila eta telare propioak zituzten (Hualde, 2013:196).

Ikusten denez herri hauetan sexuaren arabera lan banaketa handia zegoen eta emakumeak gauza batzuetaz arduratzen ziren bitartean, gizonezkoak beste batzuk egiten zituzten. Zein zegoen baloratuago ezin izan dut argi ikusi autore ezberdinek modu diferenteetan interpretatu dituztelako jasotako datuak. Ikerketa honetan jasotakoaren arabera, pertsona guztien lana zegoen baloratua, baina emakumeek gizonezkoek bainan askoz lan gehiago egin behar zuten euren eginbeharrak betetzeko. Gainera, aurrerago ikusiko dugunez ere, balorazioak oso modu ezberdinetan jasotzen ziren.

Bestalde, agerian geratu da ere pluriaktibitatea beharrezkoa zutela horrelako Ibar batean biziraun ahal izateko. Testuinguru honetan, beraz, erronkariko gizonak eta batez ere emakumeak lanordu luzeetara kondenatuta zeuden; eta ez hori bakarrik, baldintza klimatikoek ere bertako bizimodua sutsuki baldintzatzen zuten. Sanz-en hitzetan:

Las mujeres no sólo se limitaban al trabajo en la esfera doméstica. Al cuidado de la numerosa familia se sumaba el cultivo de los huertos, la colaboración en las tareas agrícolas o el cuidado de los animales domesticos (gallinas, caballos, vacas, etc.). A este trabajo no remunerado, se añadía a menudo el desempeñado fuera del hogar como sirvientas u obreras en las fábricas de alpargatas de Mauleon. Pero las difíciles condiciones de vida no se limitaban a los aspectos laborales. La pobreza, la alta mortalidad (especialmente la infantil), los rigurosos inviernos con bajísimas temperaturas y copiosas nevadas, o la discriminación de la mujer, con todas sus implicaciones conformaban una dura cotidianeidad (2009:25).

Honen harira eta aurretik ere esan dudan bezala, urtaroen arabera bizi ziren Erronkari Ibarrean. Lan egiteko garairik onenak eta gogorrenak, aldi berean lan asko egiten baitzuten, apiriletik urrira izaten zen gutxi gora behera. Orduan, landatu, laboratu, zerealak eta belarra moztu, baratzak zaindu, fruituak bildu, eta abar egiten zuten, animalien eta etxeko lanetaz gainera. Neguan berriz, *hildako denbora* izaten zen Erronkarin (Violant i Simorra, 1949:238), eta garai honetan soilik etxeko lanetaz, fruitu ezberdinak enbotatzeaz eta kontserbatzeaz, eta animalietaz arduratzen ziren. Bestalde, gizonezko askok trashumantziarengatik bardeetan pasatzen zuten garai hau eta emakumezko batzuk ere Maulera, Aretara edota inguruko beste herrietara joaten ziren oinez, Pirinioak gurutzatuz, ezpartinak egitera edota bildutako belar ezberdinak saltzera.

1920-1960 urteen bitartean, iraute ekonomia zuten nagusiki herri hauek, orokorrean, nahiz eta, aurreko atalean esan bezala, poliki poliki ekonomia modu kapitalista eta industrializatuan sartzen joango diren. "Soldata familiarra", beraz, ez urte hauen hasieran baizik eta bukaera partean helduko da, aipaturiko ekonomia moduak heldu. Bitartean, Ordurarte, autokonsumoaz biziko dira, hau da, haiek produzituko dute osteria kontsumituko duten gehiena; eta Sanz-ek idatzi moduan *con la supuesta existencia de un régimen de comunalismo, de igualdad de condiciones y justicia social* (Sanz, 2009:29).

Ingurune fisikoari guztiz lotuta eta honengatik guztiz baldintzatua biziko den gizarte bat topatuko dugu ikerketa kokatzen den lehenengo hamarkadetan. Euren ekonomia, esan bezala,

familiaren beharrei bideratuta egongo da eta soilik parte txiki bat egongo da bertako eta tokian tokiko merkatura bideratuta.

50. hamarkadatik aurrera betiereko migrazioak ematen hasiko dira, hau da, jendeak herria eta bizimodu tradizionala utziko ditu hirietako bizimoduarengatik. Ostera, herriko bizimoduak ere tradizioa alboratu eta modernitatean sartzen hasiko da, lanbideetan makina berriak erantsiz, familia modu berriak sortuz, lanbide espezializatuagoak agertuz eta abar.

Lanaz gainera, soberan geratzen zitzaien denboran aritzeko jolasak eta kirolak zituzten: pilota, boloak, barra, aizkolaritza, harri jasotzea, instrumentuak sortzea, eta abar (Violent i Simorra, 1949:647). Honetaz gain, bestelako familia baten etxera ere hurbiltzen ziren tarte bat pasatzera eta gizonak tabernara ere joaten ziren.

Etxea eta familiaren antolakuntza

Hala ere, etxean eta familiartean ematen ziren une esanguratsu gehienak Erronkari Ibarrean. Aurreko atalean azaldu bezala, familia hauek oso handiak ziren. Belaunaldi ezberdinetako pertsonak bizi ziren etxe berean eta oinordea jasotzen zuena zen buru. Komunitate familiar hauek bizi, jan eta lan, etxe berdinean egiten zuten. Beraz, erronkariarrek denbora luzeena etxeetan igarotzen zutela esan daiteke.

Horra hor, nola azaltzen duen hau Violent i Simorrak *El Pirineo Español* liburuan:

Allí, al lado del fuego, que tiene algo de sagrado, puesto que simboliza a la familia, es donde se vive, se come, se reza y se educa a los hijos con las enseñanzas ancestrales legadas por los mayores; donde se ventilan los más arduos asuntos y donde, en fin, se comentan los lances del trabajo y se hacen cálculos para el porvenir. Todas las faenas domésticas allí realizadas tomaban, aún no hará muchos años, más marcadamente el carácter de ritos que el de ocupaciones cotidianas, por la regularidad, la minuciosidad, la constancia y hasta la unción religiosa con que se efectuaban. (1949:195).

Hemen, ikuskatutako lan gehienetan bezala, ez da argi geratzen zeinek egiten dituen su bazterreko jarduera horiek guztiak, baina liburu honetan, aurrerago, emakumearen funtzioak zeintzuk ziren deskribatzen dituenean, argi geratzen da haiek zirela etxean denbora gehien pasatzen zutenak eta horregatik jarduera horien gehiengo egingo zutenak. Familiako ama eta etxeko jabea¹, Violent i Simorrak esaten duen moduan, ardura orokor batzuk zituen: sukaldatu,

¹ Violent i Simorrak "etxeko jabe" deituko ditu emakume hauek, azken finean, etxeko kudeaketa bai ekonomiko eta baita lanari dagokionez haien ardura zelako. Hala ere, horrek ez du esan nahi etxeko gauzen gainean agintzen zutelarik.

josi, etxea jaso, eta txerriak eta ukuiluko hegaztiak zaintzea. Bestalde, bestelako lanak ere bazituen, hala nola, oratu, irun, arropa garbitu, ogia egiteko garia bahetu eta urez garbitu, animaliak jetzi eta sua piztu eta horrela mantendu.

Aita, ordea, aziendarekin zerikusia zuten gauzetaz arduratzen zen: artzainak, bazkak, salerosketak, lana antolatzea, eta abar. Hura faltatzekotan emakumeak kudeatzen zituen (Violant i Simorra, 1949:238).

Honen aurrean Violent i Simorrak landa eremuetako etxeetan nolabaiteko autoritate banatua zegoela esango du, *hasta el punto de poder afirmarse que la igualdad entre ambos es perfecta* (Violant i Simorra, 1949:319). Autore honek dioenez, soilik kanpo harremanetan edo bizitza publikoak nabaritzen da gizonaren nagusitasuna.

Sanz Tolosanak idatzitako *Identidad, Montaña y desarrollo: los valles de Roncal, Salazar y Aezkoa* (2009) liburuan ordea, oso ikuspuntu ezberdina aurki dezakegu urte hauetan Erronkari Ibarrean zeuden etheen antolaketaz eta hauetan zeuden zereginen inguruan. Autore hau ados dago gizarte honetan familia eta etxeak duten garrantziaz.

La casa es el conjunto de tierra, y demas elementos pertenecientes al patrimonio del grupo doméstico, al que se asocian unos derechos, un nombre y un capital simbólico. La casa es el hogar de la familia troncal. La interacción social, las alianzas matrimoniales, las estrategias hereditarias, la identidad social, y el sistema de valores están configuradas por ella (2009:86).

Baina berak argi esaten du nola etxeko zeregin orokorren arduraduna edo aginduak ematen zituena gizonezkoa zela, eta kanpo harremanetan edo bizitza publikoan autoritate moduan nabarmentzen zela. Emakumearen ardurak ordea, ondasunak kudeatzea, haurrak hezte eta abereak zaintzea ziren besteak beste, baina erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasunik gabe.

Sanz-ek ere azalduko du nola etxe bat eta familia baten ondare guztia identifikatu eta kontserbatu ahal izateko oinordekoaren irudia erabiltzen zela. Aurreko atalean azaldutako sistemaren arabera, oinordeko bakarra izaten zen eta kasu gehienetan gizonezkoa. Gerora, bere ezkongaiarekin bihurtzen zen ondarearen transmisorea, baina praktikan, oinordeko zuzena jarraitzen zuen izaten ondarearen jabea (Sanz, 2009:87).

Violent i Simorrak ordea, ez du hain argi adierazten gizonezkoak direnik gehienetan oinordekotza jasotzen dutenak (1949:317).

Beraz, bi puntu hauen inguruan dauden desadostasun hauek, bai oinordekotzarene eta baita etxean eta familiaren baitan erabakiak hartzeko gaitasuneena, ikerketa honen bitartez argitzen saiatuko naiz.

Bukatzeko, aurkitu dudak dokumentazio eta bibliografia guztiaren inguruan apunte batzuk eman nahiko genituzke. Saiatu naiz genero bien zereginak eta bizimoduak deskribatzen goiko

ataletan, baina argi utzi beharra dago zonalde honen inguruan idatzitako lan gehienek, orokorrean hitz egiten dutela erronkariarren bizitzetaz, baina behin dena ongi aztertuta, konturatu naiz, deskribatzen diren bizitza horiek gizonenak direla batez ere. Hau da, gizonen bizimodu eta lanbideen inguruko informazio asko topa dezakegu, eta emakumeen inguruan apunte zehatzak eta gutxi.

Ikusi dugunez, lan nahiko eta beraz informazio nahiko dago Pirinioaren inguruan. Hala ere, genero ikuspegitik egindako azterlanak ez ditut apenas topatu. Aurkitutako lan gehienak soilik Pirinioaz aritzen dira, baina ikuspuntu androzentriko batetik, hau da, zonalde honetako tradizioaz, egunerokotasuna, kulturaz, bizimoduez, eta abarretaz hitz egiten dute baina gizonen egindako gauzak soilik kontutan hartuz, gizonaen bizimodua gizarte osoarena izango balitz bezala orokortuz.

Emakumeak, etxearen inguruko ekintzak aipatzen direnean agertzen dira soilik, bestelako espazioetan ez haiek ezta beren lana ere existituko ez bazen bezala aritzen dira autore gehienak. Gaur egun landa eremuko emakumeen inguruan lan gehiago dago, baina zehazki ikerketa hau kokatzen den garaiko eta zonaldeko bizimoduaz aritzen den eta genero ikuspegia atxikitzen duen lan bakarrenbat soilik aurkitu dut.

5.3.3. Erronkari Ibarreko emakumeak 1920-1960 urteetan.

Aurreko atalean azaldu dudan bezala, batez ere autokontsumoan oinarritutako gizarte batetaz arituko naiz ikerketa honetan, eta orokorrean, ekonomia monetarioa ez da oso garrantzitsua izango.

50. hamarkadatik orain arte, Nafarroako ekonomia eta gizarte asko aldatu izan da. Baina ordura arte, nekazal gizarte izan zen nagusi, ostera, 60-70. hamarkadetan industrializazioa emango da Nafarroan, eta Europako herrialdeen antzerako garapen ekonomikoa bizitzen hasiko da (Fernandez, 2001:94).

Beraz, ikerlan honetako emakumeak, gizarte antolakuntzan eman zen aldaketa horren zubitzat hartu ditzakegu. Hau da, ikertu dudan taldea “aldaketa” guztia bizi izan duen taldea da, bizi eredu tradizionaletik modernitaterako bidean (Cosin eta Mauleon, 1991:37).

Eremu honetako “kultura” eta “baloreak” oso argiak ziren eta garai historikoen atalean azaldu bezala emakume eta gizonen euren lekua zein zen argi zuten garai honetan.

Urteetan aurrera eginda eta autokontsumoko gizarte alde batera geratzen ari zelarrik, emakumeak geroz eta gehiago mugatuko dira etxeetako eremuetara.

A medida que la producción de bienes para el autoconsumo se ha ido reduciendo, las funciones desempeñadas por las mujeres han ido cambiando, reduciéndose también el

límite de su influencia habitual; ello ha supuesto una disminución de su poder efectivo y capacidad de decisión, aunque no necesariamente de su trabajo (Sabeté, 1989:32).

Etxeko lana, emakumeen lana eta ardura izan da eta horrela izaten jarraituko da, baita familiaren ardura ere.

Son unas mujeres pertenecientes a una generación puente entre la sociedad agraria tradicional construida en base a la tierra y a al familia (funcion productiva y reproductiva), a dedicarse exclusivamente en y para la casa y el cuidado de los hijos (f. reproductiva). Son la generación cuidadora de la familia extensa que ha cohabitado en una misma casa con varias generaciones. La indivisibilidad del patrimonio obligaba a residir bajo un mismo techo, lo que originaba una lucha de poder entre la suegra y ella (Sanz, 2009:168).

Honengatik, Erronkari Ibarrean exodo rurala hasten denean emakumeak izango dira alde egingo duten gehienetarikoa. Honetaz gainera, emakume hauek, beren begirada atzera botatzean eta gaur egungo gazteen egoera ikustean, egungo gizartean ditugun aisialdirako aukerak oso positiboki hartzen dituzte. Kontziente dira astialdirako aukera hirietan ematen dela batez ere eta uste dute herri bizimoduetako hainbat gauza aldatuta, lanordu luzeak, oporrik ez izatea, etab. aldatuta, gazte gehiago gerturatuko zirela bertan, herrietan, bizitzera. Hori baita gaur egungo bizitzan erakartzen duena (Cosin eta Mauleon, 1991:36).

Beraz, emakume hauen bizitza, aurkitu ditudan datuen arabera, honela laburtu daiteke: etxeko lana (familia zaindu aspektu guztietan eta baita abere eta baratza ere) eta zelaiko lana. Denbora propioaren inguruan ez dut ezer aurkitu, ezta denbora librearen inguruan ere. Erreferentziaren bat topatu dut zeinetan emakume bilkurak aipatzen diren behin eguna bukatuta batzuk besteren baten etxean biltzen zirela josten zuten bitartean hitz egiteko. Baina honetaz gain, ez dut ezer gehiago aurkitu.

Lan banaketa sexuaren arabera izango den gizarte batean biziko dira, eta hala ere, emakume hauek bizitza pribatu eta publikoaren artean lanean jardungo dira. Bigarren honetan inolako errekonozimendurik jaso gabe.

Honetaz guztiaz gain, dokumentu gehienek adierazten dutenez, ez dute erabaki garrantzitsuak hartzeko eskubiderik izango eta euren ondasunak senarrarekin konpartituko dituzte, honen agindupean utziz eta beti bere baimenaren beharrarekin ibiliz.

Orain, ateratako edo lortutako emaitzak kontutan izanda, horrelako ondorioak ateratzen diren ikusi beharko dut.

5.4. DENBORA, GENEROA ETA LANDA EREMUA

5.4.1. Denboraren inguruan

Gizarte Zientzietan, denboraren esperientziaren unibertsaltasunari dagokionez, nolabaiteko adostasun orokor bat dago (Carbonell, 2004:10).

Hau da, orokorrean, mundua eta denbora bereiztu ezin diren dimentsioak direla argi dago, eta horregatik, hitz egin dezakegu denboraren esperientziaren unibertsaltasunaz, mundu guztian zehar denboraren existentzia presente baitago. Hau horrela izanda, denboraz orokorrean hitz egitea posible dela uste dute askok, hau da, denborak izan ditzakeen modalitate guztien artean komuna den zeozer egon daitekeela uste da. Denboraren kontzepzio orokor batez ari naiz.

Baina mundu sozialetaz eta bizi eta gizarte erritmo ezberdinez hitz egin behar da ere (Valencia, 2007:15), hauek, elkarren artean ezberdinak direlako. Hortaz, denbora orokor eta unibertsal bat existitzen da, baina tokian toki eta historian zehar, honen kontzeptualizazioa eta honi loturiko praktikak, erritoak eta abar, oso ezberdinak izaten dira, gizarteak ezberdinak diren heinean.

Monografia antropologiko gehienetan denboraren inguruko interesa modu batean edo bestean agertzen da, baina duela oso gutxi arte ez dira gai honetan espezializatutako lanak publikatu.

Denok eta diziplina ezberdinek hitz egin dute kontzeptu honen inguruan eta oraindik ere definizio bat ematea oso zaila da. Askotan, denbora, irrealizat hartu izan da eta beste askotan, existitzen dela onartzeak arazo asko ekarri ditu, izate hura definitu beharragatik.

(...) todos hablamos del tiempo. Cuando lo hacemos contribuimos a alimentar la ilusión de que éste es algo que existe en sí mismo. El tiempo se tiene o se pierde; se va, pasa, corre, vuela. El tiempo se mide y se determina y, una vez medido, se agota y se declara muerto. Nunca se detiene, mucho menos retrocede. Es inatrapable porque es intangible, no puede verse o tocarse, no se puede sentir ni escuchar. El tiempo aparece, entonces, como un espejismo. El hombre pretende atraparlo y asirlo; para ello inventa el cronómetro y el reloj. (Valencia, 2007:25).

Grekoak ditugu denboraz aritu ziren erreferentzia zaharrenetarikoa. Hauek, Cronos eta Kairós-en artean bereiztu zituzten denbora moduak. Lehenengoa kuantitatiboa litzateke, kontsumitzen duguna eta heriotzeraino eramaten gaituen denbora lineala. Bigarrena, ordea, aldaketaren, berrikuntza aktiboaren eta gizakiaren barne esperientzien denboratza hartzen da. Denbora kualitatiboa da (Valencia, 2007:62).

Ostera, Émile Durkheim izan zen denboraren inguruan hitz egin zuen hurrengoa *Las formas elementales de la vida religiosa* (1912) liburuan (Valencia, 2007:31). Baina denboraren erabileraren ikerketen enpirikotasuna bermatzea 60. hamarkada inguruan kokatu behar da,

soziologia diziplinan eta mendebaldeko herrialdeetan. Geroago, 70. hamarkadan horren inguruko ikerketak egiten hasiko dira (Vera, 2001:89).

Beraz, 60. hamarkadatik hasiz, Pierre Bourdieu izango dugu denboraren inguruan hausnartzen. Honek denbora sostengatzeaz, atzeratzeaz, ustekabeen harrapatzeaz, gelditzeaz eta ezagutzeaz hitz egingo du. Honetaz gain, markatutako edo neurtutako denboraz eta neurtu gabekoaz ere arituko da. Esango duenez, landa eremuan denbora ez da neurtua izango, bertako gizarteak beren denbora egunsenti eta ilunabarren segiden eta lan eta jaien gurpila jarraituz markatuko baitute, baina ez neurtu (Bourdieu, 1963; Carbonell, 2004 liburuan). 1965an Estatu Batuetatik bideratua lehenengo *Encuestas de usos del tiempo* deiturikoak egingo dira, eta hemendik aurrera, hau, gainontzeko herrialdeetara zabaltzen joango da.

70. hamarkadako Bronislaw Malinowski eta Edward Evans-Pritchard autoreen lanak behatzen baditugu, bestelako kulturetan denboraren inguruko perzeptzio oso ezberdinak ikusi ahalko ditugu; Bourdieu-k (1963; Carbonell, 2004 liburuan) jada hirietako eta landa eremuetako gizarteen denboraren bizipen ezberdinetaz hitz egin zuen bezala.

Adibidez, Malinowski, Trobriand gizartean egindako ikerketaren ondorioz, badakigu hauen urtea, baratza zaharraren amaierarekin eta berriaren hasierarekin hasten zela. Beraz, urtero, klimaren edo jaialdien arabera, urtea luzeagoa edo motzagoa izaten zen (1977; Carbonell, 2004:41).

Evans-Pritchard-ek, bestalde, *denbora ekologikoaren* eta *denbora estrukturalaren* arteko ezberdintasuna egin zuen. Lehenengoa, ingurugiroarekin ematen diren harremanen denborari egiten die erreferentzia eta bigarrena, elkarrenganako harreman sozialen denborari.

Nuer gizarteak momentuko jarduera sozial nagusiaren arabera bereizten dituzte urteko epeak, *por ejemplo, se puede situar un acontecimiento "cuando empieza a calentar" o bien, lo que es lo mismo, "en el momento de ordeñar"*. (Evans-Pritchard, 1977; Carbonell, 2004:44 liburuan).

Honetaz gain, Caroline Roy, etxeetan egiten den produkzioaren inguruko ikerketa bat bideratuko du 1975 inguruan, "ekonomia informalar" erreparatuz.

Hamarkada honetan ikusi dezakegu denboraren erabilpenaren inguruko bestelako ideiak edo behatze puntuak sartzen hasiko direla. Horrela, denboraren erabileran eragiten duten faktore ezberdinetaz jabetzen hasiko dira 70. hamarkadan: sexua, familia statusa, seme-alabak izatea, egun mota, lan egoera, etab. (Vera, 2001:92).

80. hamarkadan, Michel Shanks y Christopher Tilley (1987; Carbonell, 2004:56 liburuan) autoreen ekarpenak iritsiko dira eta hauek, denbora kronologikoa eta gizarte kapitalistetatik kanpo bizi diren gizarteen denboraren arteko ezberdintasunaz arituko dira. Horrela, *tiempo humano* o *substancial* eta *tiempo cronológico* o *abstracto*-ren artean bereiztuko dute.

Lehenengoa, giza esperientziak markatuko du, beraz, jendea denbora igarotzaren menpe biziko da, hau momentu ezberdinen segidatzat hartuz. Denbora modu honekin biziko diren

pertsonak bizitza iraganarekin eta tradizioekin lotuta biziko dute. Bigarren denbora mota, berriz, neurtua izango da eta beraz, manipulagarria, zatigarria eta errepikagarria. Honen bitartez, etorkizuna planeatu ahalko da ere.

90. hamarkadan, denbora neurtzeko hiru maila proposatuko ditu Fernand Braudel-ek (1991; Carbonell, 2004:56 liburuan): ingurugiroaren aldaketen arabera iragango den denbora geografikoa, denbora soziala eta norberaren denbora indibiduala.

Garai honetan ere, Barbara Adam-ek bestelako bereizketa bat egingo du. Alde batetik, *tiempo-en-que* bereiztuko du, zeinean denbora, gauzak gertatzen diren kanpo faktore bat izango den. Eta bestetik, *tiempo-que* bereiztuko du, gertatzen diren fenomenoengan sartuta egongo dena, hauen izateko moduaren osagarria balitz bezala (1990; Valencia, 2007:20 liburuan).

Luciano Gallinoren arabera, *Diccionario de Sociología*-n argitaratuta, gizarte denbora, beste definizio batzuen artean, hau litzateke: *El elemento que, en tanto se distribuye en diversa medida entre una secuencia de actividades (incluyendo el reposo, el sueño, el ocio) caracteriza de modo determinante la vida cotidiana y con ella el nivel y el estilo de vida.* (1995; Valencia, 2007:91 liburuan).

Ostera, Xavier Zubiri filosofoak denbora baino gehiago sinkronikoki bilakatzen diren denboretaz hitz egin behar dela esango du. Haren ustez, are hobeto litzateke, prozesu fisiko, biologiko eta psikosozialei lotutako denborazkotasunaz hitz egitea (1996; Valencia, 2007:63 liburuan).

Bukatzeko, denboraren inguruan aritzeko eta ikertzeko lau bereizketa proposatzen ditu Guadalupe Valencia Garcia autoreak. Alde batetik, denbora errealitate ontologiko eta objektibo bat bezala ikus daiteke; beraz, denbora burmuinetik kanpo existitzen dela pentsatu daiteke eta kosmosaren igarotze guztien arteko sinkronitate moduan defini daiteke. Bestetik, denbora errealitate ontologiko baina subjektiboa izan daiteke; "makinen denbora" deitzen ahal diogu honi eta abstrakzio maila altuko eraikuntza suposatzen du, horrela egutegia, erlojua edo kronometroa sortuko litzateke hura azaltzeko. Hirugarrenik, denbora, epistemologikoa eta objektiboa izan daiteke; honek gizarte edo talde batek dituzten denbora komunak definitzea izango litzateke, horrela orainaz, geroaz edota iraganaz hitz egitean, elkar ulertzen dute. Laugarrenik, denbora, epistemologikoa eta subjektiboa izan daiteke; honek pertzepzioarekin du zerikusia, zeinaren bidez, bakoitza bere denboraren kontzepzio propioa duen (Valencia, 2007:50-51).

Beste autore batzuek denbora eta espazioa bereiztu ezinaz aritu dira. Hau da, denboraren bizitze batzuek pertsona horiek mugitzen diren espazioaren arabera izan daitezela esaten dute; eta alderantziz, pertsona bakoitzari espazio bat atxikituko zaio edo espazio bat aukeratuko du norberak bere denbora bizitzeko moduaren arabera.

Ikusi dugunez, beraz, denbora-Espazioa binomioaz gainera, bestelako batzuk ere sortu izan dira: Cronos eta Kairós; denbora objektiboa eta subjektiboa; kanpokoa eta barnekoa; fisikoa

eta psikologikoa; unea eta iraupena; aurrekoa-gerokoa eta iragana-geroa-etorkizuna; ontologikoa eta epistemologikoa.

Beraz, denbora bere adierazpenetan anitza dela argi dago. Gainera, neurtezinak diren eskala ezberdinak existitu egiten direla ere ikusi da, hala nola, denbora biologikoa, psikologikoa, historikoa, kosmikoa, eta abar.

Gizarte bakoitzak bere denbora eta historia propioak ditu gertaera bakoitzak, bere erritmoa, iraupena eta jatorria duen bezala. Hortaz, historia eta denbora ezin dira kontatu modu lineal batez, baizik eta modu multilineal batez (Valencia, 2007:216).

5.4.2. Denborak.

Mendebaldeko gizartearen kontzeptualizazioa

Egun, denbora, ikerketa objektu bezala berrikuste prozesuan ari da analisi kategorial ezberdinak sartu direlako bere baitan, hala nola, generoa, lan erreproduktiboa eta esferen teoria (Vera, 2001:84). Baina lan honetan, kontzeptu hau argitzeko hainbat proposamen eta ikuspegi bilduko ditut, ostera, erabiliko dudan kontzeptuari bide emateko.

Hasteko esan beharra dago denbora eraikuntza kultural bat dela eta beraz, kultura bakoitzak, modu ezberdinez kontzeptualizatzen duela. Baina gainera, denbora, identitatea itxuratzen duen praktika soziala ere bada (Carbonell, 2004:11). Hau da, norberak egiten duen denboraren erabilerearen arabera identitatea eraikitzen da. Hortaz, denbora konfiguratzeko modu ezberdinak existitzen dira eta gainera konfigurazio horren barnean pertsona bakoitzaren arabera, honen antolaketa eta erabilera ere bestelakoa da.

Denboraren nolakotasuna finkatzeko, gizakiok *erakusgarri fenomenologikoei* erreparatu izan diegu. Horrela, naturalak edo astronomikoak diren fenomeno askoren behaketak, denboraren igarotzea zehazten laguntzen duten elementuak eskaintzen dizkigute. Hau da, erakusgarri hauek ematen dizkigute denbora eraikitze baliabideak. Baina fenomeno hauek irregularrak eta gorabeheratsuak dira, beraz, argi dago lehendik esfortzu kultural bat egiten dela erakusgarri fenomenologiko batzuk edo beste batzuk aukeratzeko, eta ostera, hauei zenbakien interpretazioa emateko (Carbonell, 2004:17).

Beraz, denboraren nolakotasun orokor bat definitzeko gizartearen arabera fenomeno batzuk edo beste batzuk hautatzen direlarik, hauek ez dira batere objektiboak ezta zehatzak ere, aukeraketa arbitrarioa da.

Edmund Ronald Leach-ek ongi azaldu zuen hau 1971an: (...) *hablamos de medir el tiempo como si el tiempo fuera un objeto concreto que esperara ser medido. De hecho, creamos el tiempo al crear intervalos en la vida social. Antes de esto no hay tiempo que pueda ser medido* (...) (Carbonell, 2004:21 liburuan).

Erakusgai fenomenologikoetara itzuliz, kontutan hartu behar da, natura, normalean, zikloka aritzen dela. Hau da, behin bukatuta berriro hasten da ekintza, eta hauek nahiko irmoak izanda, oso baliagarriak izan dira gizakiak denbora antolatu ahal izateko.

(...) los ciclos naturales (las estaciones, la noche y el día) han servido de base a la organización de las actividades sociales, pero no todas las actividades siguen unas pautas vinculadas a cambios en la naturaleza. Por ejemplo, los ciclos semanales son invenciones estrictamente sociales. (...) Los ciclos no se producen solamente en las actividades de sujetos individuales, también los grupos sociales y la instituciones acomodan su actividad a cambios periódicos que pueden considerarse ciclos. La coincidencia de muchas personas con pautas de actividad similares genera ritmos "temporales colectivos". El sueño, el trabajo remunerado y las comidas son los grandes marcadores de ritmos durante los días laborables. A las pautas individuales características de uso del tiempo se les llama "perfiles temporales" (Durán, 2009:60).

Hemen ikusi dezakegun moduan ere, denbora kolektiboa eta indibiduala bereizten du María Angeles Durán-ek. Honi, aurrerago ekingo diogu.

Esan bezala, denbora ez da absoluto baten moduan existitzen, baizik eta gizakiok erabiltzen dugu gure esperientziak antolatu ahal izateko. Hortaz, eta esperientzia bakoitzaren arabera oso ezberdina izan daitekenez antolaketa, neurtzeko irizpide batzuk markatuak izan dira gizarteetan, eta honek denbora objektibatzeko aukera ematen du. Horrela, erlojua, egutegia eta kronometroa, denbora neurtzeko eta harrapatzeko tresnak ditugu, zeinekin denboraren igarotzea aztertu dezakegu (Izquierdo; del Río; Rodríguez, 1988:7).

(...) con el tiempo cronometrado, en contraste, los tiempos variables de la naturaleza (el día y la noche, de las estaciones y el cambio, del crecimiento y envejecimiento, del nacimiento y la muerte) son objetivados, constituidos como independientes de los procesos vitales o cósmicos, de la actividad humana y de la organización social. El tiempo cronometrado facilita la estandarización del tiempo y su precisa cuantificación (Adam, 1999:10).

Denbora ikerketa objektu izan denean, 1978an Dagfinn As-ek (Durán, 2009:58 liburuan) egindako sailkapen hau erabili ohi da: Beharrezko denbora (zaintza pertsonala), kontratatutako denbora (soldatapeko lana edota ikasketak), bestelako jarduera pertsonaletan konprometitutako denbora (etxeko lanak eta boluntariotza) eta denbora libre edo astialdia.

Hala ere, ikerketetarako bestelako sailkapenak ere badaude: jarduera adierazgarriak batetik, helburua hauek egitea denean, hala nola, aisia edota harreman sozialak; eta jarduera instrumentalak bestetik, helburu baten menpeko direnak, hala nola, ikasketak, garbiketa edota ordaindutako lana (Ramos, 1990; Duran, 2009:58 liburuan). Edota, azpitalde baten baten sailkapenean soilik zentratzen dira, adibidez, jarduera produktibo eta erreproduktiboak (Valencia, 2007:58).

Gaur egun, denbora, esan dugun bezala, ekintzen **baliabide** unibertsaltzat hartzen da, baina mugatua da, soilik 24 ordu baititugu egunean. Hortaz, jende gehienarentzat baliabide mugatu eta eskasa bihurtzen da, mundu guztiari denbora falta baitzaio nahi duen guztia egiteko.

Honetaz gainera, denboraren inguruko ikerketa gehienak **kantitatiboak** izan ohi dira, eta hauek ez dute denboraren hainbat berezitasun kontutan hartzen; adibidez, etxeko esparruari dagokionean, bertako denbora zenbatze eta monetarizazio logikatik at dagoelako.

Horrela, ikertzeko modu honek, denbora sozialen testuinguruak, ezaugarri ezberdinak eta baita hierarkiak eta aldiberekotasunak ezkututzen ditu (Legarreta, 2008:58), existituko ez balira bezala. Soilik zenbatu daitekeena hartzen da kontutan eta esan bezala, jarduera eta kasu asko zenbaketa honetatik kanpo geratzen dira.

Beraz, ikerketa honetan ez da denboraren alderdi kantitatiboa kontutan hartuko, baizik eta **kualitatiboa**, hau da, zertan ematen dugun denbora eta erabilera horrek dakartzan ondorioak. Horrela, adibidez, ikerketa honen kasuan, lanaren kontzeptua zabaltzerik nahi bada, denbora definitzeko bestelako moduak berrikusi beharko ditut, zenbatzetik haratago doazenak.

Modu honetan, inplizitu geratu ohi dena azaleratzea lortu dezakegu, denboraren aspektu kuantitatiboak behatuz, denboraren eraikuntza ezberdinen bitartez sortzen diren desigualdadeak argitaratzen dira.

Bestalde, lan honetan, denbora ez dut baliabidetzat hartuko, baizik eta jarduerak edo ekintzak burutzen diren **marko** edo **testuingurutzat** hartuko dut. Beraz, aurretik deskribatutako emakumeen bizitzetako jarduerak behatuko ditut, bizitza eredu horretako denboraren antolaketa aztertzeko. Bide batez, marko teoriko hau osatzean ezagututako denbora mota ezberdinekiko antzekotasunak ote dauden ere behatuko dut. Horrela, jarduera hauek, egungo lana eta astialdi denboren sailkapenetan sartzen saiatuko naiz, azken finean, ikerketarako klasifikazio bat ere behar delako. Hau da, ikertutako jarduerak denboran emango dira besterik gabe, ez da denbora beharko horiek burutzeko. Baina gero, hauek sailkatu ahal izateko, lanaren eta astialdiaren denborez arituko naiz.

Beraz, aurretik aipatutako As-ek egindako sailkapenez baliatuta, alde batetik, lana *beharrezko denbora*, *kontratutako denbora* eta *etxeko lanak* izango da guretzat. Astialdia berriz, *denbora libre* eta *boluntarioritza* deitzen duena.

Gizarte industrializatuak eta landa eremuak

Esan bezala, denboraren bizipena esperientzia pertsonala da, subjektiboa, eta orokorra eta objektiboa dirudiena kulturalki eraikia da. Ezberdintasun handia existitzen da erloju batengatik neurtutako denboraren artean eta giza mailan bizitako denboraren artean. Azkeneko honen inguruko ardura, XX. mendeko pentsamenduaren gai nagusi bat izan zen.

Hau horrela izanda, gizarte ezberdinek, eta hauen dinamika eta interpretazioak denboraren antolamenduan eragina izango dute.

Oraingoan interesatuko zaidana landa eremuko denboraren subjektibotasun hori izango da eta horretarako gizarte industrializatuetan eta landa eremuko batzuetan egindako ikerketen ideiak bildu ditut.

Gure imaginarioan orokortuta dagoenez, industrializatu gabeko gizarteek industrializatuak baino denbora gehiago dute. Baina esan dudana bezala, kuantitatiboki ez dago diferentziarik, dena pertzepzio eta bizipen kontua da. Hau da, nahiz eta industrializatutako eremuetan denbora gehiago neurtu, horrek ez du esan nahi denboraren kontzepzio handiagoa dutenik; denbora begien aurretik igarotzen zaie bertako pertsoneri, hau igarotzen ikusten egon beharrean. Bestalde, faktore naturalen menpeago bizi diren gizarteetan, denboraren igarotzea modu zehatzago batean bizitzen da, azken finean ez dute hirietako denbora hain neurturik, eta denbora pasatzearen pendienteago daude (Carbonell, 2004:48).

Existe un tiempo que puede ser medido de forma muy precisa. Es el tiempo de las cronologías. Medido a escala de la economía moderna instaure una barrera entre "trabajo y vida" en las sociedades industriales, a diferencia de las sociedades campesinas "orientadas a un quehacer" (Thompson, 1991; Carbonell, 2004:55 liburuan).

Landa eremuko bizitzan, kronometratutako giza denboraren menpe baino, naturaren denboraren menpe bizi dira. Lucien Demonio-k esan bezala, landa eremuan, ziklo kultural bat dugu zeinaren arabera urtaroen egutegi bat dugun, eta bestalde, ziklo naturala dago, zeina fenomeno natural ezberdin eta aurretik jakin ezin direnak hartzen dituen bere baitan (Demonio, 1979; Carbonell, 2004:33 liburuan). Horregatik, ezegonkorak diren urtaroen erritmo naturalen eta nekazariaren ekintzak eragiten duen produkzioaren erritmoen artean borroka ematen da; eta norgehiagoka honetan naturak irabazten du. Horregatik esaten da naturaren denboraren menpe bizi direla landa eremuan.

Gizarte industrialetan ordea, denbora abiadurarekin guztiz lotuta dago, eta horren harira, baliabide urritzat hartzen da. denbora, aldaketa balore abstraktua bihurtu izan zen industrializazioa hastean eta diruarengatik erosten da. Horregatik, kuantitatiboki hartzen da kontutan denbora, eta ez da kontutan hartzen ez adina, ez urtaroak, ez ezagutzak, ez nahiak,

ez minak, eta abarrek izan dezaketen eragina. Denbora berdina da mundu guztiarentzat emozioak eta testuingurua kontutan hartu gabe (Adam, 1999:9). Merkantzia da.

Jacques Le Goff-ek 1980an esan zuen (...) *este tiempo cuantitativo del intercambio económico es una construcción cultural específica con una larga historia, cuya expresión material es el reloj* (Adam, 1999:9 artikuluan).

Hau guztia horrela, industrializazioak eta urbanizazioak, landa eremuko gizarteentzat ezezaguna zen denboraren zatikatzea ekarri zuen, baina denbora pertsonalari dagokionez, hau ez zen berdina izan sexu edota maila sozial guztietan (Durán, 1986:13).

Al realizar una comparación entre la nuestra y otras culturas, podemos observar que solo la moderna ha logrado aislar el trabajo de otras actividades de la vida, convirtiéndolo en una mercancía mas. Es indudable que uno de los factores que han posibilitado esta conversión del trabajo en mercancía no es otro que la transformación del tiempo en una medida patrón cuantificada, en un elemento ideológicamente independiente de cualquier sistema social por su carácter abstracto y universal. En realidad, el tiempo nuestro, lo que miden los relojes, no es sino la manifestación de la medida de una duración, que sólo cobra sentido dentro del sistema de mercado.

Baina, hau ez da berdina gizarte guztietan. Hau da, abiadura ez da balore bat bere baitan. Gizarte askotan abiadura edo lehia balore negatibotzat dute eta industrializatutako gizarteentzat, ordea, azkartasunak aurrerakuntza esan nahi du (Adam, 1999:12).

Hortaz, herri edo gizarte industrializatuen denbora irakurtzeko logika denez inposatzen dena, honek gizarte edo bizi ereduen arabera desigualdadeak sortzen ahal ditu. Argi dago, herri industrializatuen abiadura jarraitzen ez duenak galtzen duela.

(...) las relaciones del tiempo es dinero son dominantes en cuanto han sido impuestas sobre las personas y las culturas a lo largo del mundo, y hasta el extremo que otras relaciones de tiempo son juzgadas y evaluadas a través del filtro mediador del tiempo mercantilizado (Adam, 1999:33).

Bestalde, denbora ere globalizatuz doa, denbora mundiala, estandarra, eta abar. sortzen dihoa; eta modu honetan, edozein eremuren testuingurua, urtaroa edota historia garrantzi gabekoa bihurtzen da (Adam, 1999:24).

Hala ere, lan honetan, landa eremuko gizarte bat aukeratu dut, zeinetan dirua ez zen hain garrantzitsua eguneroko bizitzan eta zeinari oraindik, industrializazioaren keinuak soilik heltzen zitzaizkion. Hortaz, badirudi denbora ez dela merkantzia soil bat izango, lan honen gorputzean azalduko dudana bezala.

Denbora motak

Etengabe esaten ari garen moduan, denbora oso subjektiboa da eta pertsonaren arabera oso ezberdina da: norberaren denbora pertsonalaren antolakuntzaren arabera, bere kontzepzioen arabera eta askatasunarekiko dituen praktika indibidualen arabera da (Leif, 1991:17). Baina gizartean bizi garelarik, honek duen kontzepzioaren, baliabideen eta antolaketaren arabera, modu batean edo bestean gestionatzeko aukera gehiago edo gutxiago izango ditu.

Kontutan izan behar da beraz, errealitatea denbora dimentsio anitzaz osatuta dagoela eta hauek elkarren artean konektatzen direla. Horrela gizarte edo pertsona baten historia ezingo da soilik denbora bakar batetara mugatu.

Hau horrela izanda, ikerketa honetan hiru denbora mota bereiztu dituzte, kontutan izanda ikertutako emakumeen denborarengan eragina izan ahal zutela: denbora kolektiboa, naturaren zikloekin edo denborarekin oso lotuta egongo dela; familia edo gertuko pertsonekin konpartituakoa, etxeko denbora; eta norberaren denbora edo denbora propioa.

Denbora hauek elkar baturik daude eta batean gertatzen dena besteetan eragina izaten du, horregatik, batean asko aritzea, beste dimentsioetan denbora emateko aukera galtzea ekar dezake. Generoari erreparatuz, dimentsio hauetan generoaren arabera ere rol ezberdinak finkatuta daudelarik, pertsona batzuek aukera batzuk edo beste batzuk edukiko dituzte dimentsio bakoitzean garatu eta parte hartu ahal izateko. Horrela diskriminazioak sortu ahal direlarik.

a. Kolektiboa

Denbora kolektiboa herriko edo Ibarreko guztiek amankomunean izango duten denbora litzateke.

Kolektibotasunean, orokorrean urtaroengatik eta hauen bitartez sortutako erritoengatik, jaiengatik edota ospakizun publikoengatik markatutako egutegi komuna dago. Hau da, denbora kolektiboa, kolektibitateak elkarrekin egingo dituen jardueren sailkapena da, eta hauek, egunetan, astetan, hilabetetan, urteeta, eta abar bereizten dira (Beriain, 2008:23).

Beraz, nekazari baten bizitza soziala ez da soilik ingurugiroan ematen diren gorabeherengatik aldatuko. Esan bezala, hauek eragina izango dute, adierazleak izango dira, baina ez erabakigarriak, denbora kolektiboak kulturalki eraikia ere izango baitira.

Horrela adibidez, aste tarteko eta igandeen arteko ezberdintasun orokorrak ofizialki markatuta egongo dira, biztanle guztientzako. Data zehatzak daude mutilak neskak kortejatzeko, ikasketak utzi eta lan egiten asteko, haurdunaldiak emateko, eta abar. (Izquierdo; del Río; Rodríguez, 1988:31). Hau da, denbora antolatzeko epaiketa moral kolektiboak daude.

Dena den, ez da existitzen denbora sozial edo kolektiboaren karakterizazio bakar bat, hau, sortuak diren denboren zerrenda anitza litzateke eta tokian toki, ezberdina litzateke (Berriain, 2008:22).

Hortaz, pertsona bakoitzak badu denboraren testuinguru espazial (non) eta sozial (norekin eta norentzat) bat eta hor ditugu denbora kolektiboak eta familiarrak edo pertsona hurbilen artekoak (Durán, 2009:64).

b. Familiakoa edo gertuko pertsonetikoa

Iraganeko landa eremuetako gizarteetako bizi ereduak, orokorrean, produkzio eta erreproduzio unitatea den familian oinarrituta zeuden. Ekonomia subsistentzia mailan funtzionatzen zuen eta familiak produzitzen zuen gehiena edo dena, bertan kontsumitzen zen. Batzuetan, soberakinak egonda, merkatura ateratzen ziren, eta nahiz eta sexuen araberako lanen banaketa egon, familiako edonork bihurtu zezakeen berak produzitutakoa merkantzian (Izquierdo; del Río; Rodríguez, 1988:8-9).

Hau horrela izanda, familian edo gertuko pertsonen artean igaroko den denbora oso garrantzitsua izango da garai honetan eta hau ere, errito edota ohitura ezberdinen bitartez markatuta egongo da. Gainera, urtaroen zikloek ere, sutsuki markatuko dituzte familia hauen denborak, eta hauen arabera oso antolaketa ezberdinak ikusi ahalko ditugu.

Industri Iraultzarekin produkzio eta erreproduzio funtzioak fabrian edo etxetik kanpo eta etxean ematen hasiko dira, hurrenez hurren, eta eremu publiko eta eremu pribatua sortuko dira. Honek beraz, denboraren inguruko kontzepzio ezberdinak areagotuko ditu eta espazialki bereiztu. Horrela, sexuen arteko bereizketa are handiagoa bilakatuko da. Hau da, gizonezkoentzat denbora ez-jarraitua edo banatua izango da, produktiboaren eta aisialdiaren banaketa emango delako; eta emakumeentzat jarraitua izango da, etengabe denbora produktiboa eta erreproduktiboa elkar nahastuz egongo direlako. Hemen beraz, familiako denborek soilik azkeneko hauengan izango dute eragina.

c. Norberarena edo propioa

Norberaren denbora, kolektiboa eta familiarra elkarren artean eragina izaten dute.

(...) el tiempo de esta singularidad individualizada (en el que se constituye y se manifiesta precisamente la coherencia creadora del pasado, del presente y del futuro de cada cual) sólo cobra sentido y realidad por la situación del individuo en y por la sociedad, por la que el tiempo vivido de cada ser, (...), se convierte también en el tiempo de los otros; (...) (Izquierdo; del Río; Rodríguez, 1988:19).

Denbora propioa, beraz, erabat mugatua egongo da; batzuentzat beste batzuentzat baino gehiago, noski.

Denbora propioa “pribatutasuna”-rengatik konfiguratzeko da. Soledad Murillok *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio* liburuan azaldu bezala, pribatutasuna (...) “*apropiación de sí mismo*” que marca la idea inefable de privacidad: la retirada voluntaria y puntual de un espacio público, para beneficiarse de un tiempo propio (1996) izango litzateke.

Pribatua dena, norberarengan arduratzea litzateke, eta horregatik, etengabe aldatzen ari den kontzeptua da, bizitza eredu arabera ezberdina izango delako arduetza hau (Murillo, 1996:2). Pribatutasunak tresneri pertsonalak eta bizitza pribatua hartzen ditu bere baitan, hala nola, harreman intimoak, aisialdi momentuak, sexualitatea, etxeko kontuak, eta abar. Ikus dezakegu beraz, pribatutasuna, eta hortaz, denbora propioa, etxearekin guztiz lotuta dagoela. Kontutan izanda etxean ematen zutela familia hauek denbora gehiena, pribatutasun gutxi edo ezer izango ez zutela pentsatu dezakegu.

(...) la privacidad invoca la posibilidad de ejercitar una atención sobre sí para desplegar un código íntimo. Elementos difíciles de condicionar con la vida social del hogar y de la familia (Murillo, 1996:1).

Pribatua dena edo denbora propioa, sinesgarritasun unibertsal batetaz gozatzen du, baina oso gutxi planteatu dute pribatutasunaren erabilera ezberdinen inguruan (Murillo, 1996:1). Hau da, ez da gauza bera, denbora propioa izatea edo pribatua izatea. Esan bezala, etxeak espazio pribatuak kontsideratzen dira eta honek ez du esan nahi, hemen denbora gehien ematen duten pertsonak, emakumeak, denbora propiorik dutenik.

Bukatzeko, esan beharra dut, denbora honen jabetza oso garrantzitsua dela, pribatutasun falta, indibidualitatearen eta autoestimaren garapena guztiz zaila bihurtzen duelako eta gainera espazio publikoan jarduteko defizita ere sortzen duelako.

5.4.3. Denborak eta generoak.

Denbora eta generoaren inguruan hitz egiten denean, gehienetan *Encuestas de usos del tiempo*-ri erreparatzen zaie; eta bertan, denboraren banaketak eragiten dituen diskriminazioei egiten zaie erreferentzia. Oso argi dago kontua, gizonezkoek lan egiten ez duten denboran, aisialdiaz gozatzen dute batez ere, eta soldata baten menpe lan egiten duten eta egiten ez duten emakumeek, libre duten denbora gehiena etxeko lanetan (lanean zehar hauek zeintzuk diren zehazten joango naiz) inbertitzen dute.

Generoa eta denbora lotu izan dituzten ikerketa gehienak, gizonezkoen denboren banaketaren arabera datuetatik abiatuta izan dira, hau da, merkaturatutako denbora hegemonikotik

haratago begiratzin duten ikerketa gutxi daude. Feministak izan dira hemendik atera izan diren bakarrak, soldatapeko lanaren itzalpean geratzen diren lan denborak azaleratuz.

80. hamarkadatik aurrera hasi ziren feministak denboraren isilune hauen inguruan ikertzen eta hitz egiten.

Después de exigir primeramente igualdad de derechos en el tiempo lineal de la historia, y consecuentemente después de establecer la diferencia fundamental entre el tiempo patriarcal y matriarcal, las actuales feministas están luchando por ponerse de acuerdo respecto a las complejidades y contradicciones que se plantean a las mujeres por la dominación del tiempo cronometrado y el énfasis en su linealidad y finitud (Adam, 1999:27-28).

Gaur egun, oso beharrezkoa da azaleratzea erreprodukzio eta birsorkuntza denborak, emakumeenak direnak orokorrean, erloju eta egutegiaren denbora nagusiengatik at geratzen direla. Mendebaldeko gizarte gehienetan, lehentasunezkoagoak diren lanak eta jarduerak daudela esan dezakegu eta gurean behintzat, honek generoen denborekin zerikusi handia du.

(...) raramente se cuestiona que el trabajo, la escuela y los tiempos de ocio organizado tienen prioridad frente al tiempo dedicado a las compras y a las comidas, así como que los tiempos que son gobernados por el tiempo mercantilizado tienen preferencia sobre aquéllos al margen de la economía del tiempo de las relaciones de empleo (Adam, 1999:27).

Denboraren balioa, gaur egun, soldatapeko lanari lotuta dago erabat, eta beraz, hemendik kanpo ematen diren denbora guztiak ezin dira diruarengatik aldatu, hau da, ez dute balio monetarioa. Bestalde, dakigunez, dirua boterearekin zuzenean lotuta dago, eta beraz, diruaren bitartez baloratu ezin diren jarduerak edo denborak, zuzenean botere faltarekin erlazionatuta daude eta ikustezin bihurtzen dira (Adam, 1999:11-29). Beraz, emakumeen lana baloraziotik kanpo geratzen da.

Orokorrean hitz eginez, esan dezakegu genero bakoitzarentzat denbora ezberdin bat existitzen dela, gero, esan bezala pertsona bakoitzaren denborene ezaugarriekin, pertsona bakoitzeko denboraren antolaketa modu anitzak izanda. Baina bitan orokortu daiteke, ezaugarri estrukturalak markatuko baitituzte pertsonak genero batean edo bestean.

Hau guztia, industrializazioaren sarrerarekin areagotu zen. Hau da, funtzio produktiboak eta erreproduktiboak espazialki banatzean, familia, erreprodukzio eta produkzio espazioa izatetik, soilik pertsonen oinarrizko beharrak asetzen dituen instituzio eta espazio soziala izatera pasatu zenean. Produkzio eremua beraz, etxetik eta familiatik kanpo kokatu zen guztiz, aurretik azaldu bezala, denborari balio monetarioak jarritz.

Beraz, logika kapitalista eta patriarkarraren menpe, alde batetik, objektuen produkzioa dugu gizartean, zeina nagusi den eta batez ere, gizonezkoek egindakoa den. Eta bestetik, subjektuen

produkzioa, erreprodukzioa, egongo litzateke, erreprodukzioaren bitartez edota erabileraren baloreen produkzioarekin zuzenean sortuko dena. Azkeneko hau, emakumeei egokituko zaie.

Hau horrela izanda, emakumeak eta gizonak, gizarteko produkzio fisikoan bakoitzak duen parte hartzearen arabera sozializatzen dira. Hau horrela izanda, bakoitzari rol batzuk, espazio batzuk, gaitasun batzuk, eta abar egokitzen zaizkie, sexu batekoak edo bestean sailkatuta egoteagatik. Honek guztiak denboraren erabileran izango du eragina, segun eta bakoitza non eta nola kokatzen den sozialki, denbora modu batez edo besteaz antolatu edo erabili ahalko duelako.

Horrela laburtu daiteke: emakumearen denborak jarraitasun ezaugarria du, ez dago ezberdintasunik jaiegun eta lanegunen artean, ezta lan eta aisialdiaren artean; emakumeen lana erabiltze balorea dauka, ez da ez saltzen ez erosten, soilik erabili egiten da. Gizonezkoen denbora, ordea, merkantzia ezaugarria dauka eta diruagatik edo aisialdiarengatik aldatu daiteke; ez da jarraitua, lan produktiboa batetik eta aisialdia bestetik.

Horrela beraz eta aurretik esan bezala, hemen banatutako hiru denbora motetan (kolektiboa, familiarra eta norbanakoarena), emakumeak eta gizonak hauen erabileraren ezberdinak egingo dituzte.

Orokorrean, gizona espazio publikoan kokatuko da eta emakumea etxeko eremuan. Beraz, denbora kolektiboari dagokionez, askatasun eta mugitzeko erraztasun gehiago gizonezkoek izango dute. Bestalde, erritualak edota komunitatearekiko jarduerari dagokionez, batzuk gizonezkoenak eta beste batzuk emakumezkoenak izango dira, horrela genero bakoitza bere denbora gauza batzuei edo besteei eskainiz.

Etxeko denborari dagokionez, hemen ematen diren jardueren berariazkotasuna ez da hala nola sortzen, baizik eta generoaren eraikuntza sozial batekin lotuta dago, femeninoarekin.

El discurso de la domesticidad sobre el que se erige la división de tareas, responsabilidades y funciones según el género, conlleva asimismo, la moralización del tiempo destinado al hogar y a la familia, la sumisión a la lógica de una moral dominante que establece las normas de la bondad (Legarreta, 2008:61).

Etxeko lanetarako ematen den denbora, beraz, emakumeen denbora, oso malgua bihurtzen da etxe eremuko eskariak ahalmen eta gogo guztia eskatzen baitu. Baina aldi berean, etxeko lanak eta zaintza lanak oso zurrinak eta irmoak dira esparru hauek atzeratu ezin diren hainbat errutina eramaten baitituzte berarekin. Bestalde, eskainitako denbora honek ez du egutegi zehatzik, eskaria edozein momentutan sortu baitaiteke eta gehienetan momentu zehatz batean egin beharrekoak izaten dira. Hona hemen denbora beste modu batera bizitzearen arrazoietakoa bat.

Cuando un ama de casa dice que no tiene vacaciones, no se refiere a que no tenga períodos de descanso, sino que no tiene algún referente que le permita diferenciar

cuándo empieza el trabajo y cuándo el ocio. Sólo si se produce una ruptura en el tiempo, provocada por un desplazamiento geográfico, siente que efectivamente está teniendo vacaciones. Esta es la situación en que por otra parte se encuentran el resto de personas que no participan en el trabajo remunerado, como los parados, jubilados, estudiantes, etc. (Izquierdo; del Río; Rodríguez, 1988:194).

Hau da, emakumeak kronometroagatik neurtuta dagoen denbora batetan parte hartzen dute eta honen menpe daude, azken finean, denbora kronometratuak sortzen dituen estruktura sozialei, epeei eta ordutegiari lotuta daudelako. Baina hala ere, gehienbat eurek betetzen dituzten erreproduzio, jate, zaintza, amodio eta hezkuntza denborak, ez dira pagatutako, neurtutako, gastatutako, kontrolatutako edota izendatutako denborak. Emakumeen denborak, bizituak, sortutakoak eta eskainitakoak dira. Hau da, nahiz eta gizartea, logika kapitalistaren baitan astialdi-lana-atseden denboren banaketa batetara heldu den, ikerketa honen kasuan gizonetako ere bai zentzu batean, emakumeak familiaren baitan gerta daitezkeen arazo, ezusteko eta beharren menpe antolatzen dute euren denbora. Hau horrela izanda, emakumeen denbora diskriminatuta geratzen da, logika kapitalista eta patriarkalaren denborari lotuta dagoelako, hauek betetzen ez dituzten beharrei erantzuten dietelako, baina ezin du honek ekar ditzakeen onuretzat gozatu, euren denbora jarraia delako, erreproduzioa, jatea, zaintza eta amodioa etengabekoak direlako. Euren denbora kontzepzioa, esklabutza da logika horren barnean. Aztertu dudana emakumeen kasuan, kronometroaren menpeko gizartea ez da existituko, baina etxeko produkzioarekin biziraun beharrak markatuko ditu ordutegiak eta egiturak. Beraz, aurretik azaldu bezala, diskriminatuak denbora izango da emakume hauena eta esklabutzat hartu daiteke. Gizonezkoek zeregin konkretu batzuk zituzten bitartean ikertutako emakumeak zeregin anitz zituzten, batzuk konkretuagoak eta beste batzuk etengabean agertzen ziren ausazko beharrak.

Hala ere, esan bezala, etxeko edo familiako lanetan inbertitutako denbora doantzat egindako denbora da, hau da, eman edo eskaintzen (Mauss, 1923-1924; Legarreta, 2008 artikuluan) den denbora da. Beraz, ez da gauza bera esklabotza denboraz edo eskainitako denboraz hitz egitea, bigarren honen perspektibatik hitz eginda, ezaugarri asko dituen denbora batez ari baikara, hau mesprextatu eta biktimizatu gabe. Eskainitako denbora identitate zeinu bat bezala agertu daiteke. Gainera, etxean eta zaintzan emandako denbora harreman osagarria du, eta beraz, honek elkarrekotasun eta elkartasun sozialak sortu beharko lituzke etxeetan (Legarreta, 2008:62). Hau guztia horrela izanda, esan dezakegu eskainitako denbora, emakumeen denbora, Kairos-arekin identifikatu daitekeela. Beraz, ikerketa lan honetan, emakumeek etxean ematen duten denbora, eskainitako denbora bezala irakurriko dut, gauza positiboekin geratzen.

Norberaren denborari edo propioari dagokionean ere generoak zeresana du. Hau da, bi pibatasun existitzen dira: maskulinoa eta femeninoa. Lehenengoarentzat, pibatasuna individualitatearekin lotuta dago erabat, hau da, norberaren hautuekin, behar eta nahiekin. Bigarrenarentzat, ordea, pibatasun horrek erabat ezeztatzen du propioa dena, mantenugai

eta kidearen rolen menpe egon baita beti (Murillo, 1996:XX). Hau da, rol maskulinoarentzat pribatutasuna indar puntu bat da, norberarengan pentsatzeko aukera bat. Rol femeninoarentzat berriz, beharrezkin lotutako momentu bat da, zeinetan gainontzekoei afektuak eskaintzeko aukera ematen den. Bi errealitate hauek ez dira elkarrekin bateragarriak (Murillo, 1996:XX), azken finean, denbora propioa zuregan ematen baduzu ez duzulako besteengan eskainiko. Aldiz, osagarriak bai dira, rol femeninoa euren pribatutasuna izan zitekeena etengabeen besteengan xahutzen duen bitartean, rol maskulinodunak berengan pentsatzeko aukera izan dezakete.

Denbora propioa eta pribatutasuna sinonimotzat hartu ditugu, biak norberaren erabakietan eta beharretan oinarrituko zirelakoan, baina ikusi bezala, generoaren arabera bi denbora propio edo pribatutasun bereiztu daitezke: bata bikaina eta aparta, eta bestea zorigaitzokoa. Honetaz gain, pribatutasunaren aurkakotzat publikotasuna hartzen da eta ostera, etxeko espazioa ere gehitzen du Murillok (1996:XX).

Berez hiru espazio eta hiru gestio ezberdin daudela pentsatu dezakegu, baina ez da horrela. Emakumeak denbora gehiena etxean ematen duen heinean, hau ere beren espazio pribatu bihurtzen da (publikoa izatea ez duelako zentzurik), eta dakigunez, hau familia guztiaren espazioa ere bada, beraz, ez dago pribatutasun errealik eta emakumeek pribatutasuna edo denbora propioa izateko aukera galtzen dute horrela.

Quando el espacio privado del hombre confluye en el espacio doméstico, esta intersección se traduce en compartir una misma "territorialidad". No obstante, las distintas formas de estar en el hogar o en una relación afectiva, se confrontan radicalmente. La diferencia estriba en los privilegios que se obtienen (o se pierden) en el preciso instante de saberse poseedor o poseedora de un tiempo privado. El hombre hace coincidir para su descanso el mismo espacio en que la mujer organiza y resuelve el hogar (Murillo, 1996:137).

Hau horrela izanda, ikertutako emakumeen esparruan, iruditu daiteke ezkondu gabeko emakumeek ez dutela zertan horrelako denboraren banaketarik izan behar, baina hau nahiko orokorra da emakume guztientzat, esan bezala, oinordekotza sistemaren arabera, nahiz eta ez ezkondu, gurasoen etxean geratzen ziren familia guztiarekin. Hau da, emakume batek ez du zertan ezkondu egon behar eta ez du zertan familia bat osatu behar pribatutasun horretaz ez gozatzeko, genero mandatuei kasu eginda soilik, euren interesen gaintik besteek behar eta nahi dituzten gauzei erreparatuko baitie (Murillo, 1996:XXIII).

Modu honetan, emakumeak, gaur egun, beren ardura guztiak alboratu gabe, zenbait "hutsune" bilatzea lortzen dute beharbada kirola egiteko, kurtsoak egiteko, nahi dituzten jarduerak egiteko, etab.

Toda actividad pensada en singular, o para su propio beneficio, será un privilegio, cuando no una excepción. De producirse, contará con una acotación de tiempo muy precisa, porque la disposición de un tiempo de ocio, en sentido estricto, se reduce a los "huecos" que se derivan de sus obligaciones familiares (Murillo, 1996:XXIII).

Hortaz, askotan, ezinezkoa egiten zaie euren astialdiari ekitea, energia guztiak, besteengan pentsatzen, hauengan arreta jarriz eta behar dutena detektatzen xahutu baitituzte. Beste batzuetan ordea, aipatutako “ezustekoak” direla eta, hau da, gaixotasunak, etxean sortzen ahal diren bat bateko arazoak eta abar direla eta, badirudi emakumeak bere aisialdi denbora besteen onurarako ere erabiltzen dutela. Gainera, ohikoa da, pribatutasun nahi edo bilatze horrek berekoi izatearekin lotzea.

Informatzaile ditugun emakume hauek ordea, ez zuten “hutsune” horiek bilatzeko aukerarik ezta intentziorik ere, beren funtzioa argi zuten, eta horiek bilatzea ez zen horren barnean sartzen.

Pertsona batek bere denbora antolatu eta egituratzen duenean, denbora autonomoa izango du. Baina pertsona baten denbora besteengatik antolatua eta egituratua denean, denbora hau heteronoma da (Vera, 2001:85). Azkeneko honek, alienazioa eragiten du eta emakumeak bizi diren denboratzat hartu dezakegu. Oso zaila da, bere denboraren arduraduna ez den pertsona bat, bere buruaren jabe izatea (Vera, 2001:85). Denbora autonomoa, ordea gizonezkoek dute, haiek beraiek erabakitzen dutelako erabiliko duten denboraren antolakuntza eta egitura nolakoa izango den, kanpo faktoreen eragina minimoa izanda. Honek ere sexuen arteko desigualdarean eragiten du.

Bestalde, bizitza pribaturik ez izatea eguneroko bizitzan dauka eragina. Generoen arteko ezberdintasunak handitzen ditu eta honek aukera pertsonalen banaketan eragin zuzena du.

Carecer de privacidad, instaladas en un espacio de nulo reconocimiento social, incide en el silenciamiento de las mujeres y en su autonpercepción. Ellas no se atribuyen derechos aunque, paralelamente, velen por los derechos de los demás (Murillo, 1996:147).

Soilik, gainontzeko familiakoek euren denbora ere eskainita lortuko du emakumeak denbora propioa izatea.

5.4.4. Denborak landa eremuan

Landa eremuan eta aztertu dudan garaian bereziki, industrializazioaren eragina oso txikia izango da, beraz, denboraren monetarizazioa ez da ia existituko. Binomioa bai ordea: emakumearen denbora gehiena etxean inbertituko da eta gizonarena landan eta tabernan. Hala ere, orokorrean, denboren arteko banaketak ez dira hain markatuta egongo.

Bestalde, erritoak garrantzitsuak izango dira gizarte honetan eta emakumeek ere paper garrantzitsuak jokatu dituzte denbora tarte hauetan. Batez ere, kontu erlijiosoetan eta ospakizun familiarretan izango dute parte hartzea. Egia esan, erritual edo jaialdi kolektibo gehienak, nekazal denboren arabekoak izango dira, hau da, gizonen denboraren arabekoak. Baina, horrek ez du alde batera uzten emakumeen nolabaiteko aisialdi tarteak ere izatea, hori bai, genero denborengatik guztiz markatuta.

Laburbilduz esan dezakegu emakumearen denboraren 24 orduak ama eta zaintzaile izate horren menpe bizi direla. Beraz, gure gizartean ematen den denboraren banaketa konbentzionala (8 ordu aisialdi, 8 ordu lana eta 8 ordu lo egiteko) ez da haientzat betetzen. “Emakumearen lana ez da inoiz bukatzen” esaten denean, argi eta garbi geratzen da emakumearen lana ezin dela finitotzat hartu, ezin dela neurtu eta ezin dela kuantitatiboki ebaluatu. Hortaz, badirudi denboralizazio horretatik at bizi ahal diren heinean ez dutela honen eraginik pairatzen. Baina hau ez da horrela, hori guztia delarik, emakumeak desigualdade egoerak bizitzen baitituzte.

No todo el tiempo es dinero. No todas las relaciones humanas están exclusivamente gobernadas por el tiempo racionalizado del cronometro. No todos los tiempos son iguales. No todo tiempo de trabajo es remunerado. No obstante, todas las relaciones de trabajo tocadas por el tiempo cronometrado están vinculadas a la hegemonía y el poder (Adam, 1999:26).

Denboraren erabilera ikertzen denean, hau bi modalitate ezberdinetan bereizita dagoela aurreikusten da, lanaren denbora eta aisialdiaren denbora. Baina esan dudan bezala, etxeetan lan egiten duten emakumeentzat bereizketa honek ez digu balio. Eta guri interesatzen zaiguna denbora jarraitasun batetan ikustea da eta ez banatuta. Lan honetan, emakumeen denborari erreparatuko diogu, hori bai, beti kontutan izanda noski orokortasun batetik hitz egiten ari garela eta ostera, bakoitzaren denborak anitzak, ezberdinak, apurtzaileak eta abar izan daitezkeela.

Hala ere, mendebaldean hegemonikoa den lana eta aisialdiaren arteko binomio hori delarik, kontzeptu hauetaz baliatuko naiz emakumeen denbora zenbateraino den apurtzailea, zapaldua eta boteretik aterata aztertzeko, positibotaz zenbateraino duen ikusteko. Hau da, kontzeptu horiek erabiliko ditut konparaketa bat egin ahal izateko eta emakume hauen denborei errentagarritasun bat atera ahal izateko.

5.5. LANA ETA AISIALDIA

5.5.1. “Lana”

Ez dago lana kontzeptuaren definizio zehatz bat. Azken urteotan, gainera, kontzeptu hau, arlo politikoan, laborean, akademikoan eta sozialean eztabaidatua izan da. Tentsio handiena sortu izan duena bi helburu kontraesankor eman izan zaizkiola da. Batetik, lana irabaziak eskuratzea izango litzateke, eta bestetik, giza bizitzaren zaintza dugu lantzat (Carrasco, 2001:1) eta hau, zenbait zentzutuan ez da bateragarria.

Hizkuntzaren Akademiaren Hiztegiak (Diccionario de la Academia de la Lengua) esaten duenez, lana *el esfuerzo humano aplicado a la producción de riqueza* litzateke (Durán eta Paniagua, 1999:28). Baina ez du zehazten aberastasun horrek zeri egiten dion erreferentzia, diruari edo bizi kalitatearen aberastasunari.

Hala ere, nahiko onartua dago empleguaren bestelako kontzeptualizazio hau: lan kontratu indefinitu bat izatea, etxetik kanpo lan egitea, ordutegi bat izatea, legedi eta konbenio laboralak izatea, eta abar. Eta hau da, normalean lantzat ere ulertzen dena. Aipatutako modelo menperatzaile hau Industrializazioarekin heldu zen, eta honen arabera antolatzen dira familien eta gizartearen erritmoak (Piotet, 1987; Díez 1995:156 artikuluan).

Ikus dezakegunez, emplegu edo lanaren kontzeptu honek ez ditu etxeko lanak barnebiltzen.

Nire ustez, Lourdes Beneria-k 1979an esan zuen bezala, *lana* modu honetan definitzea egokia litzateke: *El concepto de trabajo mas idóneo será el que incluya toda actividad que tenga como objetivo la producción de bienes y servicios realizados en la esfera pública y en la privada, al margen de cuál sea su destino, sea éste el mercado o el autoconsumo* (García Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Perez, 1994:19).

Gainera, lana bizitzaren parte bat bezala kontsideratu behar da, baina ez bertute bat bere baitan. Hau da, bizitzan egiten ditugun jardueren multzo bat da eta ez du zertan beste edozer baina garrantzitsuagoa edo ezinbestekoa izan behar.

Dena den, kontzeptuak duen izaera soziala hasieran aipatutakoa delarik, badakigu lanaren ikuspenak edo ikustezintasunak ondorio sozialak, politikoak, ekonomikoak, juridikoak eta baita etikoak ere ekartzen dituela. Hau da, sozialki onartua dagoen “langile” hori izateagatik baldintzatuta etortzen dira gehienbat eskubideak, integrazioa eta parte hartze soziala edo politikoa modu batekoa edo bestekoa izatea. Identitate pertsonalean ere eragiten du izate honek (Durán eta Paniagua, 1999:28-29).

Honetaz guztiaz gain, esan beharra dago ere, lanaren kontzeptua ezberdina dela zonalde industrial edo urbanoetan eta landa eremuan, azkeneko hau bestelako arauengatik antolatzen baita. Gaur egun, ikerketa hau kokatzen den eremu honetan esan dezakegu “lana” nekazal eta abeltzaintza jardueri deitzen zaiela, edota soldata baten truke egiten diren beste jarduera batzuei egiten diela erreferentzia, hauek biak gehienetan gizonak egiten dituztelarik. Egia da

zelaietan eta mendian emakumeek ere parte hartzen dutela, baina honi “laguntza” deitzen zaio, nahiz eta askotan lan ordu oso luzeak izan. Eta emakume hauek jakin badakite lana egiten zutela eta dutela, nahiz eta sozialki aitortua ez egon (Cosin; Mauleon, 1991:46).

Bestalde, momentu historikoa ere kontutan hartu behar da eta honek beste aipatu beharreko bat gehitzen du. Lehengo landa eremuan, familiak bai kontsumo pertsonala eta baita erreproduktiboa ere ziurtatu behar zuten. Hau da, lana egingo zutenen beharrak asetzeaz arduratzeaz gain, produkzio lanak ere egiten zituzten familia hauek. Familian ematen zen dena, bai produkzioa eta baita erreprodukzioa ere, beraz, lana zenaren eta ez zenaren arteko ezberdintasuna lausotuagoa zegoen.

Industrializazioaren aurretiko urteetan, lanaren denborek harreman zuzena zuten naturaren eta giza bizitzaren zikloekin. Ekonomia hauetan, bai emakume bai gizonek egiten zituzten jarduera gehienak lana kontsideratzen ziren; gehienak biziraupenari lotuta.

Hortaz, gaur egun aipatzen den erreprodukzio eta produkzio dikotomiaren artean bereiztea zaila da horrelako gizarteetan, horrela, denbora luze batez, Mendebaldean, ez da argi geratu zein den bi azpistema hauen muga, horrela zenbaitetan (iraunkortasun ekonomian), biek unitate bera izatera iritsi dira, adibidez, landa eremuan. Unitate honetan emakumeak bai erreprodukzioan eta produkzioan aritu izan dira produkzio materiala edo erreprodukzioa zer den bereiztu gabe (Frau Linares, 1998:16).

Ostera, kapitalismoa etorrita, produkzio eta erreprodukzioaren arteko bereizketa handi bat emango da, hauek independente edo harremanik gabekoak bihurtuz.

La unidad producción-reproducción se mantiene en Occidente hasta que “la casa medieval, unidad de consumo, producción y vida deja de ser un universo autosuficiente y va dando lugar, mediante la disolución progresiva de la unidad doméstica, a un proceso de separación entre la economía interna (hogar) y la economía externa (mercado), entre espacio familiar (interno) y espacio de los negocios, las transacciones económicas, etc (externo) entre relaciones públicas y privadas” (Sáez, C. 1982:139; Frau Linares, 1998:16 iburuan).

Gizarte industrializatuen sorrerarekin, lanaren denborek, harreman zuzena, produkzio kapitalistarekin izatera pasako dira. Soldatapeko lana ez da zehaztuko ez urtaroen bitartez, ez eguzkiaren argiarengatik, eta abar, baizik eta irabazien iturri moduan. Hau kontrolatzeko erlojua asmatuko da, zeinetara gizarte guztia egokituko den eta hortaz, gainontzeko guztiaren bizi eta lan denborak kondizionatuko ditu. Garai honetan, lehen etxeetan eta etxeetarako egiten zen produkzio horren zati handi bat merkatuetan egitera pasatuko da eta hau da lana kontsideratuko dena. Nahiz eta etxeetan eta familietan produkzio garrantzitsua egiten jarraitu, honek lan kategoria galduko du.

Landa eremuan, nekazal eremuaren maskulinizazio bat emango da, hau da, merkatua hauengatik interesatzen hastean, gizonen eskuetara soilik pasatuko dira, emakumeak behin eta berriro alboratuz eta etxeetara mugatuz (García Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra;

Villarino Perez, 1994:15). Horrela, landa eremuan ere geroz eta nabarmenagoa egingo da erreproduzioaren (etxean) eta produkzioaren (merkatuan) arteko dikotomia.

Beti egon da erreproduzioa produkzioaren menpe, baina zergatik? Logika handiagoa dauka produkzioa erreproduzioaren menpe egotea, bigarrenagoa gabe oso zaila baita lehenengo aurrera eramatea. Baina historikoki beti alderantziz izan da.

Honetaz gain, aipatutako autokontsumo familia hauetan, bien arteko muga hain lausotuta egoteagatik, uste izan da ez zegoela diskriminaziorik. Esan bezala ez zegoen markatua zer zen produkzio materiala eta zer erreproduzioa eta horrek ustezko parekidetasun batetan pentsatzera eraman ditu asko.

Aztergai dudan gizartea, iraupen lanetan aritzen zela esan daiteke, hau da, landa eremuetan familiaren baitan ematen zen produkzioaren bi heren baino gehiago beren kontsumo propioarako izaten zen (George, 1982:201). Beren etxeko lana eta zelaiko lana, biak familia mantentzera zeuden bideratuta eta ez merkatura, horregatik, pentsatu dezakegu lana denaren artean binomio handiegirik topatuko ez dugula eta sexuen arteko banaketak beharbada zehaztugabeak izango direla. Hau ikerketaren gorputzean ikusiko dugu.

Ikerketei dagokionez, esan bezala oso argi dago produkzioa nola aztertu, beti hau izan baita aztertutakoa, baina lan honetan erreproduzioa ere aztertzeko Durán-ek proposatutako klasifikazio hau erabiliko dut: (...) *las tareas del trabajo doméstico pueden clasificarse en cuatro grandes grupos: tareas de reproducción, tareas de ejecución (manipulación de objetos para aumentar su utilidad: limpieza, alimentación, vestido, etc.), tareas de gestión y tareas de socialización y atención afectiva* (Durán, 1986:51).

Eskola ezberdinek kategoria ezberdinak erabili izan dituzte gizartearen analisi sozioekonomikoa egiteko: sistema ekonomikoak, produkzio moduak, kapitalismoaren edo industrializazioaren garapen mailak, eta abar. Baina giza erreproduzioa ez da inoiz erabili ikerketa hauek egiteko, horrela, jardueren parte handi bat eta hauek egiten dituzten pertsonak alboratuz (Carrasco, 2001:2). Egitekotan, askotan merkatuaren produkzioaren aurkako egin beharreko bezala hartu izan da, dikotomia bat sortuz eta hauek biak ez-bateragarriak eta nahastezinak bihurtuz, bide batez, genero bakoitza eremu batean kokatuz eta finkatuz.

Azkeneko hamarkadetan, “emakumearen lana”-ren inguruan hausnartzen hasi denean, lanaren kontzeptuaren inguruko eztabaida ere hasi da, eta baita urte hauetan ikerketetan eman den eztabaida nagusi bilakatu ere. Diziplina guztietan, hasiera batean, soldatapeko produkzioan egindakoari egiten zitzaion erreferentzia, eta 60. hamarkadatik aurrera, etxeko lana ere kontutan hartuko dute (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:17). Kontzeptuaren aldatze honek agerian utzi du teoria eta kategoria tradizionalen gabezia emakumearen lanaren

esperientzien inguruko aniztasuna eta konplexutasuna (etxeko lana, merkatuko lana eta hauen arteko artikulazioa) barnebiltzeko eta aztertzeko.

Hala ere, lan erreproduktiboaren eta produktiboaren arteko harremana oso gutxitan hartu da kontutan, biak autonomotzat aztertuz. Feministek frogatuko duten moduan hau faltsua izango da.

Erreprodukzioa, gizakien produkzioa eta mantenua delarik, eta produkzioa, baliabide materialen produkzioa delarik, bereiztezinak dira eta bata bestearen baldintza da (Frau Linares, 1998:15).

Bi azpisistema hauek, eta haien arteko harremana aldakorra izan da historian zehar, baina beti, agenteak batean edo bestean aritzea, sexuarengatik markatuta egon da. Hau da, erreprodukziorako emakumeak eta produkziorako gizonetzkoak.

Esan bezala, lana ikertzerakoan merkatua eta bertako jarduerak aztertzen ziren, eta etxeko esparrua, besteak beste, ez zen ikertzen, kontzeptu honetatik kanpo geratzen baitzen. Baina 60. hamarkadan, ordea, etxeko lana analisi objektu espezifikoak bihurtuko da.

Garai honetan ere, emakumeak merkatuko lanpostuetan nabarmenki aritzen hasiko dira, nahiz eta jakin badakigu, aspalditik zeudela emakumeak horrelako lanetan explotatuta; eta gizartearen onartuago egonen da emakumeek etxetik kanpo aritzea. Honek merkatuan bertan eta merkatutik kanpo ematen den lanaren sexuen arteko banaketa guztiz azaleratuko du eta honen inguruan hitz egiten hasiko dira. Aurrerago, 70. hamarkadan, eztabaida teoriko feministak bi iritzi ezberdin izango ditu lanaren banaketa sexualaren eta emakume eta gizonen arteko botere harremanen inguruan. Alde batetik, marxismo edota sozialismoan oinarritutako feministek kapitalismoaren beharren arabera justifikatuko dituzte diskriminazioak. Bestetik, feminista radikalek patriarkatuari egotziko diote ardura (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:50).

Honekin guztiarekin hasiko da lana kontzeptuaren birdefinizioa eta hau aztertzeko ikuspegi, tresna eta analisi kategoria ezberdinak ere sortuko dira. Beraz, lana jada ez da soilik merkatuko soldatapeko produkzioa izango, ordaindu gabeko lana ere izango da ikerlari askorentzat.

Geroztik, gaur egun, lana aztertzeko modu asko erabiltzen dira, bai kualitatiboak eta batez ere kuantitatiboak direnak, soldadari dagokionez adibidez. Baina guri gehien interesatzen zaizkigunak *Encuestas de usos del tiempo* dira. Hauen arabera ikus baitaiteke pertsona bakoitzak zertan ematen duen denbora, eta hau ere generoa kontutan hartuz egiten da. Horrela, 5 kategoria handi banatzen dira denboraren erabilera neurtzeko: behar pertsonalei egotzitako denbora, merkatuko lanean ematen den denbora, etxeko lanetako, parte hartze herritarrari eskainitakoa eta aisialdikoa (Carrasco, 2001:14).

Banaketa honen arabera etxeko lan eta merkatuko lanaren arteko banaketa bat dago, baina biak "lana" deitzen dira. Behintzat, banaketa hau, denborari dagokionean batzuen eta besteen arteko desberdintasunak hautematen laguntzen du.

Hala ere, dakigunez, ikerketa gehienek ez dute genero ikuspegia kontutan hartzen eta beraz, lanaren kontzeptuari dagokionez, oraindik ere produkzio esparrura mugatua egoten da.

Las estadísticas nacionales e internacionales subestiman la contribución de la mujer a la producción porque parte de una definición restrictiva de trabajo. Esto viene agravado, en el sector agrario, por el hecho de que las mujeres producen más bienes y servicios para el hogar que las mujeres de hogares no agrarios, y en este sentido, hacen una aportación especialmente significativa a la supervivencia de la explotación familiar agraria (García Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Perez, 1994:161).

Espainian egiten diren ikerketa gehienak ere horrelakoak dira eta beraz, landa eremuko emakumeen lana "laguntza familiarra" mugatua gelditu izan da, gutxietsia.

Honetaz gain, esan beharra dago, gehienetan, testuinguru edo gizarte kolektibo baten lanaren inguruko bibliografia asko egon arren, hau asexuatua dela (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:518). Hau da, sexua edo generoa aipatzen ez diren ikerketak dira, esan gabe, soilik ikuspuntu eta bizipen maskulinoak deskribatzen dituztenak. Ikerketa androzentrikoak finean.

Landa eremuaren kasuan, feminismoa ez da berandurarte gizarte hauetan inplikatu. Eta gaur egun oraindik ere asko dago egiteko:

No se ha hecho todavía, una reflexión lo suficientemente extensa sobre la particular forma en que a las mujeres rurales les es impuesta su condición "reproductiva" (desde instancias políticas, sindicales y académicas) sin que hubiesen abandonado de hecho las tareas de la producción (...) (Sampedro, 1996:27).

Honek hainbat arrazoi ditu atzetik:

Alde batetik, hirietako krisia heldu ez den arte eta mugikortasun geografiko eta gizarte aurre-industrialen espazioaren erabilera gauzatu ez den arte, landa eremua zonalde baztertu bat bezala hartu izan da. Modu honetan, urbanitateak absorbitu beharreko zonaldeetat hartua izan da urteetan, desagertzera kondenatuta dagoen atzeratutako zonaldea. Horregatik, sekula ez zaio atentzio handirik jarri (Sampedro, 1996:64).

Bestetik, antzinako bizimodua kapitalismoarengatik eraginda agertu ez den bitartean, oso zaila izan da jarduerak esparru erreproduktibo edo produktiboan kokatzeko eta beraz, hauek banatzeko. Hau horrela izanda, lehen esandako berdintasun ideala zegoela sinetsi izan da (Sampedro, 1996:27).

Ilido honetan, mugimendu feministak, orokorrean, dikotomia hori (erreproduktzioa-produktzioa, lana-familia, eta abar) zalantzan jartzen ibili da etengabe, analisi kategorialak hauei uko egin

gabe. Hauek, ordea, ikerketa honetako landa eremuko emakumearen errealitatetik nahiko urrun dauden kategoriak dira. Emakume hauen espazio soziala bakarra da eta bertan produktiboaren eta erreproduktiboaren mugak ez dira apenas hautematen, askotan bidegabeak izanik (Sampedro, 1996:64).

Laburbilduz, esan dezakegu, lanaren gaiaren inguruan egiten diren lan gehienek, orokorrean, sektore industrialarekiko dauden produkzio harremanetan zentratzen direla: langabezia, landa eremuen exodoa, eta abar.

Baina kasu honetan lanaren gaia bestelako ikuspuntu batetik tratatuko dut: industriguneetatik aldendua zegoen Erronkari Ibarrean, bizimoduaren antolakuntza tradizionalago horretan, lanaren inguruko bizipenak nolakoak ziren aztertuko baitut.

Lana eta Generoa

Antropologo batzuen iritziz menperatze maskulinoa gizarteen hasieratik existitzen da. Hau da, gizarteen sorreran emakumeen menpekotasuna zegoen, Sherry Ortner-ek adibidez, natura kulturarekiko den moduan emakumea gizonarekiko dela esaten du, berez desbalarizatutakoak dira (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:259).

Honetaz gain, antropologo gehienek bat egiten dute patriarkatua kapitalismoaren aurretik existitu izan zela esaterakoan, honen sorreraren inguruan, ordea, ez datoz bat (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:262).

Rosario Sampedro-ren arabera, patriarkatua betidanik existitu izan da eta generoaren araberako lanaren banaketa honen adierazle nagusietako bat dela dio. Gizarte aurre-industrialetan, gizon eta emakumeen zereginak debeku sistema baten menpe zeuden; hala nola, emakumeak ez ziren artzainak, ez ziren arrantzatzerak joaten, ez zituzten zuhaitzak botatzen, lehengaiekin eta produktuen amaierarekin lotuta zeuden, eta abar; gizonak, ordea, ez zituzten abereak zaintzen, ez zihoazen merkatura, ez ziren artisautzan aritzen, lan espezializatuak zituzten, eta abar.

Horrela ere, batzuk eta besteak familiaren egituraren autoritate posizio ezberdinak zituzten, eta kapitalismoa honetaz baliatu zen bere garapenerako (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:266).

Landa eremuan, emakumeak, batez ere etxe inguruan geratu izan dira, hori izan delako bere benetako arduraren esparrua.

XX. mendean landa eremuko biztanleria nabarmenki jeitsi zen: *Inmediatamente después de la guerra civil, los actios agrarios representaban mas de la mitad de los activos totales, en 1980 eran solo el 17.4%* (García Ramon; Tulla i Pujol; Valdovinos Perdices, 1995:124). Pixkanaka landa eremua industrializatuz joan zen eta gizonak egindako lanak hartu zuten garrantzia,

emakumea guztiz etxera mugatuz, nahiz eta argi dagoen lanetan parte hartze aktiboa zuela eta duela gaur egun ere: *el 62.6% del total de las mujeres activas en la agricultura son clasificadas bajo este borroso epígrafe de “ayuda familiar”, algo que ocurre solamente a un 24.8% de los hombres activos en el sector* (García Ramon; Tulla i Pujol; Valdovinos Perdices, 1995:125).

Merkatuko ekonomia garatu eta finkatu zenean, banaketa hauek zentzua galdu zuten eta horregatik, oraingoan, banaketa produkzio eta erreprodukzioaren artean ematen hasi zen (Sampedro, 1999:17). Horrela, gaur egun arte irauten duen ideia sortzen hasiko da: emakumeak “bigarren mailako” langileak dira produkzioan aritzeko gizonezkoek baino indar, denbora eta baliabide gutxiago dituztelako, erreprodukzioan ere aritzen baitira. Emakumeak bi zapalkuntza jasango dituzte beraz, kapitalismoarena eta familiarena.

Hau horrela izanda, industriaren antolaketa kapitalistak, lana etxetik bereiztean, emakumeen menpekotasuna areagotu edo nabarmendu zuen hauek etxeetara mugatuz eta gizonezkoek okupatutako eremuari garrantzi handiena emanez (Borderías; Carrasco; Alemany, 1994:269).

Ikerketa honetan beraz, erreprodukzio-produkzio dikotomian ez erortzen saiatuko gara, nahiz eta askotan kontzeptu hauek erabili beharko ditugun generoen arteko desigualdade hori adierazteko. Lana oinarritzko biziraupena bermatzeko egiten den jarduera produktibo orori deituko diogu, erreprodukzioa ere pertsonen produkzioa dela ulertuta.

5.5.2. Astia, aisia eta denbora propioa.

Behin eta berriro erreprikatzen ari garen moduan, denbora hainbat zatitan banatu ditzakegu eta gure denboren erabilerean sailkapen bat egin. Aurretik sailkapen arruntenean aipatu dut eta horrelakoa da: beharrezko jarduerak (elikadura, garbiketa, deskantsatzea, eta abar), derrigorrezko jarduerak (lana) eta denbora libre (batetik, “baldintzatutako” jarduerak: familia, erosketak, zaintza eta abar, eta bestetik, askatutako denbora, zeinan pertsona askea den).

Baina denbora eta askatasunaren arteko harremanak oso ezberdinak izan daitezke pertsonentzako. Hau da, zer da askatasuna? Noizbait inguratzen guztiaz libre garela esan dezakegu? Edo beti dago baldintzatzailearen bat?

Bakoitzaren denboraren antolaketaren eta norberak duen honen pertzepzioaren arabera denbora libre gauza bat edo beste izango da; *según su concepción de la existencia de la sociedad, y , de manera más íntima, según las disposiciones y recursos de su ser singular* (Leif, 1991:17).

Gainera, norberaren denbora indibidualizatu hori, zeinaren bitartez norberaren bizitza guztia eraikitzen den, existitzen da pertsona bakoitza gizartean duen rolagatik eta gizarte horrek duen antolaketagatik. Hau da, norberak bizi duen denbora, besteen denbora ere bada (Leif, 1991:19). Hortaz, etengabean dago kondizionatua eta inguruarengandik eraginda.

Hala ere, aisialdia, astialdia edo denbora propioa beti harremanatu izan dira indibiduoaren askatasunarekin.

(...) libertad individual de escoger las formas de actividad que mantienen y refuerzan incluso el sentimiento, la voluntad y la razón de cada uno para determinarse por sí mismo. Lo cual supone, en principio, disponer de un tiempo que, por una parte, libera de las restricciones y obligaciones impuestas desde el exterior por cualquier trabajo, y, por otra, que abra la posibilidad de una elección libre de las actividades propias, con independencia de determinismos externos que la condicionen y que entorpezcan, siembren el tiempo libre de obstáculos a menudo insuperables, o de dificultades persistentes, sin una preparación o formación capaces de vencerlas o, al menos, de tomar clara conciencia de ellas (Leif, 1991:33).

Aisialdiaz hitz egiten denean, gehiengoak, ezaugarri ludiko eta asebetetze pertsonala eragiten duten jardueren inguruan aritzen gara. Aisialdiko jarduerak norberaren interesen, nahien eta gustuen arabera erabakitzen ditugu, eta batez ere hauen bitartez norberaren definizioa sortzen goaz.

Hala ere, gero, egunerokotasunean, ez diegu aisialdiko jarduerari duten garrantzia ematen. Hau da, gure egunerokotasunaz aritzen garenean, laneko kontuetaz, familiarekiko zaintzetaz edota bestelako betebeharrak aritzen gara, eta ez aisialdiaz. Beharbada zeozer abstraktua izaten delako eta bakoitzarentzat oso ezberdina.

Bestalde, denboraren kontzeptualizazioa oso garrantzitsua da aisialdia zer den ongi ulertzeko. Baina, aisialdiaren kontzeptua gizarte eta momentu historikoen arabera aldatzen dihoa. Baita norberaren bizitzan adinaren arabera ere.

Horregatik, hiru aldagaien arabera definitu daiteke aisialdia: denbora, jarduera eta esperientzia subjektiboa (Henry, 2001; Morales eta Bravo, 2006 kapituluan). Denborari dagokionez, aisialdia edo astialdia lanaren kontrakotzat hartzen da. Batzuentzat, aisialdia, lanarekiko konplementarioa eta konpentsatzailea izaten da. Baina hori baino konplexuagoa ere bada, hau da, ez da soilik lanik ez egitea. Bestalde, aisialdia ere jarduera multzotzat hartu daiteke. Eta bukatzeko, beste batzuentzat, askatasunaren esperientzia subjektiboa da, zeina idealismoz beteta dagoen.

Esan bezala, aisialdia zirkunstantzia historikoen eta momentuaren ideologiaren araberakoa izango da. Hortaz, gaur egun ezagutzen dugun aisia ez da ikertutako emakumeen aisia bezalakoa, beraz, ikerketa honetan funtzionatzeko, gu esperientzia subjektiboaren aldagaia

erabiliko dut, hau da, norberaren arabera denbora askea zer den kontutan hartuko dut. Hau aukeratzeko arrazoa oso sinplea da, alde batetik, esan bezala landa eremuetan lana zen eguneko jarduera eta dena honen inguruan ematen zen, beraz, ez dut uste lanarekiko dikotomikoa den ezer topatuko dudarik. Bestalde, jardueri dagokionez, konplikatuegia iruditzen zaigu ez baitakigu emakume hauek "aisialdi jarduera" zehatzik izango dituzten edo ez. Hortaz, hoberena iruditu zaidana, haiek beraiek izatea euren askatasunez aukeratutako esperientziak definitzea eta hauek hartuko ditut aisialditzat.

Hala ere, aisialdia, astialdia eta denbora propioa kontzeptuen errepaso bat egitea komenigarria iruditzen zaigu.

Gaur egun, aisialdia definitzea zaila da, baina hiru gauza hauek izan behar dira kontutan (Morales eta Bravo, 2006:133):

1. Pertsona askea da aukeratzeko eta hautabide ezberdinen artean aukeratu dezake.
2. Aisialdiko jarduera bat plazerraz bizi behar da eta horregatik, jarduera berdina kontsiderazio ezberdina izan dezake persona ezberdinentzat.
3. Norberaren nahiengatik erabakia da eta hori da helburua, hau da, ez dago helburu produktibo edo instrumentalik.

Jaume Trillak eta Josep Maria Puig Rovirak horrela definitu dute:

(...) entendemos que el ocio requiere, en primer lugar, disponer de un tiempo no ocupado por el trabajo o por cualquier otra obligación. En segundo lugar, el ocio supone que durante este tiempo libre el individuo actúa con plena autonomía y obtiene un placer personal de su actividad. (...) un tercer elemento, no referimos a las actividades que libremente realiza un individuo durante su tiempo libre (1996:51-59).

Bestalde, Joffre Dumazeider-ek horrela definitu zuen aisialdia 60. hamarkadan:

El ocio es un conjunto de ocupaciones a las que el individuo puede dedicarse voluntariamente, sea para descansar o para divertirse, o para desarrollar su información o su formación desinteresada, su voluntaria participación social o su libre capacidad creadora, cuando se ha liberado de sus obligaciones profesionales, familiares y sociales (1964:30-31).

Beranduago, Josep Valls-ek honakoa gaineratuko du:

(...) podemos conceptualizar el ocio como un bien de primera necesidad, que, en la era tecnológica, ocupa no sólo el tiempo libre sino que se convierte en un estilo de vida que condiciona también la cotidianeidad, se identifica con la búsqueda de la libertad y la felicidad, a través de un viaje o sin él, que sustituye al trabajo como referente social, en cuyo proceso de satisfacción se mezclan otras actividades económicas, estando ligado mayoritariamente a la sociedad de consumo" (Valls, 1999; Observatorio Ocupacional, 2001 liburuan).

Definizio guzti hauetaz gain, historian zehar aisialdiaren hainbat definizio ere izan ditugu, eta gehienak aisialdia oso garrantzitsutzat izan dute, janztearen eta elikatzearen parekoa. Gainera, orokorrean, definizio gehienek aisialdia lanarekiko dikotomikotzat hartu izan dute (Dumazeider, 1964).

Bukatzeko, aisialdiari dagokionez, kontutan hartuko ditudan hiru funtzio aipatuko ditut: Batetik, aisialdia atsedean funtzioa dauka, bestetik, ongi pasatzeko funtzioa dauka (ez aspertzea) eta bukatzeko, garapen pertsonalean ere laguntzen du eguneroko ekintzetaz eta automatismoetaz askatzen gaituelako parte hartze soziala bultzatuz (Dumazeider, 1964:29).

Aisialdia, denbora librearekin lotuko dut, nahiz eta badakigun bata eta bestea ez direla gauza bera. Denbora libre edo astia, aisialdia emateko beharrezko kondizioa da, baina ez nahikoa. Hau da, astialdi horretan, aisialdia edo bestelako gauzak garatu daitezke eta hau ematen da norbera denbora libre horretan atsedean hartzeko, dibertitzeko edota pertsonalki garatzeko jarduerak egitea erabakitzen eta hauek kudeatzen dituenean (Trilla eta Puig Rovira, 1996:20).

Hortaz, pertsona batzuek astialditzat hartu dezakete lanetik kanpo duten denbora guztia (kontutan hartuta ere lanaren inguruko kontzeptualizazioak oso anitzak izan daitezkeela), beste batzuentzat, lana eta betebeharrak familiarretatik at geratzen den denbora izan daiteke; eta bukatzeko, eginbehar politiko edo espiritualak ere astialditik at uzten dituzten pertsonak topatu ditzazkegu (Trilla eta Puig Rovira, 1996:49).

Beraz, denbora libre ez da inoiz denbora libre, sikiera, aisialdia deituriko jardueretaz okupatuta baitago. Baina hau beste momentu batetarako hausnarketa litzateke.

Lehenengo definizioei helduz, astialdia okupazioaren kontrakoa izanik, zer gertatzen da orduan soldatapeko lanik ez duen jendearekin edo denbora “okupatua” ez duten pertsonekin? Ez al dute hauek astialdirik? Ikus dezakegunez oso kontzeptu subjektiboekin aritzen gara.

El concepto de ocio y tiempo libre tiene un carácter plural, acomodándose su significado al interlocutor que lo intenta definir. De hecho, el concepto de ocio y tiempo libre se encuentra sustentado en la vivencia subjetiva de cada persona, pudiendo interpretarse a través de diferentes manifestaciones (cultura, deporte, aire libre, bienestar personal, etc.), todas ellas válidas dentro del marco contextual que define el ocio (Observatorio ocupacional, 2001:28).

Horregatik guztiagatik, ikerketa honi dagokionez, denbora libre edo astialdia pertsonen subsistentziarako beharrezkoak diren lan edo jardueretatik kanpo geratzen den denbora horri deituko diot. Horrela ulertzen dut, behin norberaren eta ingurukoaren (batez ere emakumeen kasuan) biziraupena ziurtatzeko jarduerak eginda (erreproduktiboak eta produktiboak puntu baterarte, (onarrizko beharrak asetzekoa)) soberan geratzen den denbora hori litzatekeela astia. Jarduera hauetatik kanpo egiten den beste guztia nolabait “libreki” aukeratutakoa dela

ulertuta, baina kontutan hartuta ere, pertsonen beharrak ere oso subjektiboak izan daitezkeela.

Aisialdia berriz, norberak aukeratutako esperientzia subjektiboak izango dira, zeinen bitartez atsedena, dibertsioa edo garapen pertsonala bultzatuko den.

Honi guztiari aukeratutako azken kontzeptua gehitu behar diogu, denbora propioa ere astialdi eta aisialdiarekin lotzen baitugu. Hiru kontzeptu hauen arteko harremana oso anbigua da (Leif, 1991:32).

Tener tiempo para uno mismo no consiste en estar a disposición del tiempo, sino en disponer uno mismo de su tiempo sin restricciones impuestas desde el exterior (Leif, 1991:41). Definizio honek antza handia dauka orain arte denbora librearen inguruan egin dudanarekin, azken finean, denbora librea duzunean denbora propioa ere izaten ari zara.

Positivamente, el tiempo para uno mismo y por sí mismo (el tiempo realmente libre) es el tiempo dominado, utilizado, vivido por decisión reflexionada individualmente y por la voluntad personal de dominar los objetos libremente escogidos, para llenar un tiempo sustancial que no se pierde en el vacío (Leif, 1991:41).

Beraz, aurreko “denbora”-ren inguruko atalean azaldu bezala, denbora propioa norberarengan arduratzea edota denboraren erabilera propioa edo indibiduala egitea litzateke. Hori bai, argi geratu behar zaigu denbora propioa eta pribatua ez dela gauza bera.

Ikerlan honetan hiru kontzeptu hauek hemen azaldu bezala erabiliko ditut eta behin emakume hauen bizitza ezagututa, eurek denbora ezberdin hauetaz gozatzeko aukera zuten edo ez aztertu ahalko dut. Esan bezala, badakigu kontzeptu hauek subjektiboak direla. Aisialdiari dagokionez, adibidez, autoreen arabera bi joera bereiztu ditzazkegu: alde batetik, aisiak dituen jarduera espezifikoa eta propioak daudenak ditugu. Bestetik, aisiaren ikuspegi subjektibo bat aurreuposatuz, edozein jarduera, lana barne, aisialditzat hartu daitekeela uste duten autoreak ditugu; beti kontutan izanda jarduera hori zein jarrerarekin bizitzen den (Trilla eta Puig Rovira, 1996:50). Ikerketa honetan bigarren honi jarraituko diogu.

Informazio emaileak izango dira denbora librea, propioa edo aisialdiaren kontzeptuak markatuko dituztenak. Bakoitzaren bizipenaren arabera erabakiko da denbora hauek izan zituzten edo ez.

Garrantzitsua baldin bada denboraz egiten dugun erabilera, banaketa, gizarte-proiektzioa, era berean egia da, norberaren proiektzioa ere kontutan hartu behar dela denboraren erabileran (nork burutzen du ekintza? Nola? Zertarako? Zelan baloratzen du? Gustura dago? Nola bizi du? Nola burutzen du?). Zein puntutaraino autonomía eta

askatasuna agertzen da besteen bitartez disfrutatzen denean? (Emaisía Elkarte, 2004:38).

Ikerketak

Astialdia, aisialdia edo denbora propioa ikertu izan direnean, gehienetan neurgailu androzentrikoak erabili izan dira. Ondorioz, hor ditugu aisialdi aktibo (diruarekin lotuta, eta gizonen ezaugarri eta baloreak dituen) eta pasiboaren (irakurtzea, jostea, hitz egitea, eta abar) arteko mugak eta balorazioak, aktiboa pasiboaren gainetik kokatuz (Emaisía Elkarte, 2004:39).

Asialdia teorikoki bi kontzepturen bidez definitzen da: integrala dela eta baita interdiziplinarioa ere. Horregatik, esparru ezberdinetan modu integratu batean ematen den fenómeno bat dela kontutan hartu behar da ikertzerakoan (Observatorio ocupacional, 2001:20).

Horregatik, astialdian, aisialdian edo denbora propioan egiten diren jarduerak bizitza kalitatearen adierazleak izan daitezke. Ikerketak behatzean, emakumeen inguruko datuak ikustean, objektiboki, gizonezkoenak baina okerragoak dira. Baina hau gertatzen da datuak ez direlako kualitatiboki aztertzen eta hori eginez gero, beharbada, emakumeak gizonezkoak baino satisfakzio handiagoa dutela ikusi ahalko dugu (Emaisía Elkarte, 2004:39). Honekin ez dut esan nahi hobeto bizi direnik, baizik eta pertzepzioari dagokionez oso ezberdinak direla hauek eta hori ere kontutan hartu behar dela, batez ere, diskriminatutako kolektiboak ikertzean.

Ikusi den bezala, gizarte honetan, badirudi beti izan dela posible ezinbesteko jarduera (lana) eta edozertarako balio digun denboraren (denbora libre edo aisialdia) artean bereiztea. Baina hori ez da beti horrela izan, garai, herri eta talde sozialen arabera hau oso aldakorra izan baita. Hori bai, beti ere bizi kalitatea hobetu nahian aritu izan dira pertsonak, bai atsedenen eta dibertitzearen denbora handituz edota lanaren denbora handituz (Trilla eta Puig Rovira, 1996:27).

(...) en el hombre ocioso de la ciudad antigua quehacer y goce se daban siempre juntos. En el hombre de la ciudad moderna el quehacer se hace "trabajo" y el goce, "diversión" (...) El hombre ahora comienza a ir del trabajo a la diversión para volver de la diversión al trabajo, sin pasar nunca por la fiesta y el ocio. (Aranguren, J.L.; Cuenca Cabeza, 2008 liburuan)

Etengabean esaten ari garen bezala, garai batean, ekonomiaren helburua biziraupena zenean, familietan ekoizten zena bertan kontsumitzen zen eta ugalketa ere haien esku geratzen zen. Hortaz, euren egunerokotasuna lana zelarik, astia, aisia edo denbora propioa bezalako kontzeptuek, gaur egungo zentzuarekin ez zuten kabidarik.

Hona hemen landa eremuaren inguruan Luis Antonio Ribot Garcia eta Luigi De Rosa-
k idatzitakoa:

Todo reposo no conducente a la renovación de energías o al cumplimiento de deberes rituales, de tipo comunitario, constituía para los rústicos una pérdida de tiempo, algo para ellos inadmisibile, por las condiciones materiales en que se desenvolvía su existencia y porque sabían que el ocio socialmente admitido era privilegio de una minoría, la única que estaba en disposición de "matar el tiempo" (2001:115).

Lanaldia eta astialdia bereiztea, industrializazioak sortutako fenomenoetako bat izan zen. *Ordutegia eta laneko egutegiak langilearen bi bizitzen artean erritmo eta txandakatzeko desberdinak markatzen ditu* (Emaisia Elkarte, 2004:16): lanean dagoen bitarteko denbora eta hemendik kanpo astialdiak markatzen duena. Beraz, lana astialdia izateko balditza bat izango da, guztiz inbertsonala den lan baten saria.

Gaur egun, beraz, gure astialdia, aisialdia eta denbora propioa kapitalismoak eta patriarkatuak (hurrengo atalean ikusiko den moduan) markatzen ditu. Hortaz, nire helburua da, bestelako gizarte mota hura aztertuz, gaur egungo egoerari ere aportazio bat egitea; ikusteko zein puntutaraino galdu izan den gure gaur egungo aisialdiari zentzua emateko eskubidea (Pedró, 1984:68-81).

Aisia eta Generoa

Las diferencias de género colocan a las mujeres en situación de desventaja en relación con los niveles o con el tamaño de los obstáculos que dificultan su participación en el ocio. Por un lado están las barreras objetivas o externas, las limitaciones de tiempo, económicas, falta de oportunidad y de otros recursos (...) Las barreras subjetivas son otros importantes obstáculos para el ejercicio del ocio de las mujeres. La ética del cuidado, que impele a responder a las necesidades del otro... gran parte de las mujeres da prioridad a las necesidades de ocio de los demás miembros de la familia (Stein, 2000; Emaisia Elkarte, 2004:21 liburuan).

Emakumeen astia, aisia edo denbora propioa, *bere ikuskeran, erabileran, balioan, bizipenean, proiektzioan eta bizirik irautean* (Emaisia Elkarte, 2004:3), gizonenarekiko ezberdina da. Eguneroko zereginak eta rolak sexu-generoaren arabera banatuak izan dira, eta publiko-pribatu guneen agerpenarekin hau areagotu egin da. Honek guztiak norberaren denboraren banaketa eta erabileran eragina izaten du noski. Bestalde, emakumezkoek familiarekiko dituzten ardura amaigabeak direla eta oso zaila da hauek astia, aisia edota denbora propioa izatea. Gainera, hau izatekotan, generoen arteko harreman hierarkiengatik, euren aisia, ez da askatzailea izango, baizik eta menpekota eta gutxietsia, baita askotan, aurretik esan bezala, berekoi izatearen ikurtzat ere hartuko da.

Baina emakumeek, beren rolagatik, jarduera ezberdin asko egiten dituzte, eta zenbait kasutan aisialdi kontsideratu daitezkeen ekintzak egitea ere tokatzen zaie, hala nola, jostea, brikolajea, lorezaintza eta abar. Jarduera hauek, betidanik etxeko lanen barne kokatuak izan dira, baina askotan gustura, nahi izanagatik edota atsedean moduan egindako jarduerak ere badira. Hau da, ia aisia, erdi-aisia, kontsideratu daitezke (Dumazeider, 1964:115-116). Hala ere, ziur emakume guztiei ez zaiela horrelakorik egitea gustatzen edo ez diela atsedetik sortzen, kasu hauetan beraz, aisaldiaz izan zezaketen guztia galtzen dute, behartutako jarduerak diren heinean.

Industrializazioa heldu baino lehenagoko gizarteetan, emakumeen aisialdiari dagokionez, bi ezaugarri bereitu ditzazkegu. Alde batetik, espazio eta rolen banaketak existitzen direla esan daiteke, eta bestetik, honen eraginez harreman gehienak sexu-genero bereko pertsonekin ematen zutela denbora esan dezakegu (Sabeté, 1989:154). Horrela, talde bakoitzaren astialdia ezberdina bilakatuz.

Bestalde, emakume hauek deskantsatzeko edota aisialdi momentuak zituztenean, gehienetan bestelako gauzak ere egiten zituzten. Hau da, atsedean hartzera esertzean, emakume hauek, gehienetan bestelako zereginak eramaten zituzten besaulkira, hala nola, jostea. Astialdiaz gozatzeko espazioak beraz, etxea edo etxe inguruak izaten ziren.

Emakumeak, orokorrean, *zikloka bizitzeko gizarteratuta daude (...)* Ziklo hauek, genero funtzioak betetzea dute helburu, gaztaroa, amatasuna, zaintza garaia... (Emaisia Elkarte, 2004:34). Gaztaroa soilik momentu bat da emakumeen bizitzan, honen ostean ardura batzuk datoz eguneroko bizitzan eta astialdia, aisialdia eta denbora propioa garrantzia galtzen dute.

Ikerketetan murgiltzeko beraz, hainbat gauza izan behar dira kontutan astialdia, aisialdia edota denbora propioa ikertzerako orduan (Emaisia Elkarte, 2004:4).

Alde batetik, orokorrean gai hauen inguruan heltzen den edo eginda dagoen informazio gehiena ikuspegi androzentrikoekin lortutako emaitzak izan dira eta beraz, joera ideologiko eta teoriko hauek alde batera utziko ditut.

Horregatik, genero aldagaia sartzeko oso garrantzitsua izango da. Denboretaz pluralean hitz egingo dut, pertsonak anitzak direla kontutan hartuta eta lana, astia, aisia eta denbora propioaren kontzeptuak ere gainbegiratu eta birdefinitu ditut, kontutan hartuta, emakumeen ikuspegietatik ere sortu behar ditudala.

6. METODOLOGIA

Ikerketa hau aurrera eramateko 1920. hamarkadan Erronkari Ibarrean jaiotako eta bertan bizitako sei emakume elkarrizketatu ditut. Hasierako helburua egoera zibil ezberdineko emakumeak elkarrizketatzea bazen ere, soilik ezkonduetako emakumeak elkarrizketatu ditut. Esan beharra dago, Erronkari Ibarrean ezkondugabeak zirenen portzentajea oso baxua zela eta egun zaila dela hauek topatzea, gainera, aurkitutakoak ez dute hitz egin nahi izan. Bestalde, seme-alabak izan bezain laster alargun gelditu izan direnak, ez ditut topatu.

Elkarrizketak egiteaz gain, lehenik eta behin, orokorrean gizarte antropologiak eta bestelako diziplina batzuek, hala nola, soziologia eta ekonomia feminista, denboraren, eta konkretuki, lana eta aisialdiaren inguruan egindako hausnarketak behatu ditut. Bestalde, landa eremua eta generoaren inguruan idatzitako hainbat testu ere irakurri eta aztertu egin ditut.

Honetaz gain, Erronkari Ibarrearen inguruan egindako ikerlan ezberdinak behatu izan ditut, aisia eta lanaren inguruko kontzepzioen testigantza posibleak aurkitzeko. Gainera, eta kontutan izanda lan honen autorea naizen hau bertako herri batetako naizela, bertan bizitakoa, ikasitakoa eta entzundakoa ere nirekin daramatzat, testuinguruan laguntzeko.

Erabilitako teknikak kualitatiboak izan dira batez ere, elkarrizketak hain zuzen ere. Ikerketan metodologia kualitatiboa aukeratu dut, batetik, metodologia kuantitatiboek ez dutelako denboraren hainbat berezitasun kontutan hartzen. Hau da, kasu gehienetan emakumeek egiten dituzten lanak ezin dira zenbatu monetarizazioaren logikatik at gelditzen direlako. Gainera, ez zait interesatzen denbora neurtzea edota denboraren erabilpena sailkatzea, baizik eta denboraren inguruan eraikitzen diren bizipenak, diskurtsoak, eta abar. Hortaz, kasu honetarako metodo kualitatiboa hobestu dut, bilatzen nuen informazioa modu honetan zehatzagoa lortuko nuelakoan; *Mujer y agricultura en España. Género, trabajo y contexto regional* liburuan idatzi bezala (García Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez, 1995:67):

(...) la utilización de las entrevistas-conversación como método de análisis para el estudio del papel de la mujer en la agricultura viene motivada por la necesidad de obtener más información, y más cualificada. Hay que tener en cuenta que tal como señalamos, las estadísticas publicadas ocultan una buena parte de este trabajo; (...).

Behin metodologia aukeratuta, hau norengan aplikatu erabaki behar izan nuen. Hasiera batean bai emakume eta baita gizonezkoak ere elkarrizketatzeko aukera aztertu nuen. Azken finean, genero ikuspegia duen ikerketa izateak ez du esan nahi emakumeak soilik aztertu behar direnik; oso ikerketa interesgarriak ateratzen baitira gizon zein emakumeei atxikitutako genero rolen azterketa konparatiboak egiten direnean eta generoen arteko harremanak aztertzen direnean (García Ramon; Cruz Villalón; Salamaña Serra; Villarino Pérez, 1995:16).

Baina azkenean, emakumeak soilik aukeratu nituen, haiengan ikusi ahalko nuelako benetan gaur egungo denboraren inguruan pil-pilean dagoen eztabaida: bizitako, emandako eta sortutako denboren ingurukoa (Adam, 1999:27).

Behin soilik emakumeak elkarrizketatuko nituela erabakita, zelako emakume elkarrizketatuko nituen erabaki nuen. Hasiera batean, ikerketa burutzeko, honako aldagai sozial hauek izan behar nituen kontutan: sexua, maila ekonomikoa eta pertsonen egoera zibila. Baina hau betetzea ez zen posible izan, adin horietako eta buru ona duten emakume gutxi geratzen direlako. Hortaz, Ibarreko erizain baten laguntzaz Uztarroze, Izaba eta Urzainkiko emakumerik egokienak aukeratu nituen, hasiera batean jarritako baldintza guztiak betetzen saiatuz, baina azkenean egoera zibilarena ezin izan nuen bete.

Ekonomiari dagokionez, familia langileak aukeratu ditut baina esan beharra dago, hauen artean ere ezberdintasun nabarmenak topatu ditudala. Adibidez, aita edo senarra goiz hil izan diren familietan lan gehiago edo bere roletik kanpoko lanak egin behar izan dituzte emakumeek; familia handietako alaba izanda, ordea, kanpoan lan egiteko aukera izan dute eta soldata propioa irabazi ahal izan dute, eta abar.

Aukeratutako emakume gehienak (2 izan ezik) gaur egun ere herrian bizi direnak dira, bertan eman dituzte euren lana, bizimodua eta bizitza.

Lehenengoa, Maria deituriko emakumea 1929an jaio zen eta anai-arreba guztietatik (asko zirela) helduena izanik etxeaz arduratu izan da betidanik, ostera, hau jaso izan zuen oinordeko. Mendian eta etxean lan egin izan zuen ezkondu arte, familia berrian senarrak soldata sartu eta mendiko lanak gutxitu zituztelarik, batez ere etxean aritu izan zen. 36 urte zituelarik Iruñera bizitzera joan zen familia guztiarekin, senarra eta 4 seme alabekin eta baita anai pare bat eta amarekin ere. Ordutik, Uztarrozen igarotzen du Ekainetik Urrirako epea.

Maria Luisa Uztarrozekoa da ere eta 1925an jaio zen. Kide askoko familia batean jaio zelarik, etxetik kanpo zerbitzatzen ibili da bizitza guztia, hasieran herrian eta gaztaroan Bartzelonan eta Iruñean. Beranduago, oraindik zerbitzatzen zegoelarik bere anaia eta bere emaztea oso gazte hil zirelarik bere arduratu izan zen euren 7 seme-alabez. Hau ere, Uztaitetik Irailerako epealdia igarotzen du Uztarrozen.

Lucia, Izaban 1929an jaio eta bertan bizitakoa da. Familian hiru gizonezkoen soldata sartzen zelarik eta hiru hauek ere mendian lan egiten zutelarik bera etxetik kanpo lan egiteko aukera izan zuen, baita Donostian lan egin ere. Garairako berandu ezkondu zen eta bi seme izan zituen.

Florencia ere Izaban jaio zen 1920an eta 16 urteak arte bertan bizi izan zen. Hau kide anitzeko familia batetan jaio zen eta horregatik eta gazteena zelarik, Iruñera joan zen modista batzuekin ikastera, ostera bere negozio propioa irekitzeko. Hau ere, garairako berandu ezkondu zen eta lana utzi. Iruñean bizi izan zen senarrarekin hau hil zen arte eta ez zituzten seme-alabarik izan. Beranduago, berriro, bere anai-arreba guztiak hil direla, Izabara bueltatu da.

Bidankozen jaio zen Donata 1922an, baina ezkontzean Urzainkira joan zen bizitzera eta bertan dugu ordutik. Betidanik etxeko behiez arduratu izan zen etxean gizonezkorik ez zegoelako, anaiak oso gaztetxoak ziren eta aita egurrarekin egiten zuen lan. Arze-ko Bailaran ere egon zen behiekin. Bitartean, etxeko eta mendietako lanez ere arduratu izan zen. Ezkodun eta Urzainkira joan zenean, hemen ere lan horietan ibili zen. 7 seme-alaba izan zituen.

Bukatzeko, Uztarrozeko Josefa dugu, 1926 urtean jaioa. Honen aita oso goiz hil zelarik bai etxean, bai mendian, bai behiekin eta baita zerbitzatzan ere lan asko egitea tokatu zaio. Behin ezkontuta, ia urte osoa bakarrik bizi zen Uztarrozen, bere senarra artzaina zelarik, 4 seme-alabaz arduratuz (bat jaioberri hil zitzaioa eta) eta etxeko eta mendiko kontuez arduratuz. Honetaz gain, behin ezkontuta, bere ama oso gaixorik jarri zelarik eta bera helduenetarikoa eta baita emakume bakarra zelarik, 13 urtez aurreko familiari zereginak egiten ere ibili zen. Bere senarra gazte hil zen eta bera bakarrik arduratu zen familia aurrera ateratzeaz.

Ikus dezakegunez, elkarrizketatutako emakume gehienak herritik kanpo bizi izan dira denboraldi batez, eta gaur egun ere, batzuk herritik kanpo pasatzen dute urtearen tarterik handiena. Horregatik, esan beharra dut, bizitzaren pasarte hauek soilik puntualki aipatuko ditudala, hau da, emakume hauek kanpoan igarotako urteetan ez dut sakonduko, bai ordea, herrian bizitakoetan. Beste zonalde batzuetan emandako epealdiak herri hauetan, garai horretan, bizitzen ziren pertsonen ezaugarri gisa hartuko dut, baina interesatzen zaidana herrian bizitakoa izango da.

Elkarrizketa egituratzeko hasieratik gauza bat argi izan nuen, ezin nizkien denboraren inguruko galdera zuzenak egin, azken finean oso abstraktoa baita horren inguruan hitz egiten aritzea. Hortaz, beren egunerokotasuna kontatzeko nolabaiteko *egunkaria* egiten saiatzeko apostua egin nuen. Honen bitartez, beren bizitzen ideia orokor bat egin dezakegu eta, nahiz eta osterako analisisa zailagoa izan daitekeen. Beraz, *diario abierto* (Durán, 2009:68) deritzona erabiltzea erabaki nuen, elkarrizketaren zati baterako behintzat. Horrela, elkarrizketatuen adina kontutan izanda, askeago sentitu ahal dira, agobiatu gabe.

Hau horrela izanda, elkarrizketaren lehenengo zatian emakume hauen bizi epe ezberdinetan egun batez egiten zutenaz galdetu izan diet, baita urtaroak kontutan hartuta ere. Ostera jai edo espazio zehatzetako eginbeharren inguruan galdetu diet (familia, eliza, herriko jaiak, jai familiarak, eta abar) eta bukatzeko, euren bizitzen inguruan informazio gehiago aportatu zezaketen bestelako galderak egin dizkiet, hala nola, guda eta II. Errepublika edo Frankismoaren eraginen ingurukoak, garbiketa eta higiena, osasuna, eta abar.

Honen bitartez, honako gai hauek landu ditut: emakume hauen lanaldiak, bai zelaia eta baita etxean; asteroko eta urtaroen arabera egun ezberdinak; emakumeen zeresanak, ardurak eta erabakitze boterea etxean edo familian; astia, aisia eta denbora propioa, eta abar. (gidoia eranskinetan).

Erabilitako metodologiarekin oso ongi sentitu naiz orokorrean. Hasieran dokumentazioa bilatzean zenbaitetan astunegia egin izan zait, baina jakin min handia sortzen zidan irakurtzen nuen edozerk eta horregatik irakurtzeaz noiz gelditu erabakitzea ere kostatu egin zait.

Elkarrizketei dagokionez, hauek egiten joan naizen ahala erosoago sentitzen joan naiz. Egia esan, hasiera batean konfiantza handiarekin joan nintzen eta pentsatu baina zailago iruditu zitzaidan lekuan-lekuko lana. Baina, esan bezala, azkeneko elkarrizketatan gusturago eta erosoago sentitu naiz eta hauekin jarraitzeko gogoekin ere gelditu naiz.

Bestalde, batzuetan nahiko errepikakorrak ere egin zaizkit, oso gutxi sartzen baitziren detaileetan emakume hauek: *como ya te habrá contado todas hacemos lo mismo!* esanez, kontu orokorrez aritzen ziren batez ere.

Galdetegiarekin asmatu dudala uste dut, batez ere ideia orokor bat ateratzeko balio izan didalako eta zenbait pasarte interesgarri ere lortu ditudalako. Baina esan bezala, detaileetan oso gutxi sartzea lortu dut orokorrean eta galdetegiaren egiturak ere zerikusia izan zezakeela kontutan hartuta, hau pixka bat moldatzen joan naiz elkarrizketak egiten nituen ahala, eta hobekuntzak nabaritu ditut horretan.

Zenbaitetan, beste emakume batzuek esaten zidaten gauzei erreferentzia egin izan diet eta oso erantzun ezberdinak topatu izan ditut, pixka bat deskonzertanteak eta, kasuren batean kontraesankorrak, iruditzen zitzaizkidalako. Hau, analisisian aipatuko dut zehatzago.

Hala ere, oso zaila egin zait nirea ez zen garai batetako bizimodua ulertzea, hau da, nahiz eta bibliografia anitz irakurrita eta landuta nuen, zenbait kasutan zaila egin zait kontatzen zidatena barneratzea. Ulertze nahi horretan galdera gehiago egin izan dizkiet gaiaren inguruan eta eurek batzuetan galdera berdina izango balitz bezala berriz ere harrিতuta gauza berdina erantzuten zidaten. Horregatik, batzuetan agobiatzen nituelaren sentsazioa izan dut.

Elkarrizketatutako pertsoneri dagokionez, emakume hauekin aritzea zaila dela ere ikusi ahal izan dut, haria oso erraz galtzen dutelako eta askotan, ni hemengoa naizelarik parenteskoetaz eta baita biontzat ezagunak diren pertsonen hitz egitera pasatu izan direlako; pertsona bat beste batekin lotuz azkenean nik ezagutzen nuen norbaitengana heldu arte izenak esaten pasatu ditzakete minutuak. Hitz egiteko beharra ere badutela iruditu zait, maiz, egungo euren gauzez aritzera pasatu izan direlako.

Gehienek argazkiak eta etxea erakutsi dizkidate, horrela beren narrazioa osatuz.

Gaiei dagokionez, penatutako gauzei edo bakoitzaren bizitzaren ebaluazio bat eskatzen nielarik, denek konformitatea erakutsi dute, *egin beharrekoak egin izan dituztelako eta kexatu gabe*. Bestalde, elkarrizketa guztietan errepikatu izan den gai bat izan da, beren eta inguruko biziaren azkeneko momentu hauetan pasatutako gaixotasunak edo medikuari bisitak.

Orokorrean, oso atseginak izan dira elkarrizketak. Baina bitan beste norbaitekin egon behar izan naiz. Hala nola, Maria Pilarrekin bere familiako kide batzuk egon ziren aurrean eta noizbehinka elkarrizketan parte hartu izan zuten, horregatik informazio gutxi aterako dut honetatik. Beste batean, ordea, elkarrizketatutakoak aukeratzen lagundu zidan erizaina egon zen bertan ere, baina elkarrizketan parte hartu gabe. Hau nahitaezkoa izan zen, bestela emakumea ez baitzen segurua sentitzen; hain da horrela, grabagailuarekin arazoak izan nituela azkeneko honekin. Nahiz eta modu ezberdinetan azaldu zertarako erabiliko nuen grabatutakoa, ez zen fidatzen. Hirugarrengo elkarrizketa bat iloba batek moztu zigun, baina gero arazorik gabe jarraitu nuen. Beste denak, elkarrizketatua eta ni egon izan gara inoren presentzia eta agerpenik gabe.

Oso esperientzia polita iruditu zait elkarrizketak egitea eta egiten jarraituko nuke, gauza gehiago deskubritzen noan heinean gehiago liluratzen bainau emakume hauek eskaintzeko duten esperientzia. Gainera, elkarrizketak egin ahala geroz eta erosoago sentitzen nintzela ikusita, hobetzekorik dagoela ere uste dut.

Behin elkarrizketak burututa, hauek aztertzer pasatu naiz, aurretik markatutako helburuak eta hipotesiak kontutan hartuz, emakume hauek aisialdia eta lanaren inguruan izan zituzten bizipenak ezagutzeko. Zaila izan da transkribapenak egitea, elkarrizketa luzeak eta askotan interesatzen zitzaizdan gaitik urruntzen ginelako. Azken finean, emakume hauek haria erraz galtzen dute eta askotan egungo kontu batzuen inguruan aritzera pasatzen ziren, euren garaiko bizitza interes handia ez duelakoan.

Badakigu Erronkari Ibarra bere osotasunean ez dela zonalde homogeen bat eta herri bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituela, baina seguru 1920. hamarkada inguruan jaiotako emakume gehienak ikerketaren puntu batekin edo bestearekin identifikatuta sentituko direla.

7. BIZITZA ETA DENBORA ULERTZEKO MODUAK. LANA ETA ASTIALDIAREN GARRANTZIA.

Kapitulu hau, definitutako helburu baten arabera antolatuko dut. Hiru dimentsioez aritu izan naiz, komunitatearen denbora, familia edo gertuko harremanen denbora eta denbora propioa. Nire helburua denboraren dimentsio hauetariko bakoitzean eta aukeraturiko testuinguruan, lana eta astialdiak zelako lekua eta nolakotasuna izan zuten behatzea litzateke; eta baita elkarrizketatutako emakumeek bai dimentsio bakoitzean eta bai bi denbora tarte konkretu horietan zelako parte hartzea izan zuten ere aztertzea. Hori bai, beti ere ahaztu gabe dimentsio eta denbora mota bakoitzaren artean elkarlotura eta elkareragina dagoela.

Hasiera batean, denbora nola ulertzen zuten kokatzeko honen inguruko sarreratxo bat egingo dut, ostera, dimentsioetan lana eta aisialdi denborak zelako lekua hartzen zuten ikusteko. Bukatzeko, nahiz eta kapitulu osoan zehar, zeharka, genero-sistemak izan zituen eraginak zehazten ere joango garen, honen inguruko aipamen zehatz batzuk egingo ditut.

Jasotako emaitzak aztertuta, argi geratu da egun mendebaldeko gizarteetan pertsona gehienok dugun denboraren bizipenaren kontzepzio ezberdina izan zutela Erronkari Ibarrean.

Alde batetik, egun arrotza egiten zaigu, dena egunerokotasunean bizitzea, baina hau arruntena zen gizarte honetan, etorkizunerako planik egin gabe bizi baitziren. Bizirautearekin konformatzen ziren eta ez dut haiengan etorkizunerako “ametsik”² topatu.

(...) nunca, no he estado pensando a ver el año que viene si tengo 2.000 pesetas, no, no, no, nada, feliz con lo que tenía. No me ha faltado el pan de cada día, no tenía millones pero como no me ha faltado para lo que hemos necesitado en la casa (...)
(Lucia, 85, Izaba).

Are gehiago, baten lamentazio bakarra seme-alabak eduki ez izana izan zen eta hori ezin da ametsatzat kontsideratu, berarengandik espero zena baitzen.

(...) pues pena, lo único, que no he tenido ni si quiera un hijo. Lo demás, mi marido estaba muy enfermo, no se podía esperar otra cosa más que seguir enfermo... pero cuando ha estado bien hemos aprovechado. (Florencia, 94, Izaba).

Pare batek ikasteko nahia adierazi digute, baina esan bezala, familiaren bizirautea horren aurretik zegoela jakinda, ezinezkoa zutela ulertuta kontatu izan digute.

(...) cuando me salí de la escuela, la maestra que teníamos bajo a casa y les dijo a mis padres que me mandaran a estudiar. Pero ya sabes lo que eran aquellos tiempos, no porque vosotros no lo habéis conocido, ¿sabes lo que era, tener que quitar pinos de casa para darnos a las demás estudios? No aquello era... había que guardar. Que total se ha guardado, se ha quedado mi hermano en casa, y allí está todo... (Lucia, 85, Izaba).

(...) pues no sé si me ha quedado nada... (...) a, bueno, hombre, haber estudiado ya me hubiese gustado, pero como ya vi las intenciones de mis padres que no esto, pues... pues de niñera por ahí, de criada en casa de Abizanda, luego a San Sebastián... y después ya conocí a Fortunato, me casé con él, y hemos pasado toda la vida pues con lo de casa, trabajos y hemos vivido tan felices, ¡más contentos que un chinchón! (Lucia, 85, Izaba).

² Ametsetz hitz egiten dudanean, egun euren bizitzetan penatutako zerbaiten inguruan edo egin nahi izan zuten zerbaiten inguruan galdetu diegunean jasotako erantzunetaz ari naiz. Hau da, egitea gustatuko litzaiekeen zerbait eta ezin izan zutena egin.

(...) no estudié porque ya cuando me hice mayor, mayor no... se podían comprar los libros, se podían alquilar... pero no, me entere tarde cuando ya no era tiempo para estudiar. Pero a mí me gustaba mucho, yo libro que cogía, libro que ahí estaba (...) me fui con las vacas al caserío (...) después ¿cómo?, ya vine a Vidangoz, ya me eche novio y ya no había manera de estudiar, pero me gustaba mucho (Donata, 92, Urzainki).

Aurrekoarekin lotuta ere, argi dago, gaur egun bizi garen abiaduran bizitzeko aukerarik ere ez zutela eta horregatik, ekintzek denboran gehiago irauten zuten. Gainera, planak ez zituztelarik, egin beharra kostatzen zuena kosata egin beharrekoa zen eta egiten zutena zen. Honek ez zien gauza handirik suposatzen, azken finean, beste gauzekin amestu ere ez baitzuten egiten eta beraz, ez zuten denbora beste gauza batzuetan xahutzeko beharrik sentitzen.

(...) (¿Cómo ibas hasta allí?) a golpe de calcetín, (...) va, pero entonces que te cuesta, si rancas por la carretera e ibas cantando, bailando, brincando y llegabas antes de lo que te parecía (Donata, 92, Urzainki).

Hala ere, gaur egun dauden baldintzak baloratzen ere badakite. Esan bezala, garai hartan, ezin zuten gaur egun egiten ditugun hainbeste gauza egitean pentsatu eta egun dugun "askatasuna" (haien hitzetan) ontzat dute.

(...) huertos si hay, si, ahora vienen camionetas que te venden de todo, ipara que vas a ir a cavar un huerto! (Donata, 92, Urzainki).

Beharrak ez zien astirik uzten eta ez zuten egun dugun "askatasuna", baina emakume honek esan zigun bezala, haiek denetik egiten zekiten bizitzan aurrera ateratzeko.

(...) como no hay que pensar en lavar, y en planchar y eso... la lavadora tenemos todos. El frigorífico esta para guardar las cosas... pues eso me parece mejor, que antiguamente. Antiguamente se vivía más agarrado y más a las cosas. Hay más libertad ahora. (...) si llega una crisis horrible pues no sabéis hacer (...) (Florencia, 94, Izaba).

Gaur egungo denboraren balioarekin behatu dudana beste alde nabarmen bat izan da, denbora, batez ere lanean emandakoa, ez zuela, askotan, balio monetariorik. Hau da, ez zen merkantziatzat saltzen eta erosten, eta jarduerak diruaren neurtzeko filtroarekin begiratu baino, etxerako edo familiarako onura ekartzen zuten edo ez baloratzen zen. Onura hau, adibidez, etxetik aho bat kandu ahal izatea ere bazen.

Bestetik, ez zirelako erlojuen menpe bizi, adibidez, zenbaitetan ordutegien falta ikusi dut.

(...) a la noche cuando se te ponía sueño, según lo que estarías haciendo (¿y levantar?) a las 7 o 7.30 (...) no, con el sol no, cuando se hacía de día, decías "será tal hora... no sé, un ratito más" y te dabas media vuelta. Hasta que te parecía que sería la hora de levantar y te levantabas. (Donata, 92, Urzainki).

(...) el rosario... cuando se hacía oscuro (...) a las 7 o... sí, porque entonces no había hora oficial, que se cambiaba, si yo creo que igual para las 9.30 o las 10 estaríamos todos en la cama (Lucia, 85, Izaba).

Epe luzera begiratuta, denboraren antolaketaren inguruko erreferentziarik zuzenenak herriko jaiak ziren, zeinetan mendiko, soldatapeko eta artzain lanak bertan behera geratzen ziren. Bestetik, epe motzera begiratuta, astean zeharreko *días de labor* eta igandeen artean bereizketa handia zegoen. Igandean, ez ziren mendiko eta soldatapeko lanak egiten, jendea elegante jantzen zen eta mezara denak joaten ziren, baita gizonezkoak ere. Dena den, etxeko lanak berdinduz egiten jarraitzen zen, eta hauek emakumeek egiten zituzten.

Egun batean zehar, denbora markatuak eskola eta eliza ziren, eta soldatapeko lanen baten kasuan, hauek ere. Gainontzeko guztia egungo egutegi edo ordularirik gabe egiten zen, egunerokotasunean bizitzaren antolatzen ziren.

7.1. Komunitatearen denborak, familia edo gertuko harremanen denborak eta denbora propioa

Esan beharra dago nagusitzen den denbora dimentsioa familia edo gertuko harremanena dela. Aztertu ahal izan dudanez, 1920-1960 urteen bitarteko Erronkari Ibarreko gizarte honetan, familian emandako denbora oso garrantzitsua zen, emakumeengan batez ere, gehienbat dimentsio honetan mugitzen baitziren hauek. Lanari dagokionez, emakume hauek *trabajar en casa* deitu diotenari egingo diogu erreferentzia. Hau familiarentzat lan egitea esan nahi zuen, etxean, baina ez soilik etxe fisikoan baizik eta etxearen jabetza zen edozein lanetan aritzea esan nahi zuen, eta beraz, familian emandako denboratzat hartuko dut. Honetaz gain, etxetik kanpo egindako lanak ere ikusiko ditugu hemen, hauetan irabazitakoak, normalean, familia guztia erantzuten baitziren. Bestalde, familiarean ematen diren aisialdi tartekak hartuko ditut familiako denboran bizitako astialditzat, hau da, *etxea* deiturikoaren baitan izandako denbora libre tartekak.

Komunitate osoaren denbora gutxitan agertu izan da kontakizunetan, soilik herriko jai edo ospakizun puntualetan eta auzolanetan. Baina bestalde, bizilagunen arteko laguntza eta kolaborazio uneak ere bizitzen ziren garai honetan eta hauek ere komunitateko denboratzat hartuko ditut, nahiz eta beharbada, soilik bi familien arteko elkarlanak izan.

Bukatzeko, denbora propioari dagokionez, hau topatzea oso zaila egin zaigu. Gaur egun denbora propiozat duguna, hau da, norberaren espazioa, pribatutasuna eta abar, ez dut inolaz ere topatu. Baina nolabaiteko erabaki propio batzuk deskubritu ditut emakume hauengan eta hauek izango dira atal labur honetan landuko ditudanak.

7.1.1. Komunitatearen denbora

Esan bezala, komunitatearen denboran, lanatzat, auzolanak eta bizilagunen artean egindako elkarlanak hartuko ditut. Bestalde, Eskola, Eliza eta garaiko moralarengatik zeuden eginbeharreko batzuk ere aipatuko ditut, denboraren bizipenean eta komunitate guztiarengan eragina baitzuten. Ostera astialdiaz arituko naiz eta analisi guztian zehar genero rola ere azaleraziko ditut.

a. LANA

Udalerriko lanak bizilagunek egiten zituzten askotan, hala nola, mendiak garbitu, elurra kaleetatik apartatu, erainkin publikoren bat konpondu eta abar. Horretarako, noizbehinka auzolanak antolatzen ziren. Baina diputazioko langileak ere bazeuden eta hauei zegokien batez ere horrelakoetan aritzea, soilik noizbehinka deitzen zituzten auzolanak.

Antes se hacían los auzolanes que llamaban, se limpiaban los caminos, se limpiaba todo (...) no, no, solo los hombres (Lucía, 85, Izaba).

Luciak aurreko pasarteetan, eta Josefak ere hurrengoan dioten bezala, bertan soilik gizonezkoek hartzen zuten parte; horrela emakumeak komunitateko denboratik at geratzen ziren normalean.

(...) yo he conocido los caminos y después cuando hicieron la carretera. (...) los hombres, ¿las mujeres trabajar? ¡Los hombres! ¿Nosotras de maniobreras a limpiar cunetas y a cavar por la carretera? ¡Bien y tú! ¿Para qué están los hombres? ¿O solo para llevar pantalones o qué?! Ahora como las mujeres también llevan pantalones... (Josefa, 88, Uztarroze).

Azkeneko zita honetan behatu dezakegunez, emakume honek genero rolen garapenari egiten dio erreferentzia, bere garaiko rolen banaketa argi utziz eta gaur egungoa zalantzan jarriz. Argi dago berarentzat garapen bat egon dela.

Bizilagunen arteko elkarlana handia zen Erronkari Ibarrean. Adibidez, labeak soilik etxe batzuetan egonda bertan egiten zen ogia herri guztiarentzat, garia etxe ezberdinetatik eramanda, noski. Zelaia lantzeko zaldirik ez zuten etxeek, hura zuen beste familia batekin elkartzen ziren bion zelaiak batera ereiteko, mendietako bidexkak edota herriko kaleak elurra botatzen zuenean denen artean garbitzen ziren, eta abar.

Esan den bezala, erremintak edo lanerako tresnak eta animaliak, eta batzuetan, zelaiak konpartitzen zituzten familia batzuen artean, baita mendiko eta artzain lanetan bizilagunen artean laguntzen ziren ere, María-k eta Lucia-k kontatu diguten bezala:

(...) es que entonces íbamos a medias con los de Bortiri (etxe baten izena)... a medias no, un día pa una casa y otro día pa otra, ellos tenían un macho y nosotros otro y pa subir hasta Berrobakotxa con una carga de fiemo, pues un día subía uno con dos cargas y al día siguiente subía el otro con otras dos cargas. Y no subías solo con un macho, y a labrar y todo iban siempre con nosotros. (María, 85, Uztarroze).

(...) se cuidaban las ovejas de unos a otros, y cuidaba las ovejas uno y el otro iba a trabajar (...). (Lucia, 85, Izaba).

(...) tenía oído a mi madre que hasta que nosotros éramos chiquitos teníamos ovejas, (...) no, no, ganado y por un año bajaron con los de Txurrust a la Ribera, a Carcastillo, sí (...) mi padre bajaría, se juntaban los de casa Txurrust y los de mi casa, claro (¿pero erais familia?) no, no, no, pues como se juntaba (...) amistad no, pues sí, oye pues... (...) (Josefa, 88, Uztarroze).

Honetaz gain, bestelako gauzetarako truke edo akordioak ere egiten zituzten bizilagunen artean:

(...) después regábamos de casa Beltza, del tío Manuel, nos enchufaban una goma... ya últimamente no subíamos (ura ibaitik baratzerá), ya una vez que arreglaron la carretera ya no... si alguna vez sí, por aquellas escalericas, y cuando estaban los de Izort de casa Izort. De ahí del baño nos ponían una goma y... y muy bien. Como les dabas verdura, y lechugas y alubias verdes, de todo, pues... (...) y Manuel también, ¿sabes a Manuel lo que le solíamos hacer?, que no sabía cortar migas, y de vez en cuando les cortaba una torta de migas (su marido) para que hicieran las migas allá, no sabía cortar, no habría estado pastor... (María, 85, Uztarroze).

Denborak ez zuen balio monetariorik, hau da, diruarengatik trukatzeko ez zen ohikoena. Denboraren baitan bizitzen ziren Erronkari Ibarreko biztanleak eta hau pasatzen ikusten zuten, etorkizunerako planik eta asmorik egin gabe. Hau horrela izanda, ekintzen azkartasunak ere ez zuen lekurik eta egunean egunekoa bizitzeaz arduratzen ziren, kostatzen zitzaiena kostata. Dena den, azkartasunari edo denbora probesteari erreferentzia egiten dion pasarte bat ere aipatu nahiko nuke.

(...) es que la misma ropa lavarla en casa o lavarla en el río, es que te ahorrabas igual una hora ¡o más! Es que en el río echabas las sabanas al río y ¿tú sabes?... las cogías y las aclarabas se aclaraban enseguida (...) (¿Quién te ayudaba?) nadie, sola, (...) a las 5.30 de la mañana o más me levantaba a sacar ropa para lavar (...) (Lucia, 85, Izaba).

Baina beharbada, gaur egungo erosotasunekin eta azkartasunarekin konparatuz egin du komentarioa, bestela, arraroa da bakarra topatu izana.

Emakume hauen denbora, giza esperientziarengatik markatuta zegoen eta tradizioak eragin handia zuen denboraren erabilpenean. Hau objektibatzerako orduan, batez ere urtaroak izaten zituzten kontutan. Hortaz, Shanks eta Tilley definitutako “tiempo humano o substancial”-arekin erlazionatuko daiteke emakume hauen denbora. Azken finean, emakumeak denbora igarotzearen menpe biziko dira, hau momentu ezberdinen segidatzat hartuz. Gainera, Carbonell-ek ere dioten moduan, landa eremuan, denbora igarotzeari begira daude, eta horregatik dirudi denbora gehiago dutela gauzak egiteko.

Honetaz gain, adinaren arabera elizarekin eta eskolarekin zituzten egin beharrek ere markatzen zituzten haien denbora. Baina orokorrean, bizirautea bermatzen zuten jarduerak markatzen zuten beren egunerokotasuna, egutegi edo ordutegi orokorrik apenas izan gabe.

Evans-Pitchard-ek eta Malinowskik ikertutako gizarteetan ez bezala, naturarengatik baldintzatutako denbora izateaz gain, oinarrizko egutegi bat ere bazuten, jada Eliza, Estatu eta abarrek finkatutakoa. Adibidez, igandea jaieguna izango da populazio guztiarentzat; emakumeen kasuan, ordea, etxeko lanak beti egin behar direlako, jaieguna erlatiboa izango da. Hala ere, askotan naturaren ezaugarri fenomenologikoengatik gidatuko dira.

Biziraupena eta urtaroak denboraren banaketaren eragile nagusiak izango direlarik, denboraren erabilera edo bizipena modu batean edo bestean emateko beste hainbat faktorek eragiten zuten. Alde batetik, generoari dagokionez, emakumearen kategorian sartuta egoteagatik sozializazio femeninoa zuten eta etxeak eta familiak suposatzen zien denbora gehiena. Bestetik, familia motaren arabera ere lanak, denbora gehiago edo gutxiago hartzen zieten. Eta bukatzeko, adina goratuz joan ahala, astialdia laburtzen joaten zitzairen.

Hiru dimentsio aipatu izan ditut marko teorikoan eta hauen arabera egin dut analisia; ondorioak ere, hauen inguruan egingo ditut. Esan dudan bezala, oso garrantzitsua da hiru dimentsio hauek elkar konektatuta daudela kontutan hartzea eta baita generoaren arabera rol ezberdinak egokitzen direla hauetako esparru bakoitzean. Familia unitate ekonomikotzat izango dute garai honetan eta bertan, biziraupenerako rolak banatzen zituzten, hortan eman ahal ziren desigualdadeak eta diskriminazioak kontutan hartu gabe.

Ikertutakoen kasuan, emakume hauen denbora batez ere familia edo etxearen esparruan ematen zen eta etxearekin konpartitzen zituzten gauza gehienak, euren mundua ia dimentsio horretara murriztuz. Hau adinarekin areagotuz joaten zen eta familiako denbora, etxearengan pentsatuz xahutzen zuten denbora izaten zen.

Frankismoaren baloreengatik bultzatuta, familia zen emakume hauen misioa, horrela, hau mantentzea eta aurrera ateratzea zuten helburu beste guztiaren gainetik. Hau horrela bermatzeko, emakumeen sozializazioa familiarekiko sakrifizioan eginen da. Beraz, presio sozialaren eraginaz gain, norberak bere buruari egiten zizkion exigentziekin nahikoa izaten zen emakume hauek familiaren esparrura mugatzeko. Horregatik, adibidez, mendian familiarentzat lan egitean, "laguntzaile" gisara aritzen ziren eta kanpoan lan egitekotan, beste batzuk zerbitzatzen izaten zen.

Emakumeen zeregina zaintza zelarik, hau aitzakia perfektua izan da hauek etxera mugatzeko, hemen kokatzen baita zaintza gunerik garrantzitsuena. Honengatik sakrifikatu behar ziren eta familian ongizatea bermatzeko edozer egiteko gai izan behar zuten, mezara faltatu, 13 urtez bere familia izandakoa zerbitzatzen egon eta abar.

Bukatzeko, familia bizirauteko baliabide monetarioak ere beharrezkoak zirelarik, batzuk etxetik kanpo lan egiten zuten, baina diru guztia kolektibizatzen zen. Hala ere, denek ez zuten diru honen erabilera berdina egiten, gizonezkoek adibidez, tabernan xahutzen zuten, emakumeak etxeetan lanean jarraitzen zuten bitartean.

Komunitatean, urtean behin parte hartzen zutela esan daiteke, jaietako dantzaldietan hain zuzen ere. Baina, beti ere, gizonezkoen zain egoten ziren horrelako kasuetan, hauek gidatzen baitzituzten emakumeak bizitza komunitarioan, denbora hau haien gestiotik kanpo geratuz.

Bestela, erlijioa dela eta, ohiturekiko fideltasuna eta ardura, beste denbora tarte bat horren menpe egotea ekartzen zien. Hau horrela izanda, zenbait emakumeren kontakizunetan erlijioari eskaintzen zioten denborari, astialdi edo aisialdi kutsua topatu izan diogu. Mezara joatea dibertigarria zela, lagunekin egoteko aukera bat zela eta deskantsu une bat zela ere entzun diegu. Azken finean, noiz edo noiz deskantsua hartu behar zuten.

(...) ¡Ay la juventud de mi vida! Pues no sé, también íbamos al monte (¿a trabajar?) ¡Anda no! A sembrar patata, a echar patatas, a sembrar alubias... pues a todo. Y en el tiempo de sacar patatas, la Pepita y yo, porque tenemos los campos al lado uno encima del otro (...) pues les ayudábamos a cargar las caballerías y nosotras, ¡bueno! cerro abajo en una corrida, para ir al rosario, para irnos por ahí un rato (...) (María, 85, Uztarroze).

Soilik, arrazoi sendo eta gehienetan gizonekin lotutako egin beharrak egin behar bazituzten alboratu ahal zuten Elizarekiko zuten ardura.

Komunitateko bestelako jardueratan ez zuten parte hartzen, hala nola, auzolanetan. Hau oso arraroa da, Erronkari Ibarreko gizarte honetan komunitatearen garrantzia Ordenantzetan ere adierazita dagoelako, dena komunala baita. Baina ikus dezakegunez, emakumeak ez dira honen parte izango, hona hemen existitzen zen diskriminazioaren beste adierazle bat. Violent i

Simorrak ere idatzi bezala, bizilagunen arteko elkarlana oso garrantzitsua zen, baina emakumeen kasuan batez ere familiako emakumeen artekoa izango da.

Orokorrean, beraz, gizonezkoek komunitateko denboraz gozaten zuten bitartean, emakumeek askotan etxean pasatzen zituzten tarte hauek. Hau da, gizonek familiako denbora eta komunitateko denboraren artean oreka batetaz gozaten zuten bitartean, emakumeen denbora familiartekoara mugatzen zen batez ere.

Bukatzeko, denbora propioari dagokionez, ez dut emakume hauengan aurkitu, ezta kontzeptu honekin identifikatu ahal nuen jarduerarik ere. Esan dezakegu, Erronkari Ibarreko emakume hauek ez zutela denbora propio edota interes propiorik, ezta hauengan pentsatzen aritzeko denborarik ere.

Emakume hauek egiten zutena egiten zutelarik beti besteengan zuten burua eta hori denbora propioaren faltaren adierazle da. Egia da, adinarekin falta hau areagotuz doala, txikitari denbora propioaz gozatzeko aukera zutelarik, "jolasteko" denbora tarte luzeak izaten baitzituzten. Baina, behin ezkontzean, hau nabarmenki desagertzen zen.

Honen adierazlerik esanguratsuenak, beren egin beharretatik kanpoko gustuko jarduerarik ez izatea eta pribatuak edo intimoak kontsideratzen diren sexualitatea, gorputza eta abar bezalako gaiak ez konpartitzea ditugu. Interes propioen falta somatu dugu eta beharbada, aurretik hitz egindako baliabideen faltaz gain, zirrarak gabeko emakumeen rola ere zerikusia duela uste dut. Orokorrean, amaieran bizitzarekiko konformitateaz galdetuta, denak erabatekoa dela adierazi dute horrela esamoldeez lagunduta: *no he recibido ninguna queja de nadie (...) he hecho lo que tenía que hacer y estoy contenta* (Lucía, 85, Izaba).

Pribatutasun edo propioaren kontzeptu horiek ez agertzea ere, gizarte honetan kolektibotasunak zuen garrantziagatik izan daiteke. Hau horrela izanda, apenas zegoen espazio propiorik, beraz, denbora propioaren beharrik eta sentipenik ere ez. Txikitatik logela konpartitzen zuten anai-arreba edota gurasoekin, eta egunean zehar bakarrik jarduera gutxi egiten zituzten.

Emakumeen kasuan, beharbada etxean lanean bakarrik egotea tokatu izan zaie askotan, baina horrek ez du esan nahi denbora propioaz gozatzeko aukerarik zutenik. Azken finean, etxean lan eginda besteengan pentsatzen ari baitziren etengabe, eta aurretik Murillo zitatz bezala, pribatutasun horrek ez du esan nahi denbora propiorik zeukatenik.

Pribatua, norberarengan arduratzea litzateke, horregatik bizi ereduaren arabera arduratze hau ezberdina da. Emakume hauengan, etxean bakarrik lan egitean denbora propioa zutelaren ustea nabaritu dut. Hala ere, Murillok dioen bezala, pribatua dena ez du zertan propioa izan behar.

Bestalde, lagunekin zituzten tartekak, batez ere lagun minekin zituztenak, propiotzat hartu ditzakegu, baina hauek ezkontzean (25-30 urte bitartean) desagertzen ziren. Gainera, ezin dugu ahaztu emakume batzuek lagunekin intimitateak kontatzeari garrantzia kendu diotela eta sekula arazorik ez izana aldarrikatu dutela maiz. Horrelako tartekak bizitzeko beharrik sekula izan ez balute bezala.

Pribatutasunari dagokionean, Murillok adierazi bezala pribatutasun femeninoa eta maskulinoa topatu izan ditugu. Ikusi ahal izan dugun bezala, gizonezkoen egin beharrekoak denbora gutxiago hartzen zutelarik, hauek denbora propioaz gozatzeko aukera zuten, errepidera joateko, herrian gertatzen zirenak behatzeko edota tabernara joateko. Emakumeengan ordea, batez ere, behin ezkontuta ez dut horrelakorik aurkitu.

Emakume zaharrenen kasuan, bai ikusi dut, behin egin beharrekoak bukatuta, etxeren batetan edo plazaren batetan biltzen zirela elkarrekin egoteko, hori bai, beharrak guztiz alboratu gabe, josten, iruten, eta abar. Hau ere esanguratsua da, adin honetan berriz ere, familiaren ardura jaisten zelako, hortaz, ardura gutxiago izanda, lehenago bukatzen zuten egin beharrekoa.

Astialdia, plazerra, desioa, askatasuna eta abarrek bezala, propioak izan dezakeen garrantzia ere testuinguruaren arabera aldakorra da. Hau da, emakume hauek ez zuten propioaren beharrik eta horrela adierazi izan digute. Gaur egun ordea, denbora propiorik ez izatea bermatu beharreko zerbait dela iruditzen zaigu.

Denboraren dimentsioak bereizteaz gainera, denbora aztertzerako orduan, bestelako sailkapen bat ere erabili dugu, eta behatutako sailkapen guztien artean hau egitea erabaki dut: beharrezko jarduerak (elikadura, garbiketa, deskantsatzea, eta abar), derrigorrezko jarduerak (lana) eta denbora libre edo astialdia (batetik, "baldintzatutako" jarduerak: familia, erosketak, zaintza eta abar, eta bestetik, askatutako denbora, zein pertsona askea den). Emakume hauen errealitatea kontutan hartuta, soilik "lana" eta "astialdia"-ren artean egin dugu bereizketa. Azken finean, "beharrezko jarduerak" emakume hauentzat "lana" bihurtzen baitziren.

Hau horrela izanda, emakume hauen bizitzaren ardatza lana izango dugu, familiaren baitan ematen den lana bereziki. Astialdia kontzeptua ordea, ez da emakume hauen ahotsetatik atera. Gaur egun astialdikoak kontsideratu daitezkeen hainbat jarduera topatu ditugu beren kontakizunetan, baina, gehienetan lanean zeuden bitartean eginak.

Esan bezala, lanaren kontzeptualizazioa ez da gaur egungo 8 orduko jardunaldia izango. Emakume hauen etxeko lana, familiarentzako lana (soroetan) eta kanpoko lana egun osoa hartuko die. Honengatik guztiagatik diogu, euren imaginarioan ere ez zituztela astia, aisia edo

denbora propioaren kontzeptuak. Dena den, horrek ez du esan nahi, horregatik emakume hauen bizitzetan existitzen ez zirenik. Egia da, adibidez, urteko sasoiaren arabera, lan gehiago eta astialdi gutxiago eta alderantziz edukitzen zutela.

Marko Teorikoan aisialdiaren kontzeptua ikusi dugunean, Morales eta Bravo-ren definizioan oinarrituta, askatasunez, desioengatik eta plazerrarengatik hautatutako jarduerak zirela apuntatu dut. Honen arabera ere, ikusi dugu bakoitzak oso gauza ezberdinak desiratu ditzakeela. Horregatik, eta emakume hauek aisialdiko jardueri erreferentziarik egiten ez ziotelarik, haientzat “jarduera dibertigarriak” eta ezer produzitzearekin guztiz zerikusirik ez zutenak jaso izan ditut aisialditzat. Gainera, desioa, nahia eta plazerra oso subjektiboak direla kontutan hartuta, badirudi, emakume hauek zutenarekin zoriontsu zirela, besterik behar ote zuten galdetu edo pentsatu gabe.

Haientzat astialdia edo lana diferentziatzen zuena, egin beharrekoak gustura edo derrigortuta egitea zen.

Aurretik esan bezala “askatasuna” zer den definitzea oso zaila da, baldintzatzaileak infinituak izan baitaitezke. Gaur da eguna, garai batean baina askoz aukera gehiagorekin bizi garela ikusita, emakume hauek “askeago” bizi garela esaten dutela. Baina, hau esanda eta penatutako gauzengatik galdetuta, apenas erantzuten dakite. Askatasuna beraz, oso erlatiboa dela ikus dezakegu, kasu honetan, baliabideek bermatzen baitute, emakume hauen aburuz egun “askeago” izatea.

Bestalde, behin baino gehiagotan esan dudan moduan, gizarte hauetan, lana eta astia denaren arteko muga oso lausoa da eta hortaz, oso zaila egin zaigu astialdi hori topatzea. Azken finean, aisialdiko jardueratzat lagunekin topatzea eta hitz egitea, paseatzea eta abar hartu ditut. Baina egia da, zenbaitetan, lan tartetan topatu ditudala aisialdi jarduera horiek.

Hortaz, esan dezakegu, astia tartea izan bazituztela eta batez ere igandetan zirela. Bestetik, aisialdi jarduerak ere noizbehinka izaten zituzten eta bai astialdi uneak eta baita laneko uneak probesten zituzten hauek burutzeko.

Orokorrean, denbora libre hau ere komunitatean edo taldeka pasatzen zuten, ez dut ikusi denbora propioaren inolako adierazpenik. Eta batez ere, ikusi dudanez, umeez, gazteek eta gizonek probesten zuten denbora libre hura, emakume helduenengan hau topatzea zailagoa izan zaigu.

Lanaren kasuan, lanaren denborek harreman zuzena zuten naturaren eta giza bizitzaren zikloekin. Ekonomia hauetan, bai emakume bai gizonek egiten zituzten jarduera gehienak lana kontsideratzen ziren; gehienak biziraupenari lotuta. Egin beharreko guztiak egin ahal izateko,

familia kohesio handia izan behar zuten eta kide asko izanda lan gutxiago tokatzen zen bakoitzarentzat.

Baina, behin baino gehiagotan lana gizonek egiten zutela esaten entzun izan diet, haiena lana izango ez balitz bezala. Hau ez da arraroa, azken finean, euren burua, sekula negar edo kexurik izan ez duen bizirik iraun behar duen baten moduan zutela iruditu baitzaigu.

Aldi berean, gizonekoei egotzitako lanetan aritzen ere entzun ditugu euren burua “laguntzaile” gisa hartuz nahiz eta rol maskulinoa guztiz gain hartzen zuten. Honi lotuta, emakumeak lan egiten zuela aditzea ere kostatu zaigu, haientzat, soilik gizonezkoek egiten zutela lan ematen du askotan.

Sampedrok dioen bezala, emakume hauek familian eta familiarako lan egiten zuten, euren lanaren ikustezinasuna bermatuz; “laguntza” ematen zuten bigarren kasuan eta beraz ez zuten inolako onarpenik. Horregatik, emakume hauek gehienek, “etxeko andre”-tzat dute euren burua.

Hala ere, argi utzi beharra dut, emakume hauek ez zutela lana eta astialdia zerbait bereiztua bezala. Esan bezala, lanean ari zirela errekonozitzea kostatzen zitzaaien askotan eta astialdiaz ez digute ezta hitz egin. Egia esan, euren jokabideak edo ekintzak ulertzea zaila egin zaigu batzuetan eta hau beharbada kontzeptualizazioen ezberdintasunagatik izan zitekeen. Lana egin beharreko bat besterik ez zen emakume haientzat eta honen bitartean ere disfrutatzen ahal zuten. Bestalde, astiaren beharrik ez zuten, batetik, lana (kasu askotan) txartzat ez zutelako eta bestetik, euren imaginarioan horrelako tarterik izatea ere sartzen ez zelako.

Emakume hauen astia, denbora propioa edo aisialdia topatu izan dudanean, askotan beste jarduera batzuetan integratua izan da, hala nola, lanarekin integratuta. Adibidez, mezaren orduan eta arropa garbitzerakoan beste emakumeekin hitz egiteko eta egoteko uneak zituztela dirudi, edota bestela mendian zeudelarik bestelako gauzak egiteko probesten zuten. Edota zerbitzatzen zegoen etxeko jaunarekin oporraldietan joaten zirenean, haien (emakume zerbitzarien) oporraldizat ere hartzen zituzten une hauek emakume batzuk.

Hala ere, orokorrean, zaila izan zaigu aisialdi jardueraren bat sikiera lanean integratua topatzea.

Produkzio edo erreprodukzio eta publiko edo pribatu dikotomiak ez ditut asko nabaritu. Hau da, produkzioa eta publikoa ez datoz bat gizarte honetan, produkzioa etengabea zelako eta edozein esparrutan ematen zelako. Bestalde, pribatua eta erreprodukzioa, ordea, bai nabaritu dut, etxean ematen baitzen zaintza eta heztearekin zerikusia zuen guztia.

Egia esan, marko teorikoan ikusi dugunez, produkzio-erreprodukzio muga zehaztugabea eta iragazkorra da, eta beharbada horregatik emakumeen lana gutxietsia ez zegoela entzuten da maiz. Hala ere, argi ikusi ahal izan dut Erronkari Ibarreko gizarte honen kasuan iragazkortasun hori ere ez zela bi aldeetatik berdina izaten, gizonezkoek ez baitzuten eremu erreproduktiboan parte hartzen. Gainera, landa eremu honetako emakume hauentzat bi esparru hauek unitate bat izatera iritsi ziren. Horrela, emakume hauek soilik erreprodukzioan aritzen zirelako ustea zabaldu zitekeen ustezko parekidetasun baten mesedetan. Biana argi geratu denez eta bi eremu hauen arteko muga lausoak adierazi digunez, argi geratu da, rol banaketetan desigualdadeak zeudela, aurretik aipaturiko iragazkortasun eza dela eta.

Horrela, batzuek erabaki propioak har zezaketen bitartean, euren denbora libreari zegokienean behintzat, besteak ez zuten ezta erabakiak hartzeko tarte hori ziurtatuta ere.

Saiatu gara erreproduktibo-produktibo dikotomian ez sartzen eta horretarako jarduerak banan-banan izendatzen saiatu gara, baina banaketa hau egin izan dugu, batez ere genero diskriminazioak aztertzean erabilgarri suertatu daitekeelako.

Azkenik, genero-sistemaren gauzaperari dagokionez, azkeneko apunte batzuk emanda ondorioak bukatutzat emango ditugu.

Denbora eraikuntza kultural bat den heinean, bakoitzak modu ezberdinetara kontzeptualizatzen du eta horregatik, identitatea itxuratzen duen praktika soziala ere bada. Horrela, honetan mugitzeko sozializatzen garen moduen arabera, generoen arteko dikotomia areagotuz doa.

Etengabean errepikatzen ari garen moduan, sozializazioak eragindako genero rolen harira sortu izan dira diskriminazioak, eta ez soldata familiarrak eraginda. Emakumeengan arduratsu izatearen barnerapena guztiz eraginkorra izan zen aztertu ahal izan dugun moduan.

Erronkari Ibarreko biztanleek, norberak onartu edo bakoitzari inposatuko zaion rolaren arabera, denbora gauza batean edo bestean erabiltzen zuten. Emakumeen kasuan, lanak hartzen zuen denbora gehiena, bai produktiboa eta baita erreproduktiboa ere, eta biak familiaren baitan egiten ziren. Honen baitan, erritual familiarrak ere baziren, hala nola, ospakizun bazkariak, matatxerriak, eta abar eta bakoitzaren rolaren arabera hauek ere modu batean edo bestean bizitzen ziren, emakumeen kasuan, gehienetan, lanean (sukaldatzen, eta abar). Bukatzeko, konpromezu familiarrek edota komunitatearekiko konpromezuek ere denborak markatzen zituzten eta emakumeen kasuan, batez ere Elizak jokatzen zuen paper hori.

Etxearen gestioa eta ardua emakumeena zen, baina gizonari etxearen mantenua atxikituta, euren lanarekin bizi zirela entzun eta irakurri baitugu, hau bihurtzen zen etxeko buru. Emakumea garrantzia zuten rol maskulinoetan “laguntzaile” gisa agertzen zen.

Emakumeak egiten zuen lana ere garrantzitsua zen, autosufizientziaren bitartez bizirautea bermatzen zutelako. Hau ikus dezakegun autosufizientzia desagertzen joatean, emakumeak eta euren lanak geroz eta balore gutxiago izaten hasi zelako. Horregatik, landa exodoaren protagonistak izan ziren.

Honetaz gain, kanpora edo komunitateari begira gizonezkoa zen etxearen ordezkari.

Hau guztia horrela izanik, balorazioaren kontuari ekin diezaiokegu. Emakumeek egiten zuten lana baloratzen zen, bai, azken finean, familia aurrera ateratzen zutenak baitziren autosufizientzia eta etxeko produkzioekin. Hala ere, hau euren egin beharrekoa zelarik, besterik gabe, ez zen zoriontzen, egiten ez bazuten ordea, bai zigortzen zen, presio sozialarekin, adibidez. Gizonezkoek ere, euren egin beharrekoak zituzten, baina hauengatik merezimenduak edo pribilegio batzuk eskuratzen zituzten, hala nola, tabernara joatea, arropa erostea eta batez ere, etxeko lan guztiez libratzea. Meritua zuten. Emakumeek, gainera, gizonezkoek behar zutenerako dena prestatuta izan behar zieten.

Euren ahotsetatik entzun dugunez, lana gizonezkoak egiten zuen, familia aitak egiten zuen lanagatik bizi zen, eta abar. Horra hor, beraz, emakumeen ahotsetatik ere euren lanaren desbalorazioa. Hau da, euren diskurtsoetan egindako lanari pisua kentzen aritu zaizkit.

Monetak ez zuenez balorazioa jartzen beste puntu batetan bilatu behar izan dut. Balorazioa norberarena eta kanpokoena izan daiteke. Emakume hauek euren bizitza baloratzean oso positiboki egin dute, hala ere, ezkutatutako hainbat kexu ere ikusi ditugu, bere diskurtso guztiarekin kontraesanean agertzen diren zenbait pasarte. Baina orokorrean konforme daude egindako lanarekin, azken finean egin beharrekoak egin zituztelako.

Kanpoko balorazioa, ordea, ia ez da existitzen. Komunitateko jardueratan, emakumeak ez du lekurik eta bere buruan pentsatzea bekatu edo txarra kontsideratzen da, beraz, besteengan pentsatzera kondematuta daudelarik, ezin dezakegu esan kanpotik baloratzen denik, bestela erabaki propioak hartzeko aukera ere eskainiko zitzaie. Gainera, ikusten dugunez, balorazioa lortzeko egin beharreko sakrifizioak handiegia dira.

Oinordekotza genuen argitzeko beste puntu bat. Normalean gizonezkoak geratu izan dira etxean, baina askotan ere, emakumea izan da gurasoekin gelditzen zena. Honek arrazoi argi bat dauka, eta ez da emakumeek boterea zutela edota matriarkatua existitzen zela. Azken finean, gurasoekin geratzen zen seme edo alaba, hauek zaintzera geratzen zen eta dakigunez, emakumeak izan ohi dira honen arduradun.

Genero-sistemarekiko erresistentziarik ez dugu aurkitu. Are gehiago, etxearen eta familiaren kontrola eta ardura zutelako pozik eta harro adierazi dira emakume hauek. Haien hitzetan, ez dute ezer txarrik bizi, pozik eta nahi zutena egiten aritu dira bizi guztian zehar, arazorik gabe.

Batetik, asmatutako nolabaiteko matriarkatuaren existentzia horrekin, diskriminazioa euren eta gainontzekoen pentsamenduetatik alboratuta geratuz, errazagoa izan zaie euren rola kezarik gabe onartzea. Hau da, errealitatean ez zuten nolabaiteko boterea bazutela sinestea erresistentziazat hartu dezakegu.

Roletik ez ateratzean sortzen den erosotasunak ere eragina izan du erresistentziak ez aurkitzearen momentuan. Dena den, onarpen honekin izan dituzten kontradikzioak etengabeak izan dira: infernua bizi baina aldi berean zoriotsu bizi izan dira batzuk, eta ezkontzean euren buruaren kondenazioa zela argi izan dute gaur egun beste batzuk.

Bestetik, elkarrizketatu ez ditugun ezkondegabeak ere beharbada erresistentziazat hartu ditzazkegu, baina hau ezin dugu ziurtasunez esan. Bukatzeko, aipaturiko emakume zaharrak ere ditugu “errebeldetzat” haien elkarguneetan.

Dena den, egia da, bizi izan zuten testuinguruak ez zuela batere laguntzen erresistentzia posiblean pentsatzen jartzeko eta horregatik ere izan daiteke “matxinada” nabarmenik ez ikusi izana.

Hala ere eta nahiz eta egungo bizimodua ere baloratzen duten, haiek ez zuten “askatasun” erlatibo bat dugula uste dutelako, egungo pertsonak ez dugun bestelako “askatasun” bat ere izan zutela komentatu izan didate; hala nola, bizitzan aurrera ateratzeko baliabide soberakoak izatea, nahiz eta egin beharrekoak gainezka egin.

Hau guztia horrela izanda eta nahiz eta ordulariengatik ez izan, denbora nahiko markatuta zegoela ikusita, ondorioztatu dezakegu emakume hauek, orokorrean, ez zutela denbora zertan gastatu pentsatzen; bizi bizitzen zuten, zituzten baliabide eta ohitura edo betebeharrak moralekin. Azken finean, badirudi euren familiek bizirautea eta haien ohorea mantentzea zela garrantzitsua eta horretan xahutzen zituzten euren energiak.

(...) hay gente, te explico, que no te explicaran, porque no quieren decir que han estado trabajando en otros sitios, porque se tienen a menos. Pues yo no me tengo a menos porque una vez, te voy a contar, una mujer me dice “yo cuando hablo de ti, digo ay, la Lucia que estuvo de criada en casa de Abizanda” no le conteste nada. Y una vez, la vecina me dice “¿por qué no le contestas?” (...) le dije “mira Pili, me callo, porque ¿sabes qué? Si le daba esa contestación yo iba a faltar y esto...” que en este mundo, le

hubiese contestado, es mejor ser honrada habiendo estado años de criada en casa de Abizanda que andar de putas, e, y vale, ya sabes porque te lo digo, por la vida que ha llevado ella (...) entonces respeto, yo me callo (...) honrada en casa de Abizanda que lo otro. Así que, a mí no me tienen que decir ninguna cosa, ni de chicos, ni de esto, ni lo otro, está mal que lo diga, pero yo estaba bien con todo el pueblo y punto... (Lucia, 85, Izaba).

Egungo ikuspegitik, iruditu daiteke esklabizatutako eta guztiz zapal dutako emakumeak izan zirela, baina badirudi haiek nahikoa zutela bizirautearekin, denboran bizitzen jarraitzearekin.

9. BIBLIOGRAFIA

- ADAM, Barbara (1990) *Time and social Theory*. U.K. Cambridge, Polity Press.
- ADAM, Barbara (1999) "Cuando el tiempo es dinero", *Sociología del Trabajo* aldizkarian. Nueva Epoca, Otoño, nº 37. 5-39 orriak. Madrid, Siglo XXI de España Editores.
- ALLI ARANGUREN, Juan Cruz (1989) *La mancomunidad del Valle de Roncal*. Nafarroako Gobernua, Departamento de Presidencia e Interior. Iruñea. Nafar Gobernuoko Prentsa Publikazioak.
- ÂS, Dagfinn (1978) *Tid hjemme og ute: Om husholdningens bruk av sin bolig*. Smaskrift - Byggeforskningen ; nr. 5. Norwegian Edition.
- BARANDIARAN, Jose Miguel eta MANTEROLA, Ander (2004) *Atlas etnografico de Vasconia, Euskal Herriko atlas etnogafikoa*. Bilbo, Etniker Euskalherria.
- BERIAIN, Josetxo (2008) *Aceleración y tiranía del presente. La metamorfosis en las estructuras temporales de la modernidad*. Barcelona, Editorial Anthropos.
- BORDERÍAS, Cristina; CARRASCO, Cristina; ALEMANY, Carme (comp.) (1994) *Las Mujeres y el Trabajo. Rupturas conceptuales*. Barcelona, ICARIA : FUHEM, D. L. Economía Crítica.
- BOURDIEU, Pierre (1963) "The attitude of the Algerian peasant toward time". PITT-RIVERS, Julian Alfred (ed.) *Mediterranean Countrymen: Essays in the Social Anthropology of the Mediterranean* liburuan. París, Mouton.
- BRAUDEL, Fernand (1991) [1969] *Escritos sobre historia*. Mexico, Fondo de Cultura Económica.
- BRAVO SUESKUN, Carmen (2012) *De la domesticidad a la emancipación. Las mujeres en la sociedad navarra (1961-1991)*. Iruñea. Nafar Gobernuoko Prentsa Publikazioak.
- CABRERA PEREZ, Luis Alberto (2005) *Mujer, trabajo y sociedad (1839-1983)*. Madrid. Fundación BBVA; Fundación Largo Caballero.
- CARBONELL CAMÓS, Eliseu (2004) *Debates acerca de la antropología del tiempo*. Departament d'Antropologia Cultural i Història d'Amèrica i Àfrica. Barcelona. Universitat de Barcelona.
- CAMARERO RIOJA, Luis Alfonso; SAMPEDRO GALLEGU, Maria Rosario; VICENTE-MAZARIEGOS, Juan Ignacio (1991) *Mujer y ruralidad: el círculo quebrado*. Madrid. Instituto de la Mujer.
- CARRASCO, Cristina (2001) "La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?", Universitat de Barcelona. *Mientras Tanto* aldizkarian 82. Zk, udazkena-negua. Barcelona. Icaria Editorial.

CARRASCO, C. (2006) "Tiempo de trabajo, tiempo de vida ¿Reorganización o conciliación?" *Ciudad de Mujeres* web orrialdean. <http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/Tiempo-de-trabajo-tiempo-de-vida> Azkeneko kontsulta: 2014/06/21.

CAUSSIMONT, Gerardo (1986) "Valle de Roncal ¿una sociedad en crisis?" *Principe de Viana aldizkaria*. Anejo, ISSN 1137-7054, 5. Zk. 557-568. orrialdeak. Iruñea. Nafarroako Gobernua, Principe de Viana Institutuzioa.

COSIN, Jone eta MAULEON, Amaia; DíEZ, Carmen lagunduta (1991) "Mujer y pirineo. Análisis de una realidad". *Txostenak*. Emakumeari buruzko ikerketarako mintegia, Euskal Herriko Unibertsitatea. 7. Zk. Donostia.

CUENCA CABEZA, Manuel (2008) *¿Qué es el ocio? 20 respuestas clásicas y un testimonio*. Bilbo. Deustuko Unibertsitatea.

DEL VALLE, Teresa (Zuzen.) (1985) *Mujer vasca: imagen y realidad*. Barcelona. Anthropos Editorial.

DEL VALLE, Teresa (1996) *Las mujeres en Euskal Herria: ayer y hoy*. Donostia. Orain.

DEMONIO, Lucien (1979) "La quadrature du cycle. Logique et contraintes du temps en milieu rural", *Cahiers internationaux de Sociologie*, LXVII. Bol., 221-236. orriak. France.

DIEZ, Carmen (1995) "Trabajo femenino en la Ribera del Ebro" (151-167. orriak). *La mujer rural* liburuan. Bilbo. Banco Bilbao Vizcaya.

DUMAZEDIER, Joffre (1964) *Hacia una civilización del ocio*. Barcelona. Editorial Estela.

DURÁN, María Angeles (1986) *La jornada interminable*. Barcelona. Icaria Editorial.

DURÁN, María Angeles eta PANIAGUA, A. "Visibilidad e invisibilidad del trabajo de las mujeres rurales"; BELMONTE CABANILLAS, Carmen (1999) *Mujeres y sociedad rural: entre la inercia y la ruptura* liburuan, 27-49. orriak. Bilbao. EGRAF, S.A. Fondo Social Europeo. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Instituto de la Mujer.

DURÁN, María Angeles (2007) *El valor del tiempo: ¿Cuántas horas te faltan al día?*. Madrid. Espasa Libros S.L.U.

DURÁN, María Angeles (2009) *La investigación sobre el uso del tiempo*. Madrid. Centro de Investigaciones Sociológicas. Consejo Editorial de la Colección Cuadernos Metodológicos.

DURKHEIM, Émile (1912) *Las formas elementales de la vida religiosa*. Madrid. Alianza Editorial 2008.

EMAISIA ELKARTEA (2004) *Pentsatuz... Astia, aisia, emakumeak. Hainbat gogoeta*. Bilbo. Urtxintxa Eskola eta Emakunde. Emaisía Elkartea.

- EVANS-PRITCHARD, Edward Evan (1977) *Los Nuer*. Barcelona. Anagrama.
- ESTORNÉS LASA, Bernardo (1996) *Memorias: Recuerdos y andanzas de casi un siglo*. Donostia. Colección Auñamendi, Editorial Auñamendi.
- ESTORNES LASA, Mariano (1958) *Oro del Ezka*. Donostia. Colección Auñamendi, Editorial Auñamendi.
- FERNANDEZ VIGUERA, Blanca (Zuzendaria) (2001) *Situación social de las mujeres en Navarra 1975-1996. Evolución y tendencias de cambio*. Iruñea. Instituto Navarro de la Mujer.
- FRAU LINARES, María José (1998) *El trabajo de las Mujeres: entre la producción y la reproducción*. Alicante. Universidad de Alicante.
- GALLINO, Luciano (1995) "Tiempo", en *Diccionario de Sociología*, México. Editores siglo XXI.
- GARCÍA FERRANDO, Manuel (1977) *Mujer y sociedad rural, un análisis sociológico sobre trabajo e ideología*. Madrid. Cuadernos para el dialogo.
- GARCIA RAMON, María Dolores; CRUZ VILLALÓN, Josefina; SALAMAÑA SERRA, Isabel; VILLARINO PÉREZ, Monserrat (1995) *Mujer y agricultura en España: género, trabajo y contexto regional*. Barcelona. Oikos-Tau.
- GARCIA RAMON, María Dolores; TULLA I PUJOL, Antoni Francesc; VALDOVINOS PERDICES, Nuria (1995) *Geografía rural*. Madrid. Editorial Síntesis.
- GARCIA RAMON, María Dolores eta BAYLINA FERRÉ, Mireia (Edk.) (2000) "Estudios rurales y género en Europa y España. Un estado de la cuestión", *El nuevo papel de las mujeres en el desarrollo rural* liburuan, 26-64 orrialdeak. Barcelona. Oikos-Tau.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (1976) *Valle de Roncal: paisajes y labores*. Donostia. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (2007) *Pensamiento mágico vasco*. Donostia. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.
- GARRIDO, Elsa (edi) (1997) *Historia de las mujeres en España*, 15.kapitulua (Pilar Folguera Crespo, *La II.República.Entre lo privado y lo público*) eta 17.kapitulua (Pilar Folguera Crespo, *El Franquismo.El retorno a la esfera privada*). Madrid. Síntesis.
- GEORGE, Pierre (1982) *Geografía Rural*. Barcelona. Editorial Ariel S.A.
- GRUPO BORTIRI (1990) *Andar por el valle de roncal*. Madrid. Penthalon ediciones.
- HENRY, Ian P. (2001) *The politics of leisure policy*. U.K. Public Policy and Politics. Palgrave Macmillian.

HUALDE, Fernando eta USOZ, Jone (2002) *Uztarroz-Uztarroze*. Erronkari. Kebenko, Txuri Beltzean.

HUALDE, Fernando eta USOZ, Jone (2003) *Erronkaribar eta Erronkariarrak. El valle del Roncal y sus gentes*. Erronkari. Kebenko, Txuri Beltzean.

HUALDE, Fernando (2007) *Erronkari Ibarra: izena eta izana. Ibarreko historiaren gaineko ikusmira*. Iruñea. Nafarroako Gobernua. Prentsa Publikazioak.

HUALDE, Fernando (2013) *Indumentaria roncalesa*. Iruñea. Colección Erronkari Bilduma. Lamiñarra.

IDOATE, Florencio (1977) *La comunidad del Valle de Roncal*. Iruñea. Diputación Foral de Navarra.

ITURRI BUSTO, Jose Miguel (1995) "Una singular comarca del pirineo navarro. Plan de desarrollo integral del valle de Roncal. II. El medio socio-economico". *Agricultura, Revista Agropecuaria*. 760. Zk. 887-891 orriak, Medio Ambiente. Madrid. Editorial Agrícola Española.

IZQUIERDO, Jesusa; DEL RÍO, Olga eta RODRÍGUEZ, Agustín-ekin (1988) *La desigualdad de las mujeres en el uso del tiempo*. Madrid. Instituto de la Mujer. Serie Estudios 20.

JIMENO JURÍO, Jose María (zuzendaria) (1993) *Nafarroako toponimia eta mapagintza. Erronkari Ibarra*. Iruñea. Nagraphic S.L.

LASA ANAUT, Martina (1980) *Coplas roncalesas de la tía Martina*. Donostia. Editorial Auñamendi.

LEACH, Edmund Ronald (1971) *Replanteamiento de la antropología*. Barcelona. Seix Barral.

LEGARRETA IZA, Matxalen (2008) "El tiempo donado en el ámbito doméstico. Reflexiones para el análisis del trabajo doméstico y los cuidados" artikulua. E.A.E. Euskal Herriko Unibertsitatea. Web: <http://revistas.ucm.es/index.php/CRLA/article/view/33400> Azkeneko kontsulta: 2014/8/22

LEIF, Joseph (1991) *Tiempo libre y tiempo para uno mismo. Un reto educativo y cultural*. Madrid. Narcea S.A. ediciones.

MALINOWSKI, Bronislaw (1977) *El cultivo de la tierra y los ritos agrícolas en las Islas Trobriand*. Barcelona. Labor.

MATILLA, María Jesús eta ORTEGA, Margarita (1996) *El trabajo de las mujeres: siglo XVI-XX*. VI Jornadas de la Investigación Interdisciplinaria sobre la Mujer. Madrid. Universidad Autónoma de Madrid e Instituto Universitario de Estudios de la mujer.

MAULEÓN GÓMEZ, José Ramón (2005) "La familia agraria. Un caso donde la familia es prioritaria en el proyecto vital de las madres". ARREGUI Begoña y DÁVILA, Andrés (Edts)

Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Reflexiones sobre la fecundidad y el cuidado familiar desde la experiencia de Euskadi liburuan, 207-229. orriak. Bilbao. Servicio Editorial de la U.P.V.

MAUSS, Marcel. (1923-24) "Ensayo sobre los dones. Razón y forma del cambio en las sociedades primitivas" *Sociología y Antropología* aldizkarian. 167-263. orriak. Madrid. Tecnos.

MIRÓN PÉREZ, Maria Dolores. (2001) "Tiempo de mujeres, tiempo de hombres: género, ocio y trabajo en Grecia antigua". Granada. *Arenal* aldizkarian, 8. Bol., 1.zk (urtarrila-ekaina 2001), *Genero y usos del tiempo*. 5-37. orriak. Instituto de Estudios de la Mujer, Centro de Documentación Científica. Universidad de Granada.

MOLINERO, Carmen (1999) "Silencio e invisibilidad: la mujer durante el primer franquismo" *Revista de Occidente*, 223 zenbakia (63-82.orriak). Madrid. Fundación José Ortega y Gasset-Gregorio Marañón.

MORALES, Marta eta BRAVO, Idoya (2006) "El ocio terapéutico", Giró Miranda, Joaquín-ek koordinatutako *Envejecimiento Activo, envejecimiento en positivo* liburuan (133-154 orr.). Universidad de la Rioja.

MURILLO, Soledad (1996) *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*. Madrid. Siglo Veintiuno de España Editores, S.A.

NIELFA, Gloria. (2003) "Mujeres y hombres en la España franquista, sociedad, economía, política, cultura". Madrid. Universidad Complutense.

OBSERVATORIO OCUPACIONAL, Inmark Estudios y Estrategias-en kolaborazioarekin (2001) *La Generación de empleo en el ocio y tiempo libre*. Madrid. Instituto Nacional de Empleo. Ministerio de trabajo y asuntos sociales. Union Europea, Fondo Social Europeo.

ORDUNA PORTUS, Pablo (2004) "Estudio etnológico del hogar en el Valle de Roncal". *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* liburuan. 79. Zk. 211-278 orriak. Iruñea. Nafarroako Gobernuaren Prentsa Publikazioak.

ORDUNA PORTUS, Pablo (2011) "Vecindad y derecho Consuetudinario: análisis de los usos y costumbres comunitarias en el Valle de Roncal". *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*. Urtarrila-Abendua. Iruñea. Nafarroako Gobernuaren Prentsa Publikazioak.

OSBORNE, Raquel (ed) (2012) *Mujeres bajo sospecha: (memoria y sexualidad 1930-1980)*. Madrid. Fundamentos.

PAHL, Raymond Edward (1991) *Divisiones del trabajo*. Madrid. Ministerio del Trabajo y Seguridad Social.

PEDRÓ, Francesc (1984) *Ocio y tiempo libre ¿Para qué?*. Barcelona. Editorial Humanitas.

RAMOS, Ramon (1990) *Cronos dividido. Uso del tiempo y desigualdad entre mujeres y hombres en España*. Madrid. Instituto de la Mujer.

RIBOT GARCIA, Luis Antonio eta DE ROSA, Luigi (2001) *Trabajo y ocio en la época moderna*. Madrid. Actas Editorial.

SAAVEDRA FERNANDEZ, Pegerto "Ocio y vida cotidiana en la España Rural del siglo XVIII".
RIBOT GARCÍA, Luis Antonio eta De Rosa, Luigi (koord.) (2001) *Trabajo y ocio en la época moderna* liburuan. Madrid. Editorial Actas.

SABETÉ MARTINEZ, Ana (1989) *Las mujeres en el medio rural*. Madrid. Instituto de la mujer.

SAMPEDRO GALLEGRO, María Rosario (1996) *Género y ruralidad, las mujeres ante el reto de la desagrarización*. Madrid. Instituto de la Mujer.

SAMPEDRO GALLEGRO, María Rosario: "Las mujeres rurales ante el reto de la desagrarización"
BELMONTE CABANILLAS, Carmen (1999) *Mujeres y sociedad rural: entre la inercia y la ruptura* liburuan. Bilbao. CPDiseño.

SANZ TOLOSANA, Elvira (2009) *Identidad, Montaña y desarrollo: los valles de Roncal, Salazar y Aezkoa*. Donostia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

SHANKS, Michael eta TILLEY, Christopher (1987) *Social Theory and Archaeology*. U.K. Oxford, Polity Press.

STEIN, Marisa (2000) *Ocio, ¿Qué ocio?*.

THOMPSON, Edward Palmer (2000) "Tiempo, disciplina de trabajo y capitalismo industrial", *Costumbres en común*. Barcelona. Crítica.

TRILLA, Jaume eta PUIG ROVIRA, Josep María (1996) *La pedagogía del ocio*. Barcelona. Editorial Laertes.

URQUIJO ARREGUI, Miren Begoña (2011) "Escenificaciones de cultura económica y género en el espacio agroturístico vasco. El caso de Tolosaldea (Gipuzkoa)". Donostia. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

VALENCIA GARCÍA, Guadalupe (2007) *Entre cronos y kairós. Las formas del tiempo sociohistorico*. Mexico. Anthropos Editorial.

VERA BALANZA, Maria Teresa. "Ausencias historiográficas y presencias sociales. Notas bibliográficas sobre usos del tiempo y género". (2001). *Arenal* aldizkarian, 8. bol, 1.zk (urtarrilakainak 2001), *Genero y usos del tiempo*. 83-106. orriak. Instituto de Estudios de la Mujer, Centro de Documentación Científica. Universidad de Málaga.

VIOLANT i SIMORRA, Ramon (1949) *Pirineo español. Vida, usos, costumbres, creencias y tradiciones de una cultura milenaria que desaparece*. Madrid. Editorial Alta Fulla.

ZUBIRI, Xavier (1996) *Espacio, tiempo, materia*. Madrid. Alianza Editorial/Fundación Xavier Zubiri.